ENPLEGUAREN EUSKAL LEGEAREN AURREPROIEKTUA

ZIOEN AZALPENA 6

I. TITULUA 20

XEDAPEN OROKORRAK 20

1. artikulua.- Xedea 20

2. artikulua.- Definizioak 21

3. artikulua.- Enplegu eta lan duinerako politika publikoak 22

4. artikulua.- Enplegu-politika publikoen tokikotasuna 22

5. artikulua.- Enplegu-politika publikoen printzipio gidariak 22

6. artikulua.- Lehentasunezko arreta behar duten kolektiboak 23

7. artikulua.- Enplegu-politika aktiboen eragileak 24

8. artikulua.- Politika publikoen eragina enpleguan 24

II. TITULUA 24

ENPLEGAGARRITASUNA HOBETZEKO ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK ... 24

9. artikulua.- Enplegagarritasuna hobetzeko eskubideak 25

10. artikulua.- Laguntza pertsonalizatua, jarraitua eta egokia izateko eskubidea 25

11. artikulua.- Enplegagarritasunari buruzko diagnostiko pertsonala egiteko eskubidea 25

12. artikulua.- Enplegu-plan integratua eta pertsonalizatua egiteko eskubidea 26

13. artikulua.- Lanean prestakuntza jasotzeko eskubidea 26

14. artikulua.- Enplegagarritasuna hobetzeko betebeharrak 26

15. artikulua.- Betebeharrak ez betetzea 27

16. artikulua.- Eskubideen eraginkortasuna 27

17. artikulua.- Konfidentzialtasuna 27

III. TITULUA 28

EUSKAL ENPLEGU SAREA 28

I. KAPITULUA 28

XEDAPEN OROKORRAK 28

18. artikulua.- Euskal Enplegu Sarea 28

19. artikulua.- Euskal Enplegu Sarean integratzea 28

20. artikulua.- Euskal Enplegu Sarea osatzen duten entitateen betebeharrak 28

21. artikulua.- Leihatila bakarra 29

22. artikulua.- Enplegu-politika publikoak garatzeko lankidetza 29

23. artikulua.- Datu pertsonalen tratamendua 29

II. KAPITULUA 30

EUSKAL ENPLEGU SAREKO ZERBITZUEN ZORROA, ETA PERTSONA, ENTITATE ETA ENPRESA ERABILTZAILEEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK 30

1. ATALA 30

EUSKAL ENPLEGU SAREAREN ZERBITZU-ZORROA 30

24. artikulua.- Definizioa 30

25. artikulua.- Zerbitzuen prestazio-eduki teknikoa eta giza baliabideen prestakuntza 30

26. artikulua.- Euskal Enplegu Sarearen mapa 31

27. artikulua.- Euskal Enplegu Sarearen zerbitzu-zorroa emateko bermea 31

28. artikulua.- Enplegurako orientazio-zerbitzua 31

29. artikulua.- Laneko prestakuntza-zerbitzua 32

30. artikulua.- Bitartekaritzarako eta enplegua aurkitzeko zerbitzua 33

31. artikulua.- Autoenplegurako eta ekintzailetzarako aholku-zerbitzuak ... 33

32. artikulua.- Pertsona, enpresa eta entitate enplegatzaileentzako aholkularitza-zerbitzua 33

33. artikulua.- Lan-merkatuari buruzko informazio-zerbitzu aurreratua 34

2. ATALA 34

PERTSONA, ENTITATE ETA ENPRESA ERABILTZAILEAK. ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK 34

34. artikulua.- Pertsona, entitate eta enpresa erabiltzaileak 34

35. artikulua.- Pertsona, enpresa eta entitate erabiltzaileen eskubideak 34

36. artikulua.- Pertsona, enpresa eta entitate erabiltzaileen eskubideak baliabide elektronikoak erabiltzean 35

37. artikulua.- Pertsona, enpresa eta entitate erabiltzaileen betebeharrak . 36

38. artikulua.- Lan-historia bakarra 36

39. artikulua.- Profesionalek lan-historia bakarrerako sarbidea izatea 37

III. KAPITULUA 37

ARRETA, INFORMAZIO ETA PROSPEKZIORAKO TRESNA KOMUNAK ETA EUSKAL ENPLEGU SAREAREN ZERBITZU-ZORROAREN KUDEAKETA 37

1. ATALA 37

ARRETA, INFORMAZIO ETA PROSPEKZIORAKO TRESNA KOMUNAK 37

40. artikulua.- Arreta, informazio eta prospekziorako tresna komunak onartzea, diseinatzea eta mantentzea 37

41. artikulua.- Arreta eta jarraipenerako tresna komuna 37

42. artikulua.- Enplegu-, prestakuntza- eta zerbitzu-eskaintzen informazio eta kudeaketarako tresna 38

43. artikulua.- Profilatzeko tresna 38

44. artikulua.- Enpleguaren eta Prestakuntzaren Euskal Behatokia 38

2. ATALA 39

EUSKAL ENPLEGU SAREAREN ZERBITZU-ZORROAREN KUDEAKETA 39

45. artikulua.- Printzipio gidariak 39

46. artikulua.- Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren kudeaketa esklusiboa 39

47. artikulua.- Foru-aldundien kudeaketa 40

48. artikulua.- Toki-entitateen kudeaketa 40

IV. KAPITULUA 41

ENPLEGAGARRITASUNA ETA OKUPAGARRITASUNA HOBETZEKO PROGRAMA OSAGARRIAK 41

49. artikulua.- Enplegagarritasuna eta okupagarritasuna hobetzeko programa osagarriak 41

50. artikulua.- Konpetentziak baloratzeko programa 41

51. artikulua.- Konpetentziak eguneratzeko programa 42

52. artikulua.- Lan-merkatu arruntean babesa eta laguntza duten enplegu-programak 42

53. artikulua.- Aktibazio-programa integralak 42

V. KAPITULUA 43

EUSKAL ENPLEGU SAREKO ENTITATE PRIBATU LAGUNTZAILEAK 43

54. artikulua.- Euskal Enplegu Sareko entitate pribatu laguntzaileak 43

55. artikulua.- Kontratu irekiak 44

56. artikulua.- Itunpeko kudeaketako akordioak 44

VI. KAPITULUA 45

EUSKAL ENPLEGU SAREA IKUSKATZEA ETA ZERBITZUEN KALITATEA KONTROLATZEA 45

57. artikulua.- Ikuskapena 45

58. artikulua.- Ikuskapen-ahalak 45

59. artikulua.- Ikuskapen-lanari laguntzea 45

60. artikulua.- Ikuskapen-jarduketen plangintza 46

61. artikulua.- Eskainitako zerbitzuak ordezkatzea 46

IV. TITULUA 47

ENPLEGU-POLITIKA PUBLIKOEN ESKUMENAK, GOBERNANTZA, PLANGINTZA, PARTAIDETZA ETA FINANTZAKETA 47

I. KAPITULUA 47
ESKUMENAK 47
62. artikulua.- Eusko Jaurlaritza 47
63. artikulua.- Foru-aldundiak 48
64. artikulua.- Udalerriak 48
II. KAPITULUA 48
GOBERNANTZA 48
65. artikulua.- Gobernantza 48
66. artikulua.- Enplegu Politika Publikoen Euskal Kontseilua 48
67. artikulua.- Enplegu Politika Publikoen Euskal Kontseiluaren osaera 49
68. artikulua.- Enplegu Politika Publikoen Euskal Kontseiluaren eginkizunak 49
69. artikulua.- Erabakien araubidea 50
70. artikulua.- Aholkularitza, laguntza teknikoa eta administratiboa 51
71. artikulua.- Elkarrizketa Sozialerako Mahaia 51
72. artikulua.- Elkarrizketa Sozialerako Mahaiaren eginkizunak 51
III. KAPITULUA 52
PLANGINTZA 52
73. artikulua.- Plangintza 52
74. artikulua.- Enpleguaren Euskal Estrategia 52
75. artikulua.- Enpleguaren Euskal Estrategiaren edukia 52
76. artikulua.- Enpleguaren Euskadiko hiru urteko Plana 53
77. artikulua.- Enplegurako eta toki-garapenerako planak 54
78. artikulua.- Enplegurako eta toki-garapenerako planak onartzera behartuta dauden udalerriak eta toki-entitateak 54
79. artikulua.- Jarduera ekonomikoa sustatzeko eta enplegua sortzeko ekintzak programatzea 55
IV. KAPITULUA 55
PARTE-HARTZEA 55
80. artikulua.- Enpleguaren Euskal Foroa 55
81. artikulua.- Enpleguaren Euskal Foroaren eginkizunak 56
V. KAPITULUA 56
FINANTZAKETA 56
82. artikulua.- Finantzaketa-iturriak 56
83. artikulua.- Euskal Enplegu Sarearen zerbitzu-zorroa kudeatzeko finantza-lankidetza 57
V. TITULUA 57

EUSKAL ENPLEGU SAREAREN ZERBITZU-ZORROAREN ETA ENPLEGU-POLITIKA PUBLIKOEN IKERKETA, BERRIKUNTZA ETA EBALUAZIOA 57

84. artikulua.- Ikerketa eta berrikuntza 57

85. artikulua.- Ebaluazioa 58

VI. TITULUA 58

LANBIDE-EUSKAL ENPLEGU ZERBITZUA 58

86. artikulua.- Izaera, egoitza eta araubide juridikoa 58

87. artikulua.- Helburuak eta jarduteko printzipioak 59

88. artikulua.- Eginkizunak 59

89. artikulua.- Gobernu-organoak 60

90. artikulua.- Estatutuak 61

91. artikulua.- Programa-kontratua 61

92. artikulua.- Euskadiko Ogasun Nagusiaren gai propioei buruzko araubide juridikoa 61

93. artikulua.- Baliabide ekonomikoak 62

94. artikulua.- Langileak 62

LEHENENGO XEDAPEN GEHIGARRIA.- Euskal Enplegu Sarearen mapa, logotipoa eta arreta, informazio eta prospekziorako tresna komunak 63

BIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA.- Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua administrazio-erakunde autonomoa Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua zuzenbide pribatuko ente publiko bihurtzea 63

HIRUGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA.- Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua zuzenbide pribatuko ente publikoaren aurrekontuak 64

LEHENENGO XEDAPEN IRAGANKORRA.- Lan Administrazioaren Prestakuntza Espezialitateen Euskal Katalogoa 64

BIGARREN XEDAPEN IRAGANKORRA.- Enplegurako eta Toki Garapenerako Lankidetza Funtsa 64

XEDAPEN INDARGABETZAILEA 66

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENA.- Inklusiorako eta Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren Legea aldatzea 66

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA.- Erregelamendu bidezko garapena 68

AZKEN XEDAPENETAKO HIRUGARRENA.- Deslegeztatzea 68

AZKEN XEDAPENETAKO LAUGARRENA.- Indarrean jartzea 68

ZIOEN AZALPENA

I

Espainiako Konstituzioak, 35. artikuluan, lanerako eskubidea aitortzen du, eta, era berean, enplegu osoa lortzera bideratutako politika egiteko betebeharra ezartzen die botere publikoei, bai eta prestakuntza eta berregokitze profesionala sustatzeko, laneko segurtasuna eta higienea zaintzeko eta lan-baldintza duinen hobekuntza bermatzeko betebeharra ere (40. artikulua).

Horrekin bat etorriz, Euskal Herriaren Autonomia Estatutuaren 9. artikuluak euskal botere publikoak behartzen ditu, beren eskumenen esparruan, bizi-baldintzak eta lan-baldintzak hobetzeko politika bultzatzera eta enpleguaren hazkundea eta egonkortasun ekonomikoa sustatzera.

Espainiako Konstituzioa eta Euskal Herriaren Autonomia Estatutua bat datoz nazioarteko eta Europako zuzenbideko zenbait tresnarekin lanerako eskubidea aitortzeari dagokionez —adibidez, Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren 23. artikulua, Eskubide Ekonomikoen, Sozialen eta Kulturalen Nazioarteko Itunaren 6., 7. eta 8. artikuluak eta Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Gutunaren 15., 23., 31., 32. eta 34. artikuluak—.

Europako Gutun Sozial berraztertuak (1996koak) langile guztientzako doako enplegu-zerbitzuak ezartzearekin eta orientazio, prestakuntza eta berregokitze profesional egokiak sustatzearekin lotzen du lanerako eskubidearen eraginkortasuna, eta, aldi berean, lan duinarekin lotutako eskubideak aitortzen ditu eta orientazio profesionalerako eta lanbide-heziketarako eskubideak arautzen ditu.

Konstituzio Auzitegiak ere aspaldi aitortu zuen lanerako eskubidearen alderdi askotariko hori, aldarrikatu baitu aipatutako eskubidea ez dela agortzen lan egiteko askatasuna izatean, lanpostu bat izateko eskubidea ere baitakar, eta, beraz, alderdi indibiduala eta kolektiboa ere badituela. Alderdi indibidualari dagokionez, hau zehazten du: guztiok dugu lanpostu jakin bat lortzeko eskubide bera, beharrezko gaikuntza-baldintzak betetzen baditugu, eta enpleguan jarraitutasuna edo egonkortasuna izateko eskubidea ere badugu, hau da, bidezko arrazoiren bat izan ezean kaleratuak ez izateko eskubidea. Alderdi kolektiboari dagokionez, lanerako eskubideak botere publikoei agintzen die enplegu osoa lortzera bideratutako politika gauza dezatela (Konstituzio Auzitegiaren 22/1981 Epaia, Konstituzio Auzitegiaren 119/2014 eta 104/2015 epaietan errepikatutako doktrina).

Lanaren Nazioarteko Erakundeak (LANE), 1964an, enplegu-politikari buruz hartu zuen 122. Hitzarmenak ere aipatzen du alderdi kolektibo hori. Hitzarmen horren arabera, enplegu osoa, produktiboa eta askatasunez aukeratua sustatzeko politika aktibo bat formulatu eta gauzatu behar dute kideek, kontuan hartuta garapen ekonomikoaren maila eta etapa, eta enpleguaren helburuen eta gainerako helburu ekonomiko eta sozialen artean dauden harremanak (1. artikulua).

Enpleguaren sustapena alderdi anitzekoa da, kontuan hartzen baititu enplegu-politika aktiboak, eskarian eta eskaintzan eragiten duten neurriak, eta politika ekonomikoari, zerga-politikari, garapen ekonomikoari, merkataritza-garapenari, hezkuntzari eta antzekoei erantzuten dieten neurriak, etab. Izan ere, enplegua funtsezko faktorea da lehiakortasunerako eta aurrerapen ekonomikorako, gizarte-kohesiorako eta lurralde-orekarako.

Nazio Batuen Erakundeak 2015eko irailaren 25ean onartu zuen garapen jasangarrirako agenda berriaren 8. helburuari lotutako xedeek ere —Hazkunde ekonomiko inklusibo eta

jasangarria, enplegua eta guztientzako itxurazko lana sustatzea— ikuspegi hori errepikatzen dute, politika ekonomikoak eta enplegu-politikak bateratuz.

Lege hau ikuskera horretan dago oinarrituta, eta ikusmolde zabal, integratzaile eta sektorearteko batetik definitzen ditu enplegu-politika publikoak.

II

Enplegua ez da ageri Espainiako Konstituzioak 149. artikuluan zerrendatzen dituen eskumen esklusiboen artean, ez eta Euskal Herriaren Autonomia Estatutuko gaien artean ere. Egia esan, zeharkako gaia da.

Konstituzio Auzitegiak Espainiako Konstituzioaren 149.1.7 eta 149.1.13 artikuluetan Estatuari aitortutako eskumen-tituluekin lotu izan du enpleguaren gaia. Horrela, ondorioztatu du lan-merkatua eta enplegu osoa arautzera bideratutako finantza-baliabideen mobilizazioa *lan-erregimen edo -arlotzat hartzen denera mugatzen ez diren eremuei dagokiela*, *nahiz eta horrekin lotura izan*, baizik eta «*orokorrean ulertutako lan-merkatuan eragiten duten neurriak direla, Espainiako Konstituzioaren 40.1* in fine *artikuluan datorren ildoa betearaziz, atzean dituela Espainiako Konstituzioaren 149.1.13 artikuluaren eskumen-babesa, Estatuari ematen baitio jarduera ekonomikoaren plangintza orokorrari buruzko oinarriak zehazteko eta horren koordinazioa egiteko eskumen esklusiboa*» (Konstituzio Auzitegiaren 95/2002 eta 22/2014 epaiak).

Lege honen euskarri diren Euskal Herriaren Autonomia Estatutuaren 10.25 eta 12.2 artikuluek Euskal Autonomia Erkidegoa gaitzen dute enplegu-politika propioa ezarri eta garatzeko, ekonomiaren antolamendu orokorrarekin bat etorriz eta Estatuak ezartzen duen lan-legeriaren esparruaren barruan.

Modu lauan esatearren, enplegu-politika eta enplegua sustatzeko politika Estatuaren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren artean partekatutako gaitzat har daitezke, eta horiek, askotan, oinarriei eta garapenari buruzko eskemari erantzuten diote.

Euskal Autonomia Erkidegoak legegintza-eskumenak erabil ditzake hertsiki lan-arlokoak ez diren baina horiekin lotuta dauden gaietan. Logikoa denez, lege honek saihestu egiten du lan-harremanaren erregulazioan sartzea, debekatuta baitauka, eta aztertu egiten ditu enplegu-politika aktiboak, enplegua sortzea eta enplegu sustapena, lan-arlokoak izan gabe garapen ekonomikoari eta jarduera ekonomikoari lotzeko moduko gaiak direla.

Azken lotura horri esker, erakunde-maila bakoitzari dagokion eremua egituratu daiteke, barne-mailan.

Ildo horretan, nahikoa izango da Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 36.1.d) artikuluari eta Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 17.1.25) artikuluari egiten zaien aipamena aurreratzea, artikulu horien gainean baitago oinarrituta lege honek *ex novo* definitzen duen Euskal Autonomia Erkidegoko enplegu-politika publikoen egituraketa.

Legearen eskumen-euskarri diren tituluen definizioan eraginik ez duen arren, beharrezkoa da Ekonomia Ituna aipatzea, garrantzi berezia baitu enplegu-politiken definizio eta garapenean, bai horietara bideratutako baliabide ekonomikoen jatorriagatik —baliabide ekonomiko horiek ez datoz Enplegu eta Lan Gaietarako Konferentzia Sektorialean adostutako funtsen banaketatik—, bai horiei eman behar zaien ikuspegi integralaren zabaltasunagatik.

Azkenik, Lanaren, enpleguaren eta enplegurako lanbide-heziketaren esparruan Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoak burutzen dituen lan-arloko legeria betearazteko eginkizunak eta zerbitzuak Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatzeko azaroaren 5eko 1441/2010 Errege

Dekretuaren bidez, buru eman zitzaion enplegu-politika aktiboen kudeaketa osoa egiteko gaitasunaren prozesuari, eta horretarako sortu zen Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua: lehenengo, Euskal Autonomia Erkidegoko 2010. urteko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen abenduaren 23ko 2/2009 Legearen bidez, eta gero, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari buruzko urriaren 13ko 3/2011 Legearen bidez.

III

Lanerako eskubidea gizarte-eskubideen oinarrian dago, aukera ematen baitu duintasunez bizitzeko, pertsona gisa garatzeko eta gizarteratzen laguntzeko, eta, horretarako, alderdi kolektiboan, eskubide horiek benetan gauzatuko direla sustatzeko botere publikoek duten betebeharra exijitzen du. Konstituzioan, lanerako eskubidea duintasun-parametroetan dago oinarrituta, eta ordainsari nahikoa, baimenak, opor ordainduak eta lanaldia mugatzeko eta atsedenaldiak izateko eskubidearekin batera aurkezten da (EKren 35.1 artikulua).

LANEren ustez, lan duina da —'itxurazkoa', bere jatorrizko bertsioan, ingelesez, 'decent'— aukerak izatea lan produktibo bat egiteko, bidezko diru-sarrera baten truke, lantokian segurtasuna izanda eta gizarte-babesa eskainita familia guztiarentzat, garapen pertsonalerako eta gizarteratzeko aukera hobeak edukita, askatasuna izanda iritziak emateko, antolatzeko eta bizitzari eragiten dioten erabakietan parte hartzeko, eta emakume eta gizon guztientzako aukera- eta tratu-berdintasunez jokatuta. Horretan oinarrituta egin da legearen 2. artikuluak ematen duen lan duinaren definizioa.

Euskadiko enplegu-politika publikoen jatorrizko helburua da lan duina izateko eskubidea gauzatzea, 3. artikulutik ondorioztatzen den bezala.

Itxurazko lanaren kontzeptua *eskubideen eta politiken integrazioan oinarritzen da*. *Itxurazko lanaren paradigman, politika sozial eta ekonomikoaren beste alderdi batzuk barne hartzen dituen esparru batean integratzen dira laneko eskubideak eta elkarrizketa soziala, hain zuzen ere enplegua sustatzeko eta gizarte-babesa hedatzeko politiken esparruan* (Escobar Roca eta Gil y Gil).

Eta doktrinak nabarmendutako lotura hori da orain protagonismoa hartzen duena; izan ere, lan duinaren nahiarekin eta hori lortzeko politiken garapenarekin lotuta, legeak, II. tituluan, prestazio-edukiko eskubide zerrenda oso bat aitortzen du pertsonen enplegagarritasuna hobetzeko.

Hauek dira: laguntza pertsonalizatua, jarraitua eta egokia izateko eskubidea, enplegagarritasunari buruzko diagnostiko pertsonala egiteko eskubidea, enplegu-plan integratua eta pertsonalizatua egiteko eskubidea, eta lanean prestakuntza jasotzeko eskubidea.

Gizarte Eskubideen Europako Oinarriari (GEEO) ere begiratzen dio legeak. 2017ko azaroaren 17an Göteborgen egin zen Goi Bilera Sozialean sinatu zuten oinarri hori Europako Parlamentuak, Kontseiluak eta Batzordeak, Europa sozial sendo, zuzen, inklusibo eta aukerez betea lortzeko bidean. GEEOren 1. printzipioak dio pertsona orok duela eskubidea hezkuntza, prestakuntza eta etengabeko ikaskuntza inklusiboa eta kalitatezkoa izateko, eta gizartean bete-betean parte hartzea eta lan-merkatuko trantsizioak arrakastaz kudeatzea ahalbidetuko dioten gaitasunak mantentzeko eta eskuratzeko. Bestalde, 4. printzipioak dio pertsona orok duela eskubidea laguntza pertsonalizatua eta egokia jasotzeko enpleguaren edo lan autonomoaren arloan dituen aukerak hobetzeko, enplegua bilatzeko, prestakuntzarako eta birziklatzeko laguntza barne.

Legean aitortu egiten direnez enplegagarritasuna hobetzeko eskubideak, erabat hartzen dira kontuan printzipio horiek, enplegu-politika publikoen erdigunean pertsona ipini behar dela ulertuta.

Garrantzi handiko aurrerapena da hori, eta gainditu egiten ditu Enpleguaren Legearen testu bategina onartzen duen urriaren 23ko 3/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren eta Enplegu Sistema Nazionalaren Zerbitzu Zorro Komuna onartzen duen urtarrilaren 16ko 7/2015 Errege Dekretuaren aurreikuspenak, eta, bestetik, bat dator Lanbide Heziketa Antolatu eta Integratzeko martxoaren 31ko 3/2022 Lege Organikoaren 4.1 artikuluaren d) eta e) letretan xedatutakoarekin.

Gaur egun, gero eta konplexuagoa da ibilbide profesionala, eta, ziurrenik, horixe izango da etorkizuneko joera. Aldaketa hori eta aldaketak berarekin dakartzan birkualifikazio-prozesuak modu proaktiboan onartzeko beharra, eta, muturrean, pertsonaren berrorientazio profesional etengabea, politika publikoek eta legeak erantzun beharreko premia gisa agertzen dira.

Enplegagarritasuna hobetzeko eskubideak, herritarren enplegagarritasun dinamikoa eraikitzeko premiari erantzuteaz gain, bultzada erabakigarria dira berrikuntza bizkortzeko eta hura bermatu behar duten politika aktiboak hobetzeko; izan ere, akuilu bat dira pertsonenganako gizarte-inbertsioa enpresen lehiakortasunaren, gizarte-kohesioaren eta aurrerapen jasangarriaren motor eraginkorra izan dadin. Eskubide horiek aitortzeak eskatzen du dagokion pertsonak, jarraian, bere gain hartzea bere enplegagarritasuna hobetzeko konpromisoa. Horretarako, legeak betebeharren zerrenda bat zehazten du.

Azken batean, enplegagarritasuna hobetzeko eskubideak aitortuz, enplegu-politika publikoen ikuspegi bat finkatzen da, babes eta laguntza pertsonalizatuetan oinarritzen dena, enplegu-politika publikoek lan duinaren paradigmari egin beharreko ekarpen gisa.

Euskal Herriaren Autonomia Estatutuaren 10.25 eta 12.2 artikuluek legitimatu egiten dute etengabe aipatzen gabiltzan eskubideak finkatzea; enplegu-zerbitzu osagarriak definitzeko gaitasunaren aitorpen bereizezina.

IV

Joan den mendearen amaieratik, Enpleguaren Europako Estrategia —enplegu gehiago eta hobeak— lanean ari da herrialdeen helburuak bateratzeko, enplegua agerraraziz Hazkunderako Europa 2020 Estrategian eta, ondoren, Horizon Europa 2030 programako helburuetan, Enplegu Batzordearen bitartez eta Seihileko Europarrean egiten duen aholkularitza-lanaren bitartez.

Testuinguru orokor horretan aldarrikatu zen dagoeneko aipatu den GEEO, Europa sozial sendo bateranzko ibilbide-orria, kode sozial berri bat dakarrena.

2021eko martxoan, GEEOren Ekintza Plana aurkeztu zenean, Batzordeak erabakitasunez bultzatu zuen haren aplikazioa. Plan horretan, hiru helburu nagusi ezarri dira 2030erako Europar Batasunean. Helburu horiek politika eta erreforma nazionalak zuzentzen lagunduko dute, eta lege honen gidari izan dira. Hauek dira: Europar Batasunean, gutxienez % 78ko enplegu-tasa izatea; urtero, helduen % 60 gutxienez prestakuntza-ikastaroetara joatea, eta pobrezia-arriskuan edo gizarte-bazterketa izateko arriskuan dauden pertsonen kopurua gutxienez hamabost milioi gutxiagokoa izatea, bost milioi adingabe barne.

Testuingurua hori dela, berreskuratze bidezko eta enplegu-sortzaile baterako oinarriak ezartzen ditu legeak.

Lehenik, lan duinaren paradigma sendotuz.

Bigarrenik, dagoeneko aipatu den enplegagarritasuna hobetzeko eskubide-bilduma bat aitortuz.

Hirugarrenik, enplegu-zerbitzuak emateko esparrua birdefinituz, herritarrei eta enpresa erabiltzaileei begiratzen dien Euskal Enplegu Sarea sortuta, sinetsita hurbiltasunak eta erakundearteko lankidetzak modu eraginkorrean lagunduko dutela enplegu- eta prestakuntza-

tasak hobetzen, binomio bereizezina baita, atzeraelikatu egiten dena, eta arreta berezia eskaini behar zaio.

Laugarrenik, garaiotara egokituta dauden zerbitzu eta programa osagarriak diseinatuz enplegagarritasuna hobetzeko, teknologia berrien erabilera bultzatuta enplegu-zerbitzuak eskatzen dituzten eskatzaileen zerbitzura eta enpresen zerbitzura, lehentasunezko arreta behar duten kolektiboak zainduta, eta arreta jarrita iraupen luzeko langabezian, desgaitasuna duten pertsonengan, emakume eta gazteengan eta gizarte-bazterketan, inor atzean gera ez dadin.

Horrela, eskubide, zerbitzu eta programen multzo ordenatu bat artikulatzen da. Horiek, batera, helburu dute honako hauetan jasotako aurreikuspenak eraginkor egitea: desgaitasuna duten pertsonen eskubideei buruzko Konbentzioaren 27. artikulua, desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren testu bategina onartzen duen azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuaren 35. artikulutik 47.era bitartekoak, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabeko bizitzetarako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen III. tituluko IV. kapitulua, eta Gazteriaren martxoaren 10eko 2/2022 Legearen 20.a) artikulua.

Lege hau eta Inklusiorako eta Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren Legea gizarte-babeserako ekosistema komun baten parte dira, Euskadin pobreziaren eta gizarte-bazterketaren aurka irmoki borrokatzen duena; horrela, Gizarte Segurantzaren langabezia-prestazio eta -sorospenekin batera, langabeziaren eta prekarizazioaren ondorioak moteltzen dituzte, enplegu-politiken eta -zerbitzuen ekintza espezializaturako pizgarria izateko, lan duina lortze aldera.

Bosgarrenik, enplegu-politika publikoen sektoreartekotasuna eta erakundeartekotasuna islatzen duen gobernantza-eredu bat diseinatuz, elkarrizketa sozialari beharrezko protagonismoa ematearekin batera, gizarte-eragileei zeregin garrantzitsua aitortu behar zaielako gizarte- eta enplegu-politiken diseinu eta aplikazioan.

Era berean, legeak aintzat hartzen du Batzordearen 2021eko martxoaren 4ko 2021/402 (EB) Gomendioa, COVID-19aren krisiaren ondoren enplegurako laguntza aktibo eraginkorra (EASE) emateari buruzkoa. Gomendio horren arabera, estatu kideek neurri koherenteen paketeak egin behar dituzte, aldi baterako neurriak eta neurri iraunkorrak konbinatuko dituztenak, pandemiak eragindako lan-merkatuaren erronkei aurre egiteko eta trantsizio ekologiko eta digitala arrakastaz gauzatu ahal izateko. Horretarako, hauek barne hartzen dituzten neurri-paketeak gomendatzen ditu: i) kontrataziorako eta trantsiziorako pizgarriak eta ekintzailetzarako laguntza; ii) hobetzeko eta birziklatzeko aukerak eta laguntza-neurriak; eta iii) enplegu-zerbitzuek laguntza handiagoa ematea lan-trantsizioei.

Begien bistakoa da lehenengo neurria enplegu-politika ororen oinarrian dagoela, baina bigarrenak eta hirugarrenak ere lege honen aurreikuspenetako asko hartzen dituzte. Konpetentzia profesionalen hobekuntzan eragiteko beharra eskakizun indibidual eta kolektiboa da, konpetentzia-gabeziak eragozpen bat direlako gizabanakoentzat, baina baita lan-merkatuarentzat berarentzat ere, eta enplegu-politika publikoek modu erabakigarrian borrokatu behar dute horren aurka publikoek modu erabakigarrian borrokatu behar dute horren aurka.

Inkestek adierazten dutenez, 10 langiletik gutxienez 2k ez dauzkate beren lana behar bezala egiteko behar diren konpetentziak (Espainiarako datuak ez daude autonomia-erkidegoen arabera bereizita. ELGA. Skills for Jobs Mismatch), eta 10 enplegatzailetik 2k ezin dituzte aurkitu beren lanpostu hutsetarako profil egokiak (Manpower. 2018 Talent Shortage Survey. 2018).

Konpetentzia profesionalak lantzea, beraz, premia larria da, eta legeak hiru bide ezartzen ditu horri erantzuteko, dagoeneko aipatu den bezala: (1) enplegagarritasuna hobetzeko eskubideak aitortzen ditu; (2) behar bezala konektatutako Euskal Enplegu Sareko zerbitzuak diseinatzen ditu, enplegu-zerbitzuen eskatzaileari modu pertsonalizatuan emateko orientabidea, kualifikazio edo birkualifikazio egokia lortzeko, azken helburua bitartekaritza eraginkorra ahalbidetzea izanik; (3)

enplegagarritasuna hobetzeko programa osagarri batzuk aurreikusten ditu, sortzez egonkorrak, herritarren artean konpetentziak baloratu eta eguneratzeko beharra sustatzeko, tresna malguak eta erraz erabiltzeko modukoak sortuz. Pertsonak bere gain hartuko du bere ibilbidearen protagonismoa, apustu irmoa eginez bizialdi osoko prestakuntza sustatzearen alde. Arauei dagokienez, Bizialdi Osoko Ikaskuntzari buruzko urriaren 10eko 1/2013 Legea eta Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide Heziketari buruzko ekainaren 28ko 4/2018 Legea izan ziren gai horren mugarriak, baina bultzada bat behar zuen enplegu-politika publikoen aldetik.

Jakina da herritar helduek birkualifikazio-prozesuetan duten parte-hartzea lotuta dagoela produktibitate handiagoarekin (% 5 eta % 30 artean), enplegu-aukera handiagoekin eta soldata hobeekin. Horixe erakusten du Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren esperientziak. Lehentasunez langabeei zuzendutako prestakuntza-ekintzetan parte hartu duten pertsonen laneratze-tasa % 51 eta % 55,88 artekoa izan da, proiektu berezietan parte hartu dutenena % 49,53koa eta kontratatzeko konpromisoa duen prestakuntzan parte hartu dutenena % 77,12koa (2021ean sustatutako deialdiei buruzko datuak).

Azken batean, lehentasunezkoa da helduen birkualifikazio-sistema integratu eta eraginkor bat egituratzea, eta laneko prestakuntza lanbide-heziketaren euskal sistemaren beste elementu bat da helburu hori lortzeko.

V

Enplegu-politika publikoak zeharkakoak direnez, ezinbestekoa da gutxienez lau mailatan jardutea: (1) konpetentzien definizioan; (2) gobernantzan eta elkarrizketa sozialaren garrantziaren aintzatespenean; (3) politiken diseinuan, sektoreartekotasuna integratuz; (4) enpleguaren arloan esku hartzen duten eragile guztien parte-hartzean.

Legeak behar besteko protagonismoa ematen dio Eusko Jaurlaritzari, berarenak baitira araugintzako eskumena, Euskadin enplegu-politika publikoen diseinu estrategikoa eta plangintza egiteko eskumena eta Euskal Enplegu Sarearen zerbitzu-zorroa definitu eta kudeatzeko eskumena, esanguratsuenak aipatzearren.

Foru-aldundiei eta udalerriei ere aitortzen die kontuan hartzeko moduko eskumen-zerrenda.

Izan ere, lege honetan garrantzi berezia hartzen du enplegu-politika publikoen tokikotasuna aitortzeak. Tokiko izaera horrek eragina du prestazio-ereduan, gobernantzan eta plangintzan, eta, horrela, programaz eta printzipio informatzailearen funtzionaltasunaz haratago doa, eduki eraginkorra emanez.

Enplegu-politiken tokikotasuna enplegu-zerbitzuari buruzko LANEren 1948ko 88. Hitzarmenetik dator.

Hala ere, orain arte, udalerriek de facto garatu izan dituzte, intentsitate handiagoz edo txikiagoz, enplegua sortzera eta langabeziari aurrea hartu, arindu eta aurre egitera bideratutako politikak, baina ez zeukaten eskumen hori legitimatzeko aitortza espliziturik (ez bada Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 17.1.25 artikulua, baina, jakina denez, ezinbestekoa da bidezko sektore-legeak berrestea, grafikoki esatearren), ez eta enplegu-politiken garapen eraginkorra bermatuko luketen erakundearteko koordinazio eta lankidetzarako beharrezko mekanismorik ere.

Udalerriek zalantzak izan dituzte jarduteko dituzten benetako aukerei buruz, eta, aldi berean, herritarren premiei aurre egin behar zieten, krisialdietan bereziki larriak zirela.

Lege honek amaiera ematen dio egoera horri, eta, subsidiariotasun-printzipiotik eta Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legetik abiatuta, eskumen propioa ematen die udalerriei enplegurako eta toki-garapenerako planak garatzeko esparru materialean, eta, era

berean, aitortu egiten die udalerriaren garapen sozial eta ekonomikoari lotutako enplegua sustatzeko ekintzak eta bazterketa-egoeran edo -arriskuan dauden pertsonen gizarteratzea eta laneratzea sustatzeko ekintzak gauzatzeko aukera.

Halaber, udalerriek enplegu-zerbitzu jakin batzuk emateko aukera dutela ere ezartzen du legeak.

Enplegua sortzeko aukerak oso lotuta egoten dira lurraldean garatzen diren jarduerekin, eta, beraz, lurraldea garapen-faktore izaten da azkenean.

Lege honek ezin du errealitate hori alde batera utzi, eta toki-garapena enpleguarekin lotuz artikulatzen du udalerrien eskumena, bigarrena lortzeko bidea baita lehenengoa. Era berean, aintzat hartzen da inklusioa lortu nahi bada ezinbestekoa dela gizarte-zerbitzuen eta enplegu-zerbitzuen arteko elkarreragina, gizarteratzea eta laneratzea bateratzen dituen alderdi anitzeko kontzeptua baita. Izan ere, bataren eta bestearen arteko banalerroa ez da batere argia, ekintza bateratuko espazioen eta gizarte-arlotik lan-arlora igarotzeko espazioen aniztasuna erakusten baitu, bereziki nabarmena dela bazterketa-egoeran edo -arriskuan dauden kolektiboetan.

Ondorio horiek foru-aldundiei aitortutako eskumenetara ere heda daitezke, udalerriei aitortutakoen oinarri bera baitute, baina lotura dute Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 36.1.d) artikuluan eta berehala lotzen dira Autonomia Erkidego Osorako Erakundeen eta Lurralde Historikoetako Foruzko Jardute Erakundeen arteko harremanei buruzko azaroaren 25eko 27/1983 Legearen 7.c.1 artikuluarekin, gizarte-laguntzaren eta inklusio-zerbitzuen arloko betearazpen-eremuan, bazterketa-egoeran edo -arriskuan dauden kolektiboei eragiten dienean.

Azken batean, eskumen hauek aitortzen dizkie legeak foru-aldundiei: batetik, enpleguko lurralde-planak onartzekoa, plan horiek Enpleguaren Euskal Estrategian xedatutakora egokitu beharko direla, eta, bestetik, lurraldeko garapen ekonomiko eta sozialari bereziki lotutako enplegua sustatzeko ekintzak garatzekoa, bai eta gizartean baztertuta dauden edo baztertuta geratzeko arriskuan dauden pertsonak gizarteratzera eta laneratzera bideratutakoak ere.

Legeak protagonismo argia ematen dio lurraldeari, baina Enpleguaren Euskal Estrategiatik abiatuta egituratzen du lurralde-plangintza, nahitaez egokitu beharko dela bertan xedatutakora. Izan ere, lurraldera hurbiltzeak ezin du ekarri enplegu-politikak zatikatzea, eta horregatik da beharrezkoa xede eta helburu komun batzuetan integratzea erakunde-maila guztien plangintza.

Enplegu-politika nazionalak formulatzeko gidaliburuari jarraituz (Geneva, LANE, 2012), enpleguaren arloko helburuen definizio itunduaren alde egiten du legeak, erakunde-maila guztiek eta gizarte-eragileek haren definizioan parte hartuta, aitortzen zaien garrantziaren adierazgarri, baina azken erabakia Eusko Jaurlaritzan ipinita, eskumen-lidergoa baitu arlo horretan.

Enplegu Politika Publikoen Euskal Kontseilua eratzen da koordinazioaren bermatzaile izateko, eta garrantzi handiko funtzioak aitortzen zaizkio enplegu-politikaren ildo estrategikoak modu itunduan proposatzeko.

Eusko Jaurlaritza, Enplegu Politika Publikoen Euskal Kontseilua eta Elkarrizketa Sozialerako Mahaia dira enplegu-politika publikoen gobernantzaren ardatz nagusiak.

Enplegu Politika Publikoen Euskal Kontseiluaren izatea bera zuzenean dago errotuta Espainiako Konstituzioaren 103. artikuluan, administrazio-eraginkortasunaren printzipioan, administrazio publikoen jarduketa antolatzen duen printzipioan, horixe baita enpleguaren arloan edo enplegu-politiketan eragina duten gaietan eskumena duten erakundeen jarduketa koordinatzeko beharraren azken helburua.

Legeak elkarrizketa sozialaren protagonismoa indartzen du enplegu-politikaren definizioan, eta, aurreratu denez, gobernantzaren ardatzetako bat Elkarrizketa Sozialerako Mahaia dela esaten du. Bada, 65. artikuluak esleitzen dizkion funtzioetan ikusten da zein garrantzitsua den

elkarrizketa soziala politikak formulatzeko prozesuan, politikak hautatzera daraman egoera aztertzetik hasi eta horien aplikazioa baliozkotu, eta, ondoren, ebaluazioa egitera arte.

VI

Gobernantza-eredua egituratzen duen erakundeartekotasuna, esan bezala, enplegu-zerbitzuen kudeaketara hedatzen da, eta nahitaez aipatu behar da Euskal Enplegu Sarea.

18. artikuluan zehazten den bezala, prestazio-lankidetzarako tresna bat da, eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak, foru-aldundiek, udalerriek, bakoitzaren sektore publikoko entitateek eta enplegu-zerbitzuen zorroa —Euskal Enplegu Sarearen zerbitzu-zorroa deritzona— kudeatzen duten gainerako entitate laguntzaileek osatzen dute.

Autoantolaketarako ahala eta Euskal Herriaren Autonomia Estatutuaren 12.2 artikuluak ematen duen jardute-eremu materiala ditu oinarri, barne hartuta beharrezko zerbitzuak antolatzeko barne-erregelamenduak ematea (Konstituzio Auzitegiaren 249/1988 epaiaren 2. OJ eta 158/2004 epaiaren 5. OJ) eta betearazteko eskumen funtzionala bera arautzea (Konstituzio Auzitegiaren 51/2006 epaiaren 4. OJ).

Azken batean, erakunde-maila bakoitzaren protagonismoa bermatu nahi da, nolabaiteko deszentralizazioa ahalbidetuz enplegu-zerbitzu jakin batzuk ematean, eta egiturazko eta lidergoko eginkizuna emanez Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari.

Euskal Enplegu Sarearen operatibitateak funtsezko alderdiak bermatzea eskatzen du, eta legeak konponbidea ematen die alderdi horiei: hasi espezializazio-irizpide batetik abiatuta egin behar den zereginen banaketa koordinatutik, eragile bakoitzaren ekarpenak optimizatuz (46.etik 48.era bitarteko artikuluek aldarrikatzen duten moduan) eta amaitu arreta, informazio eta prospekziorako tresna komunak sortzean, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari dagokiola horiek diseinatzea eta mantentzea, eta nahitaez erabili beharko dituztela Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko eragile guztiek (40. artikuluak). Tartean egongo da zerbitzu bakoitzaren prestazio-edukia eta haren ezarpen-protokoloak definitzea, Eusko Jaurlaritzaren kontura (25. artikulua), zerbitzuen beharrezko homogeneotasuna bermatuko duena, kalitate-parametro beretatik eta printzipio informatzaile berei (45. artikulua) eta Euskal Enplegu Sarea osatzen duten guztien betebehar berei (20. artikulua) jarraituz.

Euskal Enplegu Sarean sartzeko, prozedura bat bete beharko da. Prozedura horren helburua da bermatzea Euskal Enplegu Sarearen maparekin bat datorrela eta egiaztatzea erakundeak bere gain hartuko dituen zerbitzuen prestazio-edukia betetzeko giza bitartekoak, bitarteko materialak eta teknikoak nahikoak direla (19. artikulua).

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak oso-osorik bermatuko du Euskal Enplegu Sarearen zerbitzu-zorroa (27. artikulua), eta zenbait zerbitzu kudeatzeko aukera emango die foru-aldundiei eta udalerriei.

Horrela, prestazio-eremuaren artikulazioa espezializaziotik eta pertsona eta enpresa erabiltzailearekiko hurbiltasunetik abiatuta egituratzen da, haien beharretara egokitutako zerbitzu pertsonalizatuak sortuz.

Normala da Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak, sare horren ardatz nagusia den aldetik, esklusiboki hartzea bere gain zerbitzu horietako batzuen kudeaketa, estrategikotzat edo funtsezkotzat jo daitezkeelako enplegu-zerbitzuaren arloan.

Era berean, espezializazioak eta hurbiltasunak abagune interesgarria eskaintzen dute foru-aldundiek eta udalerriek zerbitzu-zorroko jarduera batzuk definitzeko.

Azken batean, enplegu-zerbitzuak indartu nahi dira Euskal Enplegu Sarea sortuz, eta, betiere, honako hauek bermatuz: koordinazio egokia, kalitate-maila homogeneoak, eta sareko edozein

entitatek etengabeko elkarrekintza eta jarraipena egiteko aukera pertsona eta enpresa erabiltzaileen onurarako.

VII

Lege honek sei titulu, laurogeita hamalau artikulu, hiru xedapen gehigarri, bi xedapen iragankor, xedapen indargabetzaile bat eta lau azken xedapen ditu.

- I. tituluak xedapen orokorrak biltzen ditu.

1. artikulua xedeari buruzkoa da, eta erakusten du legeak zer aldaketa egin nahi dien enplegu-politika publikoei; izan ere, enplegu-zerbitzuen eskatzaileei eskubideak aitortzearen pertsonalizaziotik bertatik abiatuta, zerbitzuen prestazio-esparrua antolatzea du xede, Euskal Enplegu Sarearen bitartez. Ondoren, Euskadiko enpleguaren arloko eskumenak, gobernantza, enplegu-politika publikoen plangintza, parte-hartzea eta finantzaketa, eta, azkenik, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua arautzeko xedea duela aipatzen da.

3. artikuluak enplegu-politiken alderdi anitzeko definizioa ematen du, lan duinaren helburuaren inguruan egituratua. 4. artikuluan, aldiz, enplegu-politika publikoen diseinuan eta kudeaketan tokikotasunak duen garrantzia aldarrikatzen da. Bi ardatzak erabakigarriak dira gobernantza eredua definitzeko.

5. artikuluan, enplegu-politika publikoen oinarri diren printzipioak lantzen dira; bada, lanaren eta enpleguaren inguruko GEEOren printzipioak jasotzen dituzte.

- II. tituluak (9. artikulutik 17. artikulura) enplegagarritasuna hobetzeko eskubide eta betebeharrak ezartzen ditu. Legeak eskubide horien eraginkortasunarekiko konpromisoa adierazten du, adierazpen programatiko hutsak alde batera utzita, eta hauek arautzen ditu: haien titulartasuna —bi baldintza hauek oinarri hartuta: Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan enplegu-zerbitzuen eskatzaile gisa inskribatuta egotea eta egoitza Euskal Autonomia Erkidegoan izatea—, eskubide horiek baliatzeko baldintza zehatzak, erabiltzaileen eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren betebeharrak, eta horiek ez betetzearen ondorioak. Azkenik, administrazio-bideko prozedura bat ezartzen da (erregelamendu bidez definituko dena) eskubide horien titularrek erreklamazioak egin ahal izan ditzaten baldin eta betebeharrak bete ez badira, modu irregularrean bete badira edo behar beste bete ez badira.

Nolanahi ere, iraupen luzeko langabeen enplegagarritasunari buruzko diagnostiko pertsonala eta enplegu-plan integratu eta pertsonalizatua berrikustea ere aurreikusi da, gehienez hemezortzi hilabeteko epean, GEEOren ildoei jarraituz (4. printzipioa).

- III. tituluaren xedea honako hauek arautzea da: Euskal Enplegu Sarea; arreta, informazio eta prospekziorako tresna komunak; Euskal Enplegu Sarearen zerbitzu-zorroa; enplegagarritasuna hobetzeko programa osagarriak; Euskal Enplegu Sarearen ikuskapena, eta zerbitzuen kalitatea kontrolatzea. Sei kapitulu ditu, eta 18. artikulutik 61.era bitartekoak hartzen ditu.

I. kapitulua Euskal Enplegu Sarea sortzearekin hasten da, funtsezko hiru ardatzetan oinarritzen dela: erakundeartekotasuna, espezializazioa eta pertsona eta enpresa erabiltzaileekiko hurbiltasuna enplegu-zerbitzuak ematean.

Euskal Enplegu Sareak nabarmen indartzen du enplegua bilatzen duten pertsonak, batetik, eta pertsona horiei zerbitzuak eman diezazkieketen enpresak, bestetik, birkualifikatzeko, orientatzeko eta laguntzeko gaitasuna.

Euskal Enplegu Sarea sortzeko, zenbait betebehar ezarri behar dira, enplegu-zerbitzuen koherentzia eta elkarreragina bermatzeko, pertsona eta enpresa erabiltzaileei emango zaien zerbitzua espezializatua eta kalitatezkoa izan dadin.

II. kapituluak bi atal ditu: lehenengoan (24. artikulutik 33.era), Euskal Enplegu Sarearen zerbitzu-zorroa da helburua, eta, bigarrenean (34. artikulutik 39.era), pertsona eta enpresa erabiltzaileak eta haien eskubide eta betebeharrak zehazten dira.

1. atala 24. artikuluarekin hasten da. Artikulu horrek Euskal Enplegu Sarearen zerbitzu-zorroa definitzen du, Enplegu Sistema Nazionalaren Zerbitzu Zorro Komunaren osagarria, berariaz bermatzen duela horren prestazioa. Zerbitzu multzo hori katalogo dinamiko gisa dago pentsatuta, eta enplegu-zerbitzuak merkatuaren beharrekin lotzea du helburu; izan ere, horrela baino ezin izango da bideratu lanerako eskubidearen alderdi kolektiboa lan duina izateko eskubidearen eraginkortasunera.

Enplegu-zerbitzuen prestazioa kalitatezkoa izan dadin, ezinbestekoa da aldez aurretik prestazioaren edukia zehatz-mehatz garatzea, eta horretara egokitu beharko dute Euskal Enplegu Sarea osatzen duten entitate guztiek, 25. artikuluak adierazten duen bezala.

Bestalde, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak bermatzen du zerbitzu guztiak emango direla, dela bitarteko analogikoen bidez, dela bitarteko digitalen bidez, 27. artikuluan aurreikusten den bezala, beti eskubide-berdintasuna errespetatuz, erabilitako bitartekoa edozein dela ere.

Legearen 28. artikulutik 31.era bitartekoetan, zerbitzu hauek aztertzen dira: orientazio-zerbitzua, laneko prestakuntzarako zerbitzua, bitartekaritzarako eta enplegua aurkitzeko zerbitzua, autoenplegurako eta ekintzailetzarako aholku-zerbitzua, enpresei aholkularitza emateko zerbitzua eta lan-merkatuari buruzko informazio-zerbitzu aurreratua. Bada, zerbitzu horiek indartu egiten dute zerbitzuek enplegagarritasuna hobetzeko pertsonen eskubideekin eta lan-merkatuaren eskakizunekin duten lotura.

2. atalak Euskal Enplegu Sarea erabiltzen duten pertsona eta enpresak identifikatzen ditu, baita haien eskubide eta betebeharrak ere, zerbitzuen pertsonalizazioan sakonduz.

35. artikuluan aipatzen diren eskubideen artean, bi dira nabarmentzekoak: (1) erreferentziazko profesional bat esleituta izateko eskubidea; (2) lan-historia bakarra izateko eskubidea, pertsona batek lan-bizitzan zehar duen informazio garrantzitsua laburbildu —enplegagarritasunari, emandako zerbitzuei, egindako lanari, kualifikazioari eta abarri lotutakoa— .Euskal Enplegu Sarearen esku-hartze guztien jarraitutasuna eta osagarritasuna bermatuko du. 36. artikuluan, bitarteko elektronikoak erabiltzearekin lotutako eskubideak jasotzen dira, Euskal Sektore Publikoaren maiatzaren 12ko 3/2022 Legean xedatutakoaren arabera. Nolanahi ere, eta nahiz eta Euskal Enplegu Sareko entitate batzuk ez diren Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikokoak, behartuta egongo dira pertsona eta enpresa erabiltzaileei legeak aitortzen dizkien eskubideak betetzera, modu zeharkakoan bada ere —Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak kudeatzen baitu zerbitzuak bitarteko elektronikoen bidez emateko erabiliko den leihatila digital bakarra—.

III. kapituluan, arreta, informazio eta prospekziorako tresna komunak eta Euskal Enplegu Sarearen zerbitzu-zorroaren kudeaketa daude araututa.

1. atalak (40. artikulutik 44.era) Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren lidergoa erakusten du, entitate horri baitagokio tresna komunak diseinatu eta mantentzea.

Arreta, informazio eta prospekziorako tresna komunak pertsonen eta enpresen zerbitzura dauden Euskal Enplegu Sareko entitateek egiten dituzten esku-hartze guztien jarraitutasuna eta osagarritasuna bermatzeko eta koordinatzeko ardatzetan eratzen dira.

Tresna komun bakoitzak funtsezko zeregin bat du, baina arreta eta jarraipenerako tresna komuna (41. artikulua) benetako pizgarria izango da enplegu-zerbitzuak emateko moduan. Aukera eskainiko du emandako zerbitzu guztien etengabeko jarraipena egiteko, bai pertsonei (beren lan-historian), bai enpresei emandakoetan.

2. atalak enplegu-zerbitzuen kudeaketa ezartzen du. Bada, printzipio informatzaile beretara egokitu behar da, 45. artikuluak ezartzen duen bezala —doakotasuna, unibertsaltasuna, arreta integrala, profesionala eta pertsonalizatua, gardentasuna, kalitatea eta ebaluazioa, trazabilitatea eta konpetentzia profesionalen araberako kudeaketa—.

Legearen 46. artikulutik 48.era bitartekoetan zehazten da, enplegu-zerbitzuak emateari dagokionez, zein eremutan duen Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak kudeaketa esklusiboa, eta zein eremutan esku hartu dezaketen foru-aldundiek eta udalerriek, beren ardurapean.

IV. kapitulua enplegagarritasuna hobetzeko programa osagarriei buruzkoa da, eta lehentasunezko arreta behar duten kolektiboak indartzen ditu zehazki. Konpetentziak eta prestakuntza baloratzeko formula malguak artikulatzen ditu, batez ere kolektibo horien artean sustatzen direnak, nahiz eta herritar guztiei lan-bizitza osoan zehar hedatzeko dauden pentsatuta, horrela bakarrik lortuko baita merkatuaren eskaria biztanleria aktiboaren kualifikazioarekin bateratzea.

Lan-merkatu arruntean babesa eta laguntza duten enplegu-programak aurreikusten dira, eta programa horien artean sartzen dira, desgaitasunen bat duten pertsonez gain (desgaitasunen bat duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko legeriarekin bat etorriz), laneratzeko zailtasun bereziak dituztenak, konpromiso irmoa hartu nahi baita zailtasun handienak dituzten pertsonekin. Era berean, aktibazio-programa integralak aurreikusten dira. Programa horien lehentasunezko kolektibo hartzaile izango dira bazterketa-egoeran edo egoera hori pairatzeko arriskuan dauden pertsonak.

V. kapitulua Euskal Enplegu Sarearen entitate laguntzaileei buruzkoa da.

Nabarmentzekoa da, berria delako, kontratu irekien erregulazioa, kategoria horrek kontratazio publikoak berezko dituen arauetatik kanpoko parametroetan oinarrituta definitzen baitu erregulazio hori. Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak ez du kontratu publikotzat jotzen operadore batzuk beste batzuen aurretik hautatzen ez dituena (Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren Bosgarren Salaren 2016ko ekainaren 2ko epaia, 38. eta 40. paragrafoak).

55. artikuluan xedatutakoaren arabera, operadore ekonomiko guztiek zerbitzuak aldez aurretik ezarritako baldintzetan emateko konpromisoa hartzen dutenean soilik baliatu ahal izango da kontratu irekiaren formula, eta administrazioak ez du horien arteko hautaketarik egingo, guztiak baitira baliozkoak, eta, beraz, guztiei ematen zaie kontratuari atxikitzeko baimena.

Kontua ez da sektore publikoko kontratuen legeriatik ihes egitea, baizik eta, hain zuzen ere, zorrotz aplikatzea berez dagokion kontzeptuarekin bat datozen kasuetan, eta Administrazioari aukera ematea, kasu honetan Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari, potentzial eta malgutasun handiko formula horri heltzeko, prestazioa behar bezala ezaugarrituta dagoenean eta ez denean sumatzen —baizik eta guztiz kontrakoa— beharrizana egongo denik eskaintza bat beste baten aurrean nahiago izateko, operadore ekonomiko bat beste lehiakide guztien aurrean nahiago izateko, guztiak izango direlako baliozkoak.

Horrela, lege honek heldu egiten dio 9/2017 Legearen berrogeita bederatzigarren xedapen gehigarrian ezarritakoari (9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora). Izan ere, xedapen gehigarri horren arabera, autonomia-erkidegoek legeak eman ahal izango dituzte kontratuez bestekoak diren tresnak artikulatuz arlo sozialeko beharrizanak betetzera bideratutako zerbitzu publikoak emateko, kasu honetan gertatzen den bezala.

Azkenik, itunpeko kudeaketako akordioak jasotzen dira. Kontratu publikoak dira, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren kontratazio publikoari buruzko 2014ko otsailaren 26ko 24/EB Zuzentarauan bildutakoak —zuzentarau horrek 2004/18/EE Zuzentaraua indargabetzen du, EBJAren 2022ko uztailaren 14ko Epaian (C-436/20) adierazitakoaren arabera—. Nolanahi ere,

berezitasun gisa, hartzaile bakartzat hartzen dira gizarte-ekimeneko entitate pribatuak, baldin eta beren helburu sozialean aurreikusita badaude enpleguaren esparruko jarduerak (jasaten dituzten kostuak itzultzearen truke), eta betiere bermatzen badute erabiltzaileentzako zerbitzu eta programak doakoak izango direla eta lege horretan aurreikusitako printzipio eta eskubideak babesten direla.

VI. kapitulua dago III. tituluaren amaieran, eta Euskal Enplegu Sarearen ikuskapena eta zerbitzuak emateko kalitatea kontrolatzea arautzen dira bertan.

Ikuskapenaren erregulazioak kontrol-parametro klasikoei jarraitzen die. Enpleguaren arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailari esleitzen zaio, ezinbestekoa dela enplegu-zerbitzuak, horien prestazio-edukia, Euskal Enplegu Sarearen mapa eta antzekoak definitzeko eskumenari lotuta. Horrenbestez, bereizi egiten dira enplegu-zerbitzuen prestazioa eta horien kontrola, gutxieneko inpartzialtasun-bermea emateko ahal hori egikaritzeko.

61. artikuluarekin amaitzen da kapitulua, eta zerbitzuak ematean ordezteko aukera arautzen da bertan. Kasu hauetan soilik ordeztu ahal izango da: ikuskapenean antzematen denean ez-betetze larri eta errepikatua egin dela Euskal Enplegu Sarearen zerbitzu-zorroaren kudeaketan, lege honetan ezarritako betekizunetan eta betebeharretan, kalitate-estandarretan edo zerbitzuen prestazio-eduki teknikoan.

Neurri zorrotza da, herritarrak eta enpresak babestera eta zerbitzuen kalitatea bermatzera bideratua. Izan ere, entitate emailearen interes hutsa gainditzen du, eta Euskal Autonomia Erkidegoari eta enplegu-zerbitzu publikoen funtzionaltasuna babesteari berari dagokio.

Enpleguaren arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailak erabakiko du ordeztea komeni den, eta, nolanahi ere, aldi baterako ordeztuko da, zerbitzuaren kalitatea behar bezala bermatzen den arte. Berme garrantzitsuak eskainiko dira —egiaztatu egin beharko da ez-betetze larri eta errepikatua gertatu dela; errekerimendua egingo zaio zerbitzua emateko ardura duen administrazio edo entitateari, behar bezala betetzeko beharrezkoak diren neurriak har ditzan; ezinbestekoa izango da ez-betetzea gertatzen jarraitzea; Enplegu Politika Publikoen Euskal Kontseiluaren aldeko txostena jaso beharko da aurretiaz—. Horrela, bat etorriko da tokiko autonomia gordetzeko beharrarekin —foru-aldundiena barne—, eta guztiz errespetatuko da konstituzio-jurisprudentzia (Konstituzio Auzitegiaren 11/1999, 159/2001 eta 154/2015 epaiak).

- IV. tituluaren xedea da enplegu-politika publikoen eskumenak, gobernantza, plangintza, partaidetza eta finantzaketa zehaztea, eta gai horiek aztertzen dituzte, hurrenez hurren, I., II., III., IV. eta V. kapituluek.

Dagoeneko aipatu da enplegu-politikak sektoreartekoak direla berez. Halaber, lege honen ondoriozko eskumen-banaketaren ildo nagusiak ere aipatu dira.

62. artikuluak eskumen-sorta garrantzitsua aitortzen dio Eusko Jaurlaritzari enpleguaren arloan, Euskal Herriaren Autonomia Estatutuaren 10.25 eta 12.2 artikuluetan xedatutakoaren arabera definitua, eta hortik ondorioztatzen da berezko lidergoa dagokiola, Jaurlaritzari baitagokio araugintza-ahala baliatzea, enplegu-politika publikoen plangintza estrategikoa egitea eta, era berean, zerbitzu-zorroaren definizioa, haren prestazio-edukia eta ikuskapena egitea, ardatz horien gainean egituratzen dela Euskal Autonomia Erkidegoaren enplegu-politiken garapena.

Foru-aldundien eta toki-entitateen eskumenek, azaldu den bezala, oinarria dute garapen ekonomiko eta sozialean, eta garapenok enpleguan duten eraginean, baita gizarte-zerbitzuen eta enpleguaren arteko elkarreraginean ere. Horrela, eskumena aitortzen zaie beren lurraldean, eta beren esparruan, eremu horiekin lotutako sustapen-ekintzak garatzeko, Euskal Enplegu Sarearen zerbitzu-zorroko zerbitzuak emateko aukerei buruz azaldutakoaz gain.

Legeak toki-autonomiaren konstituzio-kanonak errespetatzen ditu, hau da: toki-komunitateak, bere organoen bitartez, eskubidea dauka berari dagozkion gai guztien gobernuan eta administrazioan parte hartzeko.

Lege honen oinarri diren azterketek agerian utzi dute eragileen arteko koordinazioa eta osagarritasuna dela, enpresarekiko lotura hobetzearekin batera, gobernantzaren erronka handiena, baita bikoiztasun-guneak, gainjarritako finantza-fluxuak eta antzekoak saihesteko premia ere. Era berean, ikusi da erakundeen artean koordinatzeko beharra eta enpresei eta herritarrei eskaintzen zaizkien zerbitzuak sinplifikatu eta argitzeko deia ere badela lege honen funtsezko helburuetako bat.

Funtzionaltasun horretarako balio du Enplegu Politika Publikoen Euskal Kontseiluak (66. artikulutik 69. artikulura bitartean dago araututa).

Kontseilua nola osatu erabakitzeko, bi faktore hartu dira kontuan: batetik, eskumena, eta, bestetik, enplegu-politika publikoen alderdi anitzeko izaera. Horregatik daude ordezkatuta hiru erakunde-mailak, eta horregatik dauka sektorearteko ordezkaritza zabala —enpleguaz eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaz gain, hezkuntza, lehiakortasuna eta inklusioa—.Esan bezala, erakunde-maila bakoitzaren eskumenak islatzen ditu osaerak, eta erabakien araubideak bermatu egiten du Kontseiluaren funtzionamendua eraginkorra izango dela.

Begien bistakoa da oso garrantzitsuak direla Enplegu Politika Publikoen Euskal Kontseiluaren eginkizunak, bai eta Kontseiluaren erabakiak ere. Beraz, ondo ulertzen da zein garrantzitsua den erakundearteko parte-hartzea, enplegu-politikak Euskal Autonomia Erkidegoarenak izango baitira.

Gainerakoan, 69. artikuluan aipatzen da Enplegu Politika Publikoen Euskal Kontseiluaren txostena loteslea izango dela plangintzarako lurralde- eta toki-tresnak aztertzean eta tresna horiek Enpleguaren Euskal Estrategian ezarritako irizpen eta helburuekin bat datozen argitzean. Horrela, guztiz errespetatzen da toki-autonomia, Konstituzio Auzitegiaren doktrinak ulertzen duen bezala, *“bi eskumen konkurrenteren arteko egokitzapena eta integrazioa”* lortu nahi baititu, enpleguaren alorrean dauden tokiaz gaindiko interesen babesa bateratuz, Euskal Autonomia Erkidegoari dagokion bezala, zorrotz tokikoak diren eta enplegurako eta toki-garapenerako planean islatuta dauden interesak kudeatuz (horri buruzkoak dira, enpleguaren eremu ezberdinei dagokienez, Konstituzio Auzitegiaren 103/1989 epaiaren 7 OJ, 40/1998 epaiaren 38. OJ eta 92/2015 epaiaren 7 b OJ).

Legeak lidergoa eta koherentzia instituzionala ematen dizkio enpleguaren arloko politika publikoen gobernantzari, eta gizarte-eragileekin partekatzen du protagonismoa, Elkarrizketa Sozialerako Mahaiaren bitartez.

III. kapituluak enplegu-politika publikoen plangintza integratu eta koordinaturako eredu bat diseinatzen du. Eredu hori, esparru estrategiko partekatu batetik abiatuta, modu egokituan hedatzen da jardun operatiboko tresnetan, autonomia-erkidegoaren, lurralde historikoaren edo udalerriaren edo udalerrien mailan, 73.etik 79.era bitarteko artikuluek agerian uzten duten bezala.

Enpleguaren Euskal Estrategiak, epe ertainerako plangintza-tresna den aldetik, enplegu-politika publikoak bideratuko ditu, eta lehentasunak eta helburu estrategikoak finkatuko ditu, bereziki garrantzitsuak direla lehentasunezko arreta behar duten kolektiboei dagokienez eta laneko segurtasunari eta osasunari dagokienez; izan ere, lan duinari lotutako elementu bereizezina da hori, eta horretara bideratuta egon behar dute enplegu-politika publikoek. Era berean, koordinazio-tresna ere izango da, enpleguko lurralde-planek eta enplegurako eta toki-garapenerako planek bertan ezarritako ildoen araberakoak izan beharko baitute.

78. artikuluak enpleguko eta toki-garapeneko planak egitea ezartzen die 10.000 biztanletik gorako udalerriei. Irizpide objektibo horri esker, biztanleria aktiboaren bolumen handi batez gain, garapen sozioekonomiko garrantzitsua ere lor daiteke.

IV. kapitulua 80. eta 81. artikuluek osatzen dute. Bertan, enplegu-politika aktiboetako eragile guztien parte-hartzea instituzionalizatzen da politika horien diseinu eta garapenean, Enpleguaren Euskal Foroaren bitartez, zeinari ere lurralde-dimentsioa bermatzen zaion.

V. kapitulua finantzaketari buruzkoa da. Bertan aurreikusten da erakunde bakoitzak finantzatu behar duela bere eskumeneko enplegu-politiken garapena eta Enplegu Sarearen zerbitzu-zorroaren kudeaketa, bakoitzaren aurrekontuen kargura.

Aurreikuspen hori zuzenean dago lotuta bigarren xedapen iragankorrean araututa dagoen Enplegurako eta Toki Garapenerako Lankidetza Funtsa sortzearekin. Horren bitartez, enplegurako eta toki-garapenerako planak egitea bermatu nahi da, finantza-nahikotasunaren printzipioaren argitan.

Sortzen duen xedapenak adierazten duenez, indarraldi mugatua du, eta lotuta dago urriaren 7ko 4/2021 Legearen indarraldiarekin edo aldaketarekin (4/2021 Legea, urriaren 7koa, baliabideak banatzeko eta foru-aldundiek Euskal Autonomia Erkidegoaren aurrekontuak finantzatzeko egin beharreko ekarpenak zehazteko 2022-2026 aldian aplikatuko den metodologiari buruzkoa). Izan ere, Ekonomia Itunetik eratortzen den finantzaketa-ereduak bermatzen du toki-entitateen baliabideen maila, haren titulartasuneko eskumen eta zerbitzuen arabera, eta, oro har, baldintzatu gabeko finantzaketarekin.

83. artikuluak finantza-lankidetzarako mekanismo egonkor bat arautzen du, gehienez ere zortzi urtekoa, Eusko Jaurlaritzaren eta udalerrien edo udalaz gaindiko entitateen artean, Euskal Enplegu Sarearen zerbitzu-zorroa kudeatzeko, zerbitzuak ematean kalitatea, eraginkortasuna eta efizientzia bermatze aldera. Mekanismo horrek, lurralde-orekaz gain, aurrekontu-egonkortasunaren eta finantza-jasangarritasunaren printzipioak ere babestuko ditu.

- V. titulua enplegu-politika publikoen ikerketa, berrikuntza eta ebaluazioari buruzkoa da.

84. artikuluak erabakitasunez bultzatzen ditu ikerketa, diseinu eta berrikuntza aplikatuko programak, bai eta programa horiek modu esperimentalean praktikan jartzea ere, orientazioaren, prospekzioaren, lan-bitartekaritzaren eta ekintzailetzaren esparruetan eta enplegurako garrantzitsuak diren beste ekintza-arlo batzuetan, kontuan hartuta berrikuntzak garrantzi handia duela politika publikoen eta enplegu-zerbitzuen dinamizazioan. Lan-merkatuaren bilakaera azkarra, egungo eraldaketak eta etorkizunean espero daitezkeenak, eta merkatuak eskatzen dituen profilen eta konpetentzien etengabeko aldaketa kontuan hartuta, ezinbestekoa da gizartearentzat erabilgarriak izango diren enplegu-politikak eta -zerbitzuak diseinatzeko jardunbide egokiak ikertu, esperimentatu eta hedatzea.

85. artikuluan agerian geratzen da ebaluazioa guztiz garrantzitsua dela politika publikoen ekintza hobetzeko tresna gisa, erabakiak hartzea errazteko eta balizko zuzenketak proposatzeko. Hori dela eta, enplegu-politika publikoen emaitzak eta kalitatea eta kudeaketa-egituren eragina aldizka ebaluatzea aurreikusten da bertan. Organo independente bati ematen zaio eginkizun garrantzitsu horren eskumena, Enplegu eta Inklusio Politiken Ebaluazio, Ikerketa eta Berrikuntza Organoari, hain zuzen ere, osagarriak baitira bi gizarte-politika horiek.

- Amaitzeko, VI. tituluak, Lanbide Hobetzen Trantsizio eta Hobekuntza Planaren ildoei jarraitzen die (2030erako Enpleguaren Euskal Estrategiaren 3. proiektu traktorea), bai eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua modernizatzeko eta osorik eraberritzeko aurreko legegintzaldian haren konfigurazio juridikoaren inguruan egin ziren lanei ere. Horien guztien helburua Euskal Enplegu Zerbitzuaren pertsonifikazio juridikoa eraldatzea da.

Legeak Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren pertsonifikazio juridikoa berregituratzen du, Euskal Sektore Publikoaren maiatzaren 12ko 3/2022 Legearen 53.3 artikuluan xedatutakoaren arabera, eta zuzenbide pribatuko entitate publiko gisa konfiguratzen du. Horrek malgutasun, dinamismo eta espezializazio profesional handiagoa emango dio enplegu-zerbitzuen prestazioari. Izan ere, enplegu-zerbitzuaren funtzio prototipikoek ez dute eskatzen funtzionario

publikoei funtzio hori egikaritzeko erreserba egitea, eta ez dute behar zuzenbide publikoari lotutako eskumen guztiak betetzea.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak gaitasun handiagoa behar du merkatuaren premietara egokitzeko. Bere oinarrizko helburua enplegu-zerbitzuak ematea da. Hala eta guztiz ere, baliorik kendu gabe sustapen-ekintzari, kontrolari eta ikuskapenari lotutako ahalak erabiltzeko eskumenari, zerbitzu horiek ez daukate aginpiderik; aitzitik, funtsezko autonomia-tarte bat eskatzen dute, entitateari jarduteko eta esku hartzeko aukera emango diona eraginkortasun-, espezializazio- eta kudeaketa-modu arinen parametroetatik abiatuta.

Lehenengo xedapen gehigarrian agindutakoaren arabera, urtebeteko epean onartuko dira Euskal Enplegu Sarearen mapa eta arreta, informazio eta prospekziorako tresna komunak, ezinbestekoak baitira legearen aurreikuspenen eraginkortasuna bermatzeko.

Bigarren eta hirugarren xedapen gehigarriak, hurrenez hurren, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua administrazio-erakunde autonomoa zuzenbide pribatuko entitate publiko bihurtzeari eta haren aurrekontuei buruzkoak dira.

Lehenengo eta bigarren xedapen iragankorrek, batetik, Lan Administrazioaren Prestakuntza Espezialitateen Euskal Katalogoaren araubide iragankorra arautzen dute, profesionaltasun-ziurtagiriei lotutako zatian, eta, bestetik, Enplegurako eta Toki Garapenerako Lankidetza Funtsaren sorrera arautzen dute.

Xedapen indargabetzaileak berariaz indargabetzen du Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari buruzko urriaren 13ko 3/2011 Legea.

Azken xedapenetako lehenengoak Inklusiorako eta Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren Legea aldatzen du, enplegu-politiken ebaluazioa egin ahal izateko eta funtzio hori, inklusio-arloan dagozkion eginkizunez gain, Enplegu eta Inklusio Politiken Ebaluazio, Ikerketa eta Berrikuntza Organoari esleitzeko.

Azken xedapenetako bigarrenak erregelamendu bidezko garapenari egiten dio erreferentzia. Azken xedapenetako hirugarrena, aldiz, deslegeztatzeari buruzkoa da, egoera jakin baterako bereziki sortu ziren edo merkatuaren bilakaeraren edo biztanleria aktiboaren eta enpresen beharrizanen araberakoak diren alor batzuk deslegeztatzeko. Azkenik, azken xedapenetako laugarrenak arautzen du noiz jarriko den indarrean legea.

I. TITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.- Xedea

Lege honen xedea da honako hauek definitzea: pertsonek euren enplegagarritasuna hobetzeko dituzten eskubideak eta betebeharrak, botere publikoek enplegu-politiken arloan jarduteko dituzten printzipioak, Euskal Enplegu Sarearen sorrera, bere zerbitzu-zorroaren antolaketa eta kudeaketa, eta enplegagarritasuna hobetzeko programa osagarriak.

Orobat, xedetzat ditu enpleguaren arloko eskumenak, gobernantza-eredua eta enplegu-politika publikoen plangintza, parte-hartzea eta finantzaketa zehaztea, eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua arautzea.

2. artikulua.- Definizioak

Lege honen eta berau garatzen duten arauen ondorioetarako, honela ulertu behar dira ondorengoak:

a) Lan duina: produkzio-jarduera bat bidezko diru-sarrera baten truke egiteko aukera ematen duena, lantokian segurtasuna, gizarte-babesa eta garapen pertsonala, parte-hartzea eta aukera-berdintasuna eskainiz eta gizarteratzea bultzatuz.

b) Lehentasunezko arreta behar duten kolektiboak: lan duina lortzeko edo mantentzeko zailtasun bereziak dituztenak.

6. artikuluan ezarritakoa bazter utzi gabe, definizio horretan sartuko dira Estatuko enplegu-legerian une bakoitzean identifikatzen diren lehentasunezko arreta behar duten kolektiboak.

c) Toki-garapena: tokiko ekonomia eta gizartea eraldatzeko prozesua, ingurune hurbileneko baliabide endogenoak erabiliz eta aberastasuna eta lan duina sortuz.

d) Iraupen luzeko langabezia: azken 540 egunetatik 360 egunez enplegu-eskatzaile gisa inskribatuta egon pertsona langabearen egoera.

e) Enplegagarritasuna: sortzen zaizkien hezkuntza- eta prestakuntza-aukerak baliatzeko pertsonen gaitasuna sendotzen duten konpetentzia eta kualifikazio transferigarrien multzoa, lan duina aurkitu eta horri eusteko, profesionalki aurrera egiteko eta teknologiaren eta lan-merkatuaren baldintzen bilakaerara egokitzeko.

Enplegagarritasunak egokitzapen dinamikoa sortu behar du norberaren konpetentzien eta lan-merkatuak eskatutakoen artean.

f) Bazterketa soziolaborala: lan-merkatuan sartzeko zailtasun bereziak izanik, laneratzeko enpresek kontrata ditzaketen pertsona langabeen egoera.

Gizarte-zerbitzuei buruzko legeriaren arabera gizarte-bazterketako egoeran daudenak ere sartzen dira.

g) Enplegua sustatzea: lan duina sortzea sustatu, babestu eta bultzatzeko eta lehendik dagoenari eusteko botere publikoek hartzen dituzten neurrien multzoa. Hor sartzen dira, beste ekintza batzuen artean, kontrataziorako pizgarriak eta hobariak, langileak kontratatzeko oztopoak kentzea helburu dutenak, espiritu ekintzailea sustatzen dutenak, ekonomia soziala sustatzen dutenak, edo lanaren eta kontratazioaren zerga-karga desplazatzen edo murrizten duten zerga-neurriak hartzen dituztenak.

h) Laneko prestakuntza: lanean ari diren langileen eta langabeen bizialdi osoko prestakuntza, laneko prestakuntzari eta gaikuntzari lotua, beren gaitasun profesionalak eta enplegu- eta prestakuntza-ibilbideak, eta lanbide-garapena hobetzea ahalbidetuko duena, bai eta enpresen produktibitatea eta lehiakortasuna hobetzen lagunduko duena ere.

i) Gizarteratzea eta laneratzea: bizitza duina garatzeko, gizartean parte hartzeko eta lan duina lortzeko aukera ematen duena.

j) Ekintza positiboko neurriak: berariaz bideratutakoak kolektibo jakin batzuek enplegua lortzeko, berori mantentzeko eta enplegagarritasuna garatzeko dituzten zailtasunak prebenitzera, saihestera edo konpentsatzera.

k) Okupagarritasuna: pertsona batek lan-merkatuan sartzeko, lana aldatzeko edo hobetzeko duen probabilitatea.

l) Gizarte- eta lan-bazterketako arriskua: f) apartatuan ezarritako baldintzak bete gabe, zirkunstantzia hauetakoren bat gertatzen denean pertsonek duten egoera:

1.- Premia ekonomikoko egoeran daude, Inklusiorako eta Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren Legean xedatutakoaren arabera.

2.- Lan-merkatuan sartzeko zailtasun bereziak dituzte, derrigorrezko eskolaldia ez amaitzeagatik, desgaitasunagatik, mendekotasunagatik, osasun mentalagatik, adinagatik edo beste edozein arrazoirengatik. 3.- Laneratzeko enpresetan edo enplegu-zentro berezietan ari dira lanean eta lan-merkatu arruntean sartzeko zailtasun bereziak dituzte.

4.- Lege hau eta Estatuko enplegu-araudia garatzeko ezartzen direnak.

3. artikulua.- Enplegu eta lan duinerako politika publikoak

1. Lege honen ondorioetarako, enplegu-politika publikotzat hartzen da lan duina izateko eskubidea gauzatzeko, enplegua eta autoenplegua sortu eta sustatzeko, pertsonen laneratzea bultzatzeko eta haien okupagarritasuna, lanbide-kualifikazioa eta enplegagarritasuna hobetzeko Euskal Autonomia Erkidegoko botere publikoek hartutako jarraibide, erabaki, plan, programa eta ekintzen multzoa, biztanleria aktiboaren konpetentziak enpresen beharretara egokituko dituena eta lan-merkatuaren funtzionamendu hoberena sustatuko dituena.

Orientazioko, bitartekaritzako, enpleguko, laneko prestakuntzako eta autoenplegu eta ekintzailetzarako aholkularitza-programak barne hartzen dituzte.

2. Euskal Autonomia Erkidegoko botere publikoek bermatuko dute enplegu-politika publikoak koordinatuta daudela produkzio-sarearen jarduera, berrikuntza eta lehiakortasuna hobetzeko politikekin, eta lanbide-heziketa koordinatuta dagoela inklusio-politikekin eta langabeziatik babesteko politikekin.

3. Politika publikoak formulatzeko arau eta planak, programak eta bestelako tresnak prestatu eta aplikatzean, lan duinerako eskubidea eraginkor egiteko helburura bideratu beharko dute beren jarduketa Euskal Autonomia Erkidegoko botere publikoek.

4. artikulua.- Enplegu-politika publikoen tokikotasuna

Enplegu-politika publikoak diseinatu eta kudeatzeko orduan, kontuan hartuko da tokikotasuna, politika horiek lurraldearen premietara egokitu daitezen, garapen ekonomikoa, lan duinaren sorrera eta gizarte-kohesioa bultzatuz eta lurralde- eta gizarte-desorekak gaindituz.

5. artikulua.- Enplegu-politika publikoen printzipio gidariak

Enplegu-politika publikoek printzipio hauek bete beharko dituzte:

a) Aukera-berdintasuna eta diskriminaziorik eza pertsonak lan duin batera eta enplegu-zerbitzu eta -programetara iristeko, hargatik eragotzi gabe laneratzeko zailtasun bereziak dituzten pertsonei eta kolektiboei zuzendutako ekintza positiboko neurriak hartzea.

Printzipio horiek aplikatuz, enplegu-politika horien helburua izango da, era berean, sexuaren araberako rolak eta estereotipoak desagerraraztea enpleguaren arloan, berdintasuna sustatzea lanaren balorazioan, eta eraginkor egitea bai Emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 36.etik 43.era bitarteko artikuluetan xedatutakoa, bai, lanari eta enpleguari dagokienez, azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuaren 35.etik 47.era bitarteko artikuluetan ezarritakoa (1/2013 Legegintzako Errege Dekretua, desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren testu bategina onartzen duena).

b) Irisgarritasun unibertsala: lanpostuak, lan-inguruneak eta produkzio-bitarteko teknologikoak ahalik eta ondoen egokitu daitezen sustatuz.

c) Lan duina lortzeko laguntza aktiboa, kontrataziorako pizgarriak eskainiz, ekintzailetza babestuz, lan-trantsizioetarako laguntza eskainiz, gaitasunen ebaluazioa eta balidazioa eta aholkularitza, orientazioa eta tutoretza pertsonalizatua bermatuko dituen zerbitzu-katalogo baten bidez, eta langabezia-egoeren tratamendu prebentiboa eta proaktiboa bermatuz.

Lan duinerako laguntza aktiboak herritarrei bizitza aktibo osoan laguntzea bermatuko du; horretarako, birziklatzea, ezagutzak etengabe eguneratzea eta trantsizio profesionaletako birkualifikazioa eta prestakuntza sustatuko dira, zaharkituta gera ez daitezen biztanleria aktiboaren konpetentziak.

d) Inklusioa, enplegu-politika publikoek, ahal den guztietan, lan egiteko adinean dagoen biztanleria laneratzea susta dezaten, pertsonak gizarteratzeko funtsezko faktorea denez, eta, beharrezkoa denean, gizarteratzea susta dezaten, Inklusiorako eta Diru-sarrerak Bermatzeko Sistemara eta Gizarte Zerbitzuen Sistemara bideratuz, autonomia pertsonala eta bizitza duina lortze aldera.

e) Hurbiltasuna: enplegu-politika publikoek hurbiltasuna bermatuko dute, kalitatezko tresna baita pertsonen eta enpresen premiez jabetzeko eta zerbitzuak emateko.

f) Eraginkortasuna eta efizientzia enpleguaren arloko programak eta proiektuak formulatzean eta gauzatzean, azkar eta abileziaz erantzun diezaieten digitalizazioaren, trantsizio energetikoaren, trantsizio demografikoaren eta eraldaketa ekonomiko, sozial eta kulturalen ondorioz gertatutako aldaketei, gaur egungo zein etorkizunekoei.

g) Lehentasunezko arreta behar duten kolektiboen enplegu-tasak eta lan-aktibazioa areagotzera bideratutako proiektuak eta programak sustatzea, baita talentua berreskuratzea eta erakartzea bultzatuko dutenak ere.

h) Lankidetza eta koordinazioa: enplegu-politika publikoen programazioa, plangintza eta egikaritzea helburu komunak lortzera bideratuko dira, eta administrazio eskudunek koordinatu eta elkarri lagundu beharko diete, behar den informazioa eta lankidetza emanez.

i) Ikerketa eta berrikuntza enplegu-politika publikoen definizioan eta plangintzan, eta zerbitzuen diseinuan eta kudeaketan.

j) Elkarrizketa soziala: enplegu-programak eta -zerbitzuak planifikatzeko eta diseinatzeko bidean, gizarte-eragileek parte hartzea bermatuko da.

k) Pertsona eta entitate erabiltzaileek enplegu-politika publikoen plangintzan, zerbitzuen programazioan eta horien ebaluazioan parte hartzea, bereziki Euskadiko hirugarren sektore sozialeko entitateen bitartez. Hain zuzen, horiei bermatu egingo zaie enplegu-politika publikoen fase guztietan parte hartzeko eskubidea.

l) Gardentasuna eta publizitate aktiboa. Enplegu-politika publikoei buruzko informazio publikoa eskuragarria izango da, eta lege honen edo beste batzuen arabera eskubide eta interes legitimoak babesteko soilik mugatu ahal izango da. Era berean, Euskal Autonomia Erkidegoko botere publikoek beren esku duten informazioa modu egiazkoan, eguneratuan, objektiboan, ulergarrian eta doan zabalduko dute, beste eskubide batzuk babesteak dakartzan mugei kalterik egin gabe.

6. artikulua.- Lehentasunezko arreta behar duten kolektiboak

1. Enplegu-politika publikoen helburu nagusia izango da lehentasunezko arreta behar duten kolektiboetako pertsonen eta gizarteratzeko eta laneratzeko zailtasun bereziak dituzten pertsonen oztopoak desagerraraztea, lan duina lortzeko eta horri eusteko erraztasunak

ematearren, eta arreta berezia jarriko dute gizarte- eta lan-bazterketako arrisku handiagoa eragin dezaketen faktoreak aldi berean gerta daitezkeen egoeretan.

2. Enplegu-politika publikoen ildo estrategikoak, plangintza eta egikaritzea zehaztean, kolektibo horien enplegua sustatzera zuzendutako neurri eta programa espezifikoak jaso beharko dira, behar bezala koordinatuta. Horiek, era berean, ekintza positiboko neurriak barne hartu beharko dituzte.

Era berean, lan-ingurune babestuetatik enplegu arruntera igarotzea sustatuko da, beharrezko laguntza eta babesa bermatzea bazter utzi gabe.

3. Estatuko enplegu-legerian aurreikusita dauden eta lehentasunezko arreta behar duten kolektiboen kaltetan izan gabe, bereziki kontuan hartuko da pertsona hauen egoera: emakumeak (enpleguari dagokionez), kualifikazio baxuko pertsonak, gizarte- eta lan-bazterketako egoeran edo arriskuan daudenak, ehuneko 33ko edo hortik gorako desgaitasuna aitortua duten pertsonak eta lan-merkatuan sartzeko zailtasun handienak dituztenak, baita 30 urtetik beherako langabeak, 55 urtetik gorakoak eta iraupen luzeko langabeak ere.

Nolanahi ere, Enpleguaren Euskal Estrategiak, unean-unean, lehentasunezko arreta behar duten kolektiboak identifikatuko ditu, eta arreta berezia jarriko du gizarteratzeko eta laneratzeko zailtasun handiagoa eragiten duten hainbat faktore elkartzen diren egoeretan.

4. Bidezko denetan, aurreko paragrafoan aipatutako ekintzak eta programak Inklusiorako eta Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren Legean ezarritako inklusio-plan integratu eta pertsonalaren esparruan koordinatuko dira, eta, hala badagokio, gizarte-zerbitzuekiko koordinazioa bermatuko da.

5. Lehentasunezko arreta behar duten kolektiboei zuzendutako programak ebaluatu egingo dira, eta, ebaluazio horretan, aldez aurretik ezarritako helburu kuantitatibo eta kualitatiboak betetzen diren aztertuko da.

7. artikulua.- Enplegu-politika aktiboen eragileak

Enplegu-politika aktiboen eragile dira Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioak, beren sektore publikoko entitateak, Euskal Autonomia Erkidegoko sindikatu- eta enpresa-erakundeak, enpresak, prestakuntza-entitateak, lanbide-heziketako zentro integratuak, unibertsitateak, enplegua aurkitzeko agentziak, laneratze-enpresak, enplegu-zentro bereziak eta enplegu-politika publikoak ezartzen eta garatzen parte hartzen duten Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialeko erakundeak.

8. artikulua.- Politika publikoen eragina enpleguan

Euskal Autonomia Erkidegoko botere publikoek onartzen duten plangintza sektorial eta estrategikoak enpleguan izango duen eraginaren azterketa bat jaso beharko du, kasuan kasuko planak lan duinaren sorreran, mantentzean edo sustapenean eta pertsonen laneratzean izango duen eragina baloratzeko.

II. TITULUA

ENPLEGAGARRITASUNA HOBETZEKO ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

9. artikulua.- Enplegagarritasuna hobetzeko eskubideak

1. Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan enplegu-zerbitzuen eskatzaile gisa inskribatuta dauden eta egoitza Euskal Autonomia Erkidegoan duten pertsona guztiei eskubide hauek aitortzen zaizkie:

a) Laguntza pertsonalizatua, jarraitua eta egokia izateko eskubidea.

b) Enplegagarritasunari buruzko diagnostiko pertsonala egiteko eskubidea.

c) Enplegu-plan integratua eta pertsonalizatua egiteko eskubidea.

d) Lanean prestakuntza jasotzeko eskubidea.

2. Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak eskubide horien edukia bermatuko du, Estatuko enplegu-legerian aurreikusitako zerbitzu bermatuen kaltetan izan gabe.

3. Desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko legeriarekin bat etorriz, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak beharrezko egokitzapenak bermatuko ditu artikulu honetan aipatzen diren eskubideak erabat eraginkorrak izan daitezen.

10. artikulua.- Laguntza pertsonalizatua, jarraitua eta egokia izateko eskubidea

1. Enplegu bat aurkitzeko, enplegagarritasuna hobetzeko edo enplegu-zerbitzuak eskatzen dituzten pertsonen lan autonomoko ikuspegiak hobetzeko laguntza pertsonalizatu, jarraitu eta egokirako eskubidea eraginkorra izan dadin, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak erreferentziazko profesional bat esleituko du. Profesional horrek bere gain hartuko ditu erabiltzailearen tutoretza, arreta eta aholkularitza jarraitua, integrala eta pertsonalizatua, presentziala eta ez-presentziala, lan-trantsizioetan, hezkuntzaren eta enpleguaren arteko trantsizioetan edo enplegu- eta langabezia-egoeren arteko trantsizioetan, baita hartzaileak egiten dituen jarduketen jarraipen indibidual eta pertsonalizatua ere, enplegagarritasunari buruzko diagnostiko pertsonalaren eta enplegu-plan integratu eta pertsonalizatuaren arabera.

2. Laguntza hori ematerakoan, genero-ikuspegia eta desgaitasuna duten pertsonen aukera-berdintasuna eta diskriminaziorik eza txertatuko dira.

11. artikulua.- Enplegagarritasunari buruzko diagnostiko pertsonala egiteko eskubidea

1. Enplegagarritasunari buruzko diagnostiko pertsonala 28.2.b) artikuluan eta hura garatzeko ematen den araudian xedatutakora egokituko da. Diagnostikoa egitean, pertsonari parte-hartze aktiboa emango zaio.

2. Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak bi hilabeteko epean egingo du enplegagarritasunari buruzko diagnostiko pertsonala, erreferentziazko profesionalak edo pertsonak berak (enplegu-zerbitzuen eskatzaile okupatua denean) eskaera egiten duenetik zenbatzen hasita, salbu eta enpleguari buruzko estatuko araudiak epe laburragoa ezartzen badu; kasu horretan, araudi horrek xedatzen duena hartuko da kontuan.

3. Diagnostikoak bi urteko balioa izango du, eta epe hori igarotakoan, beste bat egiteko eskatu ahal izango da.

4. Iraupen luzeko langabeen kasuan, enplegagarritasunari buruzko diagnostiko pertsonala berrikusiko da hemezortzi hilabeteko gehieneko epean, erregelamenduz zehazten diren baldintzetan.

12. artikulua.- Enplegu-plan integratua eta pertsonalizatua egiteko eskubidea

1. Enplegu-plan integratua eta pertsonalizatua hilabeteko epean egingo da, enplegagarritasunari buruzko diagnostiko pertsonala egiten denetik hasita, edo, enplegu-zerbitzuak eskatzen dituzten pertsona okupatuen kasuan, eskaera egiten denetik hasita.

Paragrafo honetan xedatutakoa hala izanik ere, Inklusiorako eta Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren Legean ezarritakoa bete beharko da.

2. Enplegu-plan integratu eta pertsonalizatuaren edukia 28.2.c) artikuluan ezarritakora eta hura garatzeko emango den araudira egokituko da. Erreferentziazko profesionalak eta hartzaileak erabakiko dute edukia.

3. Bi urteko indarraldia izango du, baina gehienez ere hemezortzi hilabeteko epean berrikusiko da iraupen luzeko pertsona langabeen kasuan, erregelamendu bidez zehazten diren baldintzetan.

Planaren etengabeko jarraipena eta urteko ebaluazioa egingo da; ebaluazioaren arabera, edukia berrikusi edo aldatu ahal izango da.

4. Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak enplegu-plan integratu eta pertsonalizatuan konprometituta dauden zerbitzuak eta jarduerak bermatuko ditu, baita erreferentziazko profesionalaren laguntza eta jarraipena ere.

13. artikulua.- Lanean prestakuntza jasotzeko eskubidea

1. Lanean prestakuntza jasotzeko eskubideak aukera emango du prestakuntza-ibilbide pertsonalizatuak eta, hala badagokio, arrazoizko doikuntzen bidez egokituak garatzeko, enplegu-zerbitzuak eskatzen dituzten pertsonen enplegagarritasuna hobetuko duten konpetentziak eskuratzeko xedez.

2. Eskubidearen eraginkortasuna eskuragarri dauden prestakuntza-baliabideen eta -eskaintzaren araberakoa izango da. Eskaintza horrek lan-merkatuaren eskakizunei eta eskaerei erantzungo die.

Nolanahi ere, enplegu-plan integratu eta pertsonalizatuan zehaztuko dira pertsonaren konpetentziak eta lanbide-kualifikazioa hobetzeko, hura etengabe prestatzeko eta lan-merkatuak jasaten dituen eraldaketetara eguneratu eta moldatzeko egokiak diren prestakuntza-ekintzak.

3. Iraupen luzeko langabeek lehentasuna izango dute dagokion enplegu-plan integratu eta pertsonalizatuan xedatutakora egokituko den prestakuntza jasotzeko, erregelamenduz zehaztutako baldintzetan.

14. artikulua.- Enplegagarritasuna hobetzeko betebeharrak

1. Enplegagarritasuna hobetzeko eskubideen titularrek betebehar hauek izango dituzte:

a) Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuarekin aktiboki lankidetzan aritzea, eta eskubide horien eraginkortasuna bermatzeko eskatzen zaien eta beharrezkoa den dokumentazioa, datu eta txosten garrantzitsuak eta informazioa ematea.

b) Etxebizitza-aldaken, harremanetarako datuen aldaketen eta enplegagarritasuna hobetzeko, laneratzeko aukerak hobetzeko edo enplegu-plan integratu eta pertsonalizatua betetzeko behar diren bestelako inguruabar pertsonal, familiar edo sozialen berri ematea.

2. Aurreko paragrafoan xedatutakoaz gain, enplegu-plan integratu eta pertsonalizatuaren hartzaileek honako betebehar hauek izango dituzte, arrazoi justifikaturik izan ezean:

a) Planean enplegagarritasuna hobetzeko aurreikusitako jarduerak betetzea.

b) Prestakuntza-ekintzak gauzatzea, irakastorduak betetzea eta konpetentzien eta trebetasunen ebaluazioen mende jartzea, planean hala zehazten denean.

c) Pertsona langabeen kasuan, enplegu-eskaintza egokiak onartzea.

Enplegu egokitzat hartuko da Estatuko enplegu-legeriak ezarritako eskakizunak betetzen dituena.

3. Erregelamendu bidez identifikatuko dira artikulu honetan aurreikusitako betebeharrak ez betetzea justifikatzen duten inguruabarrak. Inguruabar horiek honako arrazoi hauetan oinarritu beharko dute: gaixotasuna, bizitza pertsonala eta familia-bizitza uztartzeko beharrak, enplegu-plan integratu eta pertsonalizatuaren edukiarekin bat ez etortzea, edo baldintza ekonomikoetan, denborazkoetan edo bestelakoetan betebehar horiek betetzea bereziki astun bihurtzen duten beste batzuk.

15. artikulua.- Betebeharrak ez betetzea

1. Aurreko artikuluan aurreikusitako betebeharrak ez betetzeak enplegagarritasunari buruzko diagnostiko pertsonala egitea eragozten badu, bai eta laguntza pertsonalizatua, jarraitua eta egokia ematea ere, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua salbuetsita geratuko da eskubide horiek gauzatzera bideratutako jarduketak egitetik, harik eta interesdunak betebehar horiek betetzen dituela egiaztatzen duen arte.

2. Enpleguko plan integratu eta pertsonalizatuan hartutako konpromisoak ez betetzea lan-arloko arau-hausteei eta zehapenei buruzko legerian xedatutakoaren arabera arautuko da, ez-betetzearen erantzulea enplegu-eskatzaile langabea edota langabezia-prestazioen edo -subsidioen eskatzailea edo onuraduna denean.

3. Inklusiorako eta Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren Legea aplikatuko da, alde batera utzi gabe aurreko paragrafoan xedatutakoa, ez-betetzearen erantzulea Inklusiorako eta Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren prestazio ekonomikoren baten titularra edo onuraduna denean.

16. artikulua.- Eskubideen eraginkortasuna

1. Aurreko artikuluetan aipatutako eskubideen titularrek eskubideak artikulu horietan aurreikusitako moduan eta baldintzetan bete daitezen erreklamatu ahal izango dute.

2. Erregelamendu bidez, erreklamazioak egiteko prozedura sumarioa ezarriko da, eta bi hilabeteko epean ebatzi beharko da. Epe horretan ebazpenik jakinarazten ez bada, erreklamazioa ezetsitzat jo ahal izango da.

3. Eskubideen titularrek erreklamazioa aurkeztu ahal izango dute Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan, 9.etik 12.era bitarteko artikuluetan ezarritako betebeharrak betetzen ez dituen bitartean.

4. Nolanahi ere, bermatu egingo da pertsonek Administrazioarekin elektronikoki harremanetan jartzeko eta erreklamazioa bitarteko analogikoen bidez egiteko duten eskubidea, eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuarekiko harremanetan irisgarritasun unibertsala lortzen saiatuko da.

17. artikulua.- Konfidentzialtasuna

1. Enplegagarritasunari buruzko diagnostiko pertsonala, enplegu-plan integratua eta pertsonalizatua eta titulu honetan aipatzen diren eskubideak baliatzean tratatzen diren gainerako datu pertsonalak konfidentzialak izango dira, eta horiek eskuratzen dituzten langileak sekretu-betebeharrari lotuta egongo dira, lege-mailako arauan aurreikusitako kasuetan izan ezik.

2. Euskal Enplegu Sareko profesionalek dokumentu horiek eskuratu ahal izango dituzte beren eginkizunak betetzean, beharrezkoa, egokia eta bidezkoa suertatzen den edukiarekin lotuta, eta betiere interesdunari Euskal Enplegu Sarearen zorroko zerbitzuak edo enplegagarritasuna hobetzeko programa osagarrietako zerbitzuak emateko.

III. TITULUA

EUSKAL ENPLEGU SAREA

I. KAPITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

18. artikulua.- Euskal Enplegu Sarea

Euskal Enplegu Sarea sortzen da izaera juridikorik gabeko lankidetza-tresna gisa, eta honako hauek osatzen dute: Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak, foru-aldundiek, udalerriek, toki-entitateek, bakoitzaren sektore publikoko entitateek eta titulu honen III. kapituluan aipatzen den zerbitzu-zorroa, enplegagarritasuna eta okupagarritasuna hobetzeko programa osagarriak eta kideek enpleguaren arloan adosten dituzten ekintza guztiak kudeatzen dituzten entitate laguntzaileek.

19. artikulua.- Euskal Enplegu Sarean integratzea

1. Erregelamendu bidez zehaztuko da Euskal Enplegu Sarean integratzeko prozedura. Horren xedea izango da entitate eskatzaileak emango dituen zerbitzuak identifikatzea, 26. artikuluan aipatzen den Euskal Enplegu Sarearen mapara egokitzea, integrazio-data zehaztea, arreta-, informazio- eta prospekzio-tresna komunak eskuragarri jartzea eta, baita ere, egiaztatzea bete egiten direla zerbitzuen kalitatea bermatzeko behar diren oinarrizko baldintza materialak, teknikoak eta langileei buruzkoak, eta lege honetan eta lege hau garatzen duen araudian aurreikusitako betebeharrak.

2. Enpleguaren arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailak hartuko du Euskal Enplegu Sarean integratzeko erabakia.

Euskal Enplegu Sarean integratzeko erabakia Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da, baina ematen den egunetik aurrera izango da eraginkorra.

20. artikulua.- Euskal Enplegu Sarea osatzen duten entitateen betebeharrak

1. Euskal Enplegu Sarea osatzen duten entitateek betebehar hauek izango dituzte:

a) Enplegu Politika Publikoen Euskal Kontseiluaren jarraibideak errespetatzea.

b) Euskal Enplegu Sarearen zerbitzu-zorroa ematean 45. artikuluan aipatzen diren printzipioak aplikatzea.

c) Titulu honen III. kapituluan arautzen diren informazio, arreta eta prospekziorako tresna komunak erabiltzea.

d) Euskal Enplegu Sarearen zerbitzu-zorroaren prestazio teknikoko edukia betetzea, bai eta zerbitzu horiek eskuratzeko baldintzak eta kalitate-irizpideak ere, erregelamendu bidez ezarriak.

e) Erabilitako baliabideen eraginkortasuna, efizientzia eta inpaktua bermatzeko jarraipen-, auditoretza- eta kontrol-sistemak edukitzea.

f) Lege honetan eta lege hau garatzeko arauetan xedatutakoa betetzen dela egiaztatzeko behar diren aldizkako kontrol eta ikuskapenak egitea.

g) 35. eta 36. artikuluetan aipatzen diren eskubideak bermatzea, eta kexa- eta iradokizun-sistema bat eskaintzea Euskal Enplegu Sarearen zerbitzu-zorroaren hornidurari dagokionez, erregelamenduz ezartzen diren baldintzetan.

h) Euskal Enplegu Sarearen identifikazio-logotipoa erakustea haren bulegoetan eta zorroko zerbitzuen kudeaketarekin lotutako jarduera guztietan.

2. Euskal Enplegu Sareko entitateen arreta-bulegoek eta egoitza elektronikoek informazioa emango dute partaideen zerrenda eguneratuari, kudeatzen dituzten zerbitzuei eta pertsona, enpresa eta entitate erabiltzaileen eskubide eta betebeharrei buruz.

21. artikulua.- Leihatila bakarra

1. Euskal Enplegu Sarea osatzen duten entitateek lurralde-egoitza berean leihatila bakarrak sortzea sustatuko dute, Euskal Enplegu Sarearen zerbitzu-zorroa emateko.

2. Halaber, eta helburu berberarekin, Euskal Enplegu Sarearen leihatila digital bakarra sortu da, Euskal Enplegu Sarearen zerbitzu-zorroa bitarteko elektronikoen bidez emateko, bitarteko horiek zerbitzuaren izaerarekin eta edukiaren bateragarriak diren heinean. Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak kudeatu eta mantenduko du leihatila bakar hori.

3. Euskal Enplegu Sareko entitate guztiak behartuta egongo dira baliabide elektronikoen bidez ematea onartzen duten zerbitzuak leihatila digital bakarraren esku jartzera.

22. artikulua.- Enplegu-politika publikoak garatzeko lankidetza

1. Enplegua bilatzeko programak, okupagarritasuna hobetzekoak, enplegagarritasuna mantendu eta hobetzekoak, laneko prestakuntzakoak, bitartekaritzakoak eta enplegu-politika publikoak ezartzera eta enplegu-zerbitzuak ematera bideratutako beste edozein programa garatzeko, Euskal Enplegu Sareko entitateek, beren artean edo beste entitate publiko batzuekin, Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialeko erakundeekin eta beste erakunde pribatu batzuekin sinatu ahal izango dituzte jarduteko protokoloak, lankidetza-hitzarmenak eta programa-kontratuak, enpleguaren arloko legerian aurreikusitako baldintzetan. Entitate horiek aukera izango dute, halaber, dirulaguntzak eta administrazio-kontratuak emateko —Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB Zuzentarauen transposizioa Espainiako ordenamendu juridikora egiten duen Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legean ezarritako araubidearekin bat etorriz—, eta zuzenbidearen araberako beste edozein negozio juridiko egiteko.

2. Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak, foru-aldundiek eta udalerriek lankidetza sustatuko dute, zerbitzu batzuen inguruko eskumen konkurrenteak daudenean, zerbitzu horien kudeaketa ordenatua eta osagarria lortzeko, eta kontratazioa teknikoki arrazionalizatzeko sistemak erabili ahal izango dituzte, betiere enplegu-zerbitzuen edukiarekin bat badatoz.

23. artikulua.- Datu pertsonalen tratamendua

1. Euskal Enplegu Sarea osatzen duten entitateek interes publikoko misio bat betetzeko tratatuko dituzte datu pertsonalak, alegia, erabiltzaileen okupazioa eta enplegagarritasuna hobetzeko, haien laneko gaitasuna ebaluatzeko eta, horrez gainera, pertsona horiek behar

bezala babesteko eta aktibatzeko, premia-egoeran eta enplegurik gabe daudenean; hori guztia, Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko (EB)2016/679 Erregelamenduan ezarritakoarekin bat etorriz (datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoen babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzko arauak ezartzen ditu eta 95/46/EE Zuzentaraua indargabetzen du).

2. Euskal Enplegu Sarea osatzen duten entitateek eta tratamenduaren erantzule edo arduradunek, datu pertsonalak tratatzean, bete egin beharko dituzte aurreko paragrafoan aipatzen den datu pertsonalak babesteko araudian jasotako printzipioak eta betebeharrak.

3. Nolanahi ere, datuen titularrak datuak babesteko legeriak aitortutako eskubideez baliatu ahal izango dira.

II. KAPITULUA

EUSKAL ENPLEGU SAREKO ZERBITZUEN ZORROA, ETA PERTSONA, ENTITATE ETA ENPRESA ERABILTZAILEEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

1. ATALA

EUSKAL ENPLEGU SAREAREN ZERBITZU-ZORROA

24. artikulua.- Definizioa

1. Euskal Enplegu Sarearen zerbitzu-zorroan, gutxienez, zerbitzu hauek sartuko dira:

a) Orientazioa.

b) Laneko prestakuntza.

c) Bitartekaritza eta enplegua aurkitzea.

d) Autoenplegurako eta ekintzailetzarako aholkularitza.

e) Pertsona, enpresa eta entitate enplegatzaileentzako aholkularitza.

f) Lan-merkatuari buruzko informazio aurreratua emateko zerbitzua.

2. Enplegu Sistema Nazionalaren Zerbitzu Zorro Komunaren zerbitzuak bermatuko dira beti, une bakoitzean indarrean dauden baldintzak eta protokoloak erabat errespetatuz.

3. Euskal Enplegu Sarearen zerbitzu-zorroak merkatuaren ezaugarriei eta bilakaerari, biztanleria aktiboaren eta enpresen beharrei, enplegu-politika publikoen plangintza estrategikoan identifikatutako lehentasunei eta eskura dauden baliabideei erantzungo die.

4. Zorroko zerbitzuak behar bezala koordinatuta emango dira.

25. artikulua.- Zerbitzuen prestazio-eduki teknikoa eta giza baliabideen prestakuntza

1. Erregelamenduz definituko dira Euskal Enplegu Sarearen zorroko zerbitzu bakoitzaren prestazio teknikoko edukia, zerbitzu horiek eskuratzeko baldintzak, profesional bakoitzeko gehieneko biztanleria-ratioak, zerbitzuak ematean kalitatea bermatzeko beharrezkoak diren oinarrizko baldintza materialak eta langileei dagozkienak eta irisgarritasun- eta erabilgarritasun-bermeak.

Elektronikoki ematen diren zerbitzuei dagokienez, alderdi berberak zehaztuko dira.

2. Euskal Enplegu Sarea osatzen duten erakunde guztien lankidetza sustatuko da, langileei etengabeko prestakuntza emateko, enplegu-zerbitzuen esparruko behar sozial eta profesional berrietara egokituta, eta, aldi berean, kultura berritzailea, sormena eta talentua bultzatuko da.

26. artikulua.- Euskal Enplegu Sarearen mapa

1. Eusko Jaurlaritzak Euskal Enplegu Sarearen mapa onartuko du, Enplegu Politika Publikoen Euskal Kontseiluak proposatuta. Horrek enplegu-zerbitzuak emateko lurralde-egitura optimoa ezarriko du, eta honako hauek hartuko ditu kontuan: biztanleria, demografia- eta lurralde-ezaugarriak, profesional bakoitzeko gehieneko biztanle-ratioak, beharrezko ekipamenduen esparru orokorra, eta zerbitzuak pertsona, entitate eta enpresa erabiltzaileengandik ahalik eta hurbilen daudela bermatzeko beharra.

2. Euskal Enplegu Sarearen mapak subsidiariotasun- eta osagarritasun-printzipioak izango ditu oinarri, eta zerbitzuak ematean bikoiztasunak saihestuko ditu.

3. Aldian behin eguneratuko da, gehienez ere lau urtean behin, eta aintzat hartuko du Enplegu eta Inklusio Politiken Ebaluazio, Ikerketa eta Berrikuntza Organoak egiten dituen ebaluazioen emaitza.

27. artikulua.- Euskal Enplegu Sarearen zerbitzu-zorroa emateko bermea

1. Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak bermatuko du Euskal Enplegu Sarearen zerbitzu-zorro osoa emango dela, aurreko artikuluan aipatzen den maparen arabera; dena den, hori ez da eragozpen izango zerbitzu-zorro hori beste erakunde publiko edo pribatu batzuek zuzenean edo zeharka kudeatzeko.

2. Era berean, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak bermatuko du zerbitzuak bitarteko elektronikoen bidez emango direla, betiere bitarteko horiek bateragarriak badira zerbitzuaren izaerarekin eta edukiarekin.

28. artikulua.- Enplegurako orientazio-zerbitzua

1. Enplegurako orientazio-zerbitzuaren helburua da plangintza pertsonalizatuan informazioa, diagnostiko indibidualizatua, aholkularitza eta laguntza ematea, hobeak izan daitezen erabiltzailearen enplegagarritasuna, garapen profesionala edo autoenplegurako edo ekintzailetzarako aukerak.

2. Enplegurako orientazio-zerbitzua pertsonalizatua, integrala eta inklusiboa izango da, eta, gutxienez, prestazio hauek osatuko dute:

a) Triajea, erabiltzaileen premiak hautemateko, haien gizarteratzea eta laneratzea lortzeko, eta diagnostikoan esku hartu behar duten sistemak identifikatzeko, lanekoa, soziala zein beste batzuk.

b) Erabiltzailearen enplegagarritasunari buruzko diagnostiko pertsonala, trebetasunei, konpetentziei, prestakuntzari eta esperientzia profesionalari dagokienez, erabiltzailearen inguruabar pertsonal eta sozialei erreparatuta, hala nola: adina, lehentasunezko arreta behar duten kolektiboetako kide izatea, familia-egoera, langabezian emandako denbora eta, hala badagokio, arrazoiak, eta garrantzitsua izan daitekeen beste edozein.

c) Enplegu-plan integratua eta pertsonalizatua. Plan horrek, aurreko apartatuan aurreikusitako diagnostikoan oinarrituta, honako hauek bilduko ditu: konpetentzia profesionalak eta pertsonalak, nahiz pertsonaren kualifikazioa hobetu edo eguneratzeko prestakuntza-ekintza egokiak, enplegu-bilaketa aktiboko jarduketak, lan-edo ekintzailetza-alternatiben identifikazioa (bere profilaren,

bere premien eta produkzio-sistemaren beharren arabera), jarduera-akordioa, bai eta lan-merkatuari, enpresen premiei eta lan-merkatuan garrantzitsuak diren kualifikazioei buruzko informazioa ere. Plana prestatzean, hartzailearen familia-bizitza eta bizitza pertsonala uztartzeko beharrei erantzungo zaie.

d) Aktibazioari bultzada ematea, hau da, aholkularitza teknikoa ematea enplegu-bilaketa aktiboa hobetzeko; mugikortasunari laguntzea, eta enplegu-plan integratu eta pertsonalizatua betetzen laguntzea. Plana gauzatzean, informazioa eta aholkularitza emango da curriculuma definitzeko, enplegua modu aktiboan bilatzeko eskura dauden bitartekoak, teknikak eta tresnak erabiltzeko, merkatuaren egoera eta premiak zehazteko, eta plan horren banakako jarraipena egiteko gainerako funtzioak betetzeko.

e) Enplegu-zentroak, hau da, profesional baten laguntza duten espazioak, enplegua bilatzeko baliabideei buruzko autokontsulta-tresnak, lan-merkatuari buruzko informazio-tresnak, bibliografia, prestakuntzaren eta enpleguaren arloko argitalpen espezializatuak eta informazioa eskuratzeko ekipamendu teknologikoa eskaintzen dituztenak.

Enplegu-zentroek espazio fisikoen, materialen eta tresna teknologikoen irisgarritasuna eta erabilgarritasuna bermatuko dute, 25.1 artikuluan aurreikusitako baldintzetan.

f) Pertsona guztiei informazioa, laguntza, motibazioa eta aholkularitza emateko zerbitzu eta programa pertsonalizatuak; bereziki, laneratzeko zailtasunak dituztenei, edo baztertuta geratzeko arriskuan edo baztertuta daudenei zuzenduta.

3. Aurreko paragrafoko b) eta c) apartatuetan aipatzen diren prestazioak eskubide subjektibo gisa eratzen dira 11. eta 12. artikuluetan aurreikusitako baldintzetan.

29. artikulua.- Laneko prestakuntza-zerbitzua

1. Laneko prestakuntza-zerbitzua lanbide-heziketako sistema integratuaren parte da (Bizialdi Osoko Ikaskuntzari buruzko urriaren 10eko 1/2013 Legean eta Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide Heziketari buruzko ekainaren 28ko 4/2018 Legean jasotzen da), eta helburu berberak ditu.

2. Produkzio-sistemaren eskakizunei erantzungo dien prestakuntza sustatuko du, zeinaren bidez erabiltzaileek gaitasun profesionalak eskuratu eta eguneratuko dituzten, lan-trantsizioetan garapen profesionaleko eta enplegagarritasuneko aukera hobetu ahal izateko.

Horretarako, Lanbide Kualifikazio eta Espezializazioen Euskal Esparruari erreferentzia egiten dion prestakuntza-eskaintzeaz gain (Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide Heziketari buruzko ekainaren 28ko 4/2018 Legean ezarritako baldintzetan), beste edozein prestakuntza ere sartuko da, titulu, egiaztapen edo ziurtagiri ofizial bat lortzera bideratzen ez bada ere, enplegurako garrantzitsua bada, eta enpresen edo gizarteratzeko eta laneratzeko zailtasun bereziak dituzten pertsonen prestakuntza-premia espezifiko eta puntualetara egokitzen bada.

3. Laneko prestakuntza-zerbitzuan sartuko dira prestakuntzaren programazioa eta garapena; haren kalitatearen kontrola, jarraipena eta ebaluazioa; egiaztapena eta ziurtapena; prestakuntza lan-historia bakarrean kontsignatzea, mantentzea eta eguneratzea, eta prestakuntzaren kalitatea eta pertsonen eta produkzio-sarearen kualifikazio-beharren koordinazioa bermatzera bideratutako beste edozein ekintza.

4. Laneko prestakuntza-zerbitzuak lagundu egingo du prestakuntza-ibilbide pertsonalizatuak, irisgarriak eta, behar izanez gero, egokituak garatzen, arrazoizko doikuntzen bidez. Ibilbide horiek, hala badagokio, enplegurako plan integratu eta pertsonalizatuaren parte izango dira. Arreta berezia jarriko zaie garapen profesionalean eragina izango duten eta eraldaketa

sozioekonomikoetara egokitutako gaitasunak eskuratzen pertsonari laguntzea ahalbidetuko duten gaitasun digitalei, teknologikoei eta bestelakoei.

5. Artikulu honetan xedatutakoak ez die kalterik egingo Eusko Jaurlaritzan hezkuntzaren eta enpleguaren arloko eskumena duten sailek eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak unean-unean dituzten eskumenei.

30. artikulua.- Bitartekaritzarako eta enplegua aurkitzeko zerbitzua

Bitartekaritzarako eta enplegua aurkitzeko zerbitzuaren helburua izango da enplegu-eskaintzak identifikatu eta kudeatzea, eta eskaintzetara ondoen egokitzen diren erabiltzaileei lotzea, haien profil eta konpetentzien arabera. Jarduera hauek osatuko dute:

a) Enplegu-eskaintzak eta -aukerak aurkitzea.

b) Enplegu-eskaintzak eta -aukera zabaltzea.

c) Enplegu-eskaintzetarako hautagai egokienak identifikatzea eta hautatzea.

31. artikulua.- Autoenplegurako eta ekintzailetzarako aholku-zerbitzuak

1. Autoenplegurako eta ekintzailetzarako aholkularitza-zerbitzuaren helburua autoenplegua eta ekintzailetza sustatzeko ekimenak bultzatzea eta babestea da.

2. Jarduera hauek biltzen ditu:

a) Prestakuntza, informazioa eta laguntza ematea beren autoenplegua sustatu nahi dutenei edo enplegua sortzen duen produkzio-jarduera bati ekiteko interesa dutenei.

b) Gizarte-ekonomia eta talde-ekintzailetza sustatzea, barne hartuz kooperatiben, lan-sozietateen eta gizarte-ekonomiako beste entitate batzuen eraketa zabaltzea, sustatzea eta laguntzea.

c) Ekimen ekintzaileetarako, autoenplegurako, enpresak sortzeko eta kontratazioa sustatzeko laguntzei buruzko aholkularitza.

32. artikulua.- Pertsona, enpresa eta entitate enplegatzaileentzako aholkularitza-zerbitzua

1. Pertsona, enpresa eta entitate enplegatzaileentzako aholkularitza-zerbitzuaren xedea da enpresa-beharrak hautematea eta horiei erantzuten laguntzea, eta lan-merkatuaren eraldaketan babesa ematea, prospekzio- eta erantzun-sistema arin baten bidez, enplegutik, prestakuntzatik, informaziotik eta kontrataziorako modalitate eta laguntzen inguruko aholkularitzatik abiatuta.

2. Jarduera hauek bilduko ditu:

a) Langileen kontratazioaren inguruko informazioa eta laguntza, langabeak edo lehentasunezko arreta behar duten kolektibo jakin batzuetako pertsonak kontratatzeak dakartzan pizgarri ekonomikoei buruzkoa, eta kontu horiek izapidetzeari lotutako beste edozein gairi buruzkoa.

b) Enpresa-beharrak aztertzea eta identifikatzea, enpleguari zein prestakuntzari buruzkoak.

c) Enpleguaren Euskal Sareari aurkeztutako enplegu-eskaintzak kudeatzea eta eskainitako enplegu berriak aztertzea, kuantitatiboki eta kualitatiboki, horiek betetzeko kualifikazio eta profil optimoa zehaztearren.

d) Informazioa eta aholkularitza ematea EURES sarearen bidez Europar Batasunaren esparruko eskaintzen zabalkundeari buruz.

e) Pertsona okupatuen kualifikazioa, laneko prestakuntza-zerbitzuarekin koordinatuta.

f) Enpresei lan-kontratazioaren eta haren legezko izapide osagarrien komunikazioa errazteko jarduketak.

g) Beste enplegu bat aurkitzeko prozesuak diseinatzea eta gauzatzea, hala dagokionean.

33. artikulua.- Lan-merkatuari buruzko informazio-zerbitzu aurreratua

1. Lan-merkatuari, haren funtzionamenduari eta haren beharrei buruzko informazio egituratua pertsona, entitate eta enpresa erabiltzaileen eskura jartzean datza lan-merkatuari buruzko informazio-zerbitzu aurreratua. Enplegu-aukerak identifikatuko ditu, okupazioei, kualifikazio-beharrei eta lotutako konpetentziei dagokienez.

2. Informazio-zerbitzu aurreratuak eduki hauek izango ditu gutxienez:

a) Enplegu-zerbitzuen eskatzaileen lan-egoerari buruzko informazio eguneratua eta banakatua, lehentasunezko arretako kolektiboen egoera ezagutzeko.

b) Jasotako zerbitzuak.

c) Eskatutako okupazioen testuingurua eta jarduteko gomendioak.

d) Lanbideen, sektoreen eta kualifikazio-beharren etorkizuneko proiekzioak.

e) Gomendatutako prestakuntza-ibilbideak.

f) Eskatzaileen profilen eta hurbileko lanbideen portaerak.

g) Alertak eta jakinarazpenak.

3. Baliagarri izango da pertsona eta enpresa erabiltzaileek erabakiak hartzeko, Euskal Enplegu Sarearen zerbitzu-zorroa kudeatzeko, enplegu-politika publikoak planifikatzeko eta enpleguarekin lotutako zerbitzuak eta ekintzak programatzeko.

2. ATALA

PERTSONA, ENTITATE ETA ENPRESA ERABILTZAILEAK. ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

34. artikulua.- Pertsona, entitate eta enpresa erabiltzaileak

1. Euskal Enplegu Sarearen zerbitzu-zorroaren erabiltzaile dira haren zerbitzu batzuen eskatzaile diren pertsona fisikoak —langabeak edo okupatuak—, bai eta enplegua eskaintzen duten edo 1. atalean aipatzen diren zerbitzuak eskatzen dituzten pertsona, enpresa eta entitate enplegatzaileak ere.

2. Euskal Enplegu Sarearen zerbitzu-zorroa eskuragarri izateko, erregelamenduz ezartzen diren baldintzak bete beharko dira. Nolanahi ere, 41. artikuluan aipatzen den arreta- eta jarraipen-tresna komunean erregistratzea eskatuko da.

35. artikulua.- Pertsona, enpresa eta entitate erabiltzaileen eskubideak

1. Bazter utzi gabe 9.etik eta 13.era bitarteko artikuluetan ezarritakoa, Euskal Enplegu Sareko entitateek eskubide hauek bermatuko dizkiete zerbitzu-zorroa erabiltzen duten pertsona fisikoei:

a) Errespetuz eta zuzentasunez tratatuak izatea, segurtasun- eta konfiantza-giroan, konfidentzialtasuna, pertsonaren duintasunarekiko errespetua eta haien datu pertsonalak babestea bermatuz.

b) Informazio osoa, egiazkoa, jarraitua, ulergarria, eskuragarria, nahikoa eta eraginkorra lortzea enpleguaren Euskal Enplegu Sarearen zerbitzu-zorroari, enpresen beharrei, lan-merkatuan garrantzitsuak diren kualifikazioei eta prestakuntza-eskaintzari buruz, eta, betiere, enplegagarritasunari eta enplegu-plan integratu eta pertsonalizatuari buruz.

c) Erregelamenduz ezartzen diren baldintzetan ulertzeko eta ulertuak izateko eskubidea.

d) Eskubidea erreferentziazko profesional bat eslei dakien. Kasu guztietan, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak horiek ordezkatzeko eskubidea bermatuko du, erregelamenduz ezartzen diren baldintzetan, hargatik eragotzi gabe Euskal Enplegu Sareko gainerako entitateek beren erakundearen esparruan xedatzen dutena.

e) 38. artikuluan aipatzen den lan-historia bakarra izateko eskubidea.

f) Bere lan-historia bakarreko dokumentuak eta datuak eskuratzeko eta horien kopia formatu eskuragarrian eskuratzeko eskubidea, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 15. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz. Erregelamendu hori pertsona fisikoen babesari buruzkoa da, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez, eta 95/46/EE Zuzentaraua indargabetzen du. Profesionalek horiek eskuratzean, 38. artikuluan xedatutakoa errespetatuko dute.

g) Iradokizunak eta erreklamazioak egitea.

h) Harremanak zein hizkuntza ofizialetan izan nahi dituzten aukeratzea; hizkuntza bat ala bestea erabiltzeak ez du inolako diskriminaziorik eragingo, euskararen erabilera normalizatzeko legediarekin bat etorriz.

2. Aurreko paragrafoko a), b), d), f), g) eta h) apartatuetan aipatzen diren eskubideak bermatuko zaizkie pertsona, enpresa eta erakunde enplegatzaileei.

36. artikulua.- Pertsona, enpresa eta entitate erabiltzaileen eskubideak baliabide elektronikoak erabiltzean

1. Euskal Enplegu Sarearen zerbitzu-zorroa emateko bitarteko elektronikoak erabiltzeari dagokionez, aurreko artikuluan ezarritakoez gainera, honako eskubide hauek aitortzen zaizkie erabiltzaileei:

a) Euskal Sektore Publikoaren maiatzaren 12ko 3/2022 Legearen 69.2 eta 69.3 artikuluetan aurreikusitakoak.

b) Zerbitzu elektronikoen eta horiek emateko eskuragarri dauden aplikazioen irisgarritasun unibertsala, bereziki desgaitasuna duten pertsonentzat, betiere ziurtatuz emandako informazioa eskuragarria eta ulergarria dela.

c) Eten digital oro ezabatzea, eta bazterketa digitalik ez izateko eskubidea babestea.

d) Identifikazio digitalerako, autentifikaziorako eta sinadura elektronikorako sistemak doan eskura izatea. Euskal Enplegu Sarea osatzen duten erakundeek sinadura elektronikoko sistema berberak erabiltzen dituztela bermatuko dute.

e) Lineako eta aurrez aurreko arreta.

f) Tratatutako informazioaren osotasuna, konfidentzialtasuna eta egiazkotasuna.

2. Leihatila digital bakarraren kudeaketa Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari badagokio ere, Euskal Enplegu Sarea osatzen duten entitateek aurreko paragrafoan aipatzen diren eskubideen erabateko eraginkortasuna bermatuko dute, zerbitzu horiei dagokienez.

3. Enpresa eta entitate erabiltzaileei 1. paragrafoko a), e) eta f) apartatuetan aipatutako eskubideak bermatuko zaizkie.

4. Erregelamenduz ezarri ahal izango da enpresa eta entitate erabiltzaileek 21.2 artikuluan aipatutako leihatila digital bakarraren bidez bitarteko elektronikoak baliatuz harremanetan jartzeko betebeharra.

37. artikulua.- Pertsona, enpresa eta entitate erabiltzaileen betebeharrak

1. 14. artikuluan ezarritakoaren kaltetan izan gabe, Euskal Enplegu Sarearen erabiltzaileek honako betebehar hauek izango dituzte:

a) Euskal Enplegu Sareko erakundearen aurrean agertzea, hala eskatzen diotenean, eskaintzen zaizkien zorroko zerbitzuei dagokienez.

b) Euskal Enplegu Sareko entitateekin aktiboki lankidetzan aritzea, zorroko zerbitzuak ahalik eta hobekien eman ahal izateko, eta eskatzen zaizkion beharrezko agiriak, datuak eta txostenak ematea.

c) Egoitza-aldaketei, harremanetarako datuei eta enplegu-zerbitzuak emateko behar diren inguruabarrei buruzko informazioa eguneratuta edukitzea.

d) Gainerako erabiltzaileen duintasuna eta eskubideak errespetatzea, baita arreta ematen dieten profesionalena ere.

e) Estatuko enplegu-legeriak enplegu-zerbitzuen eskatzaileei ezartzen dizkienak.

2. Euskal Enplegu Sarea erabiltzen duten pertsona, enpresa eta entitate enplegatzaileek betebehar hauek izango dituzte:

a) Euskal Enplegu Sareko erakundeekin aktiboki lankidetzan aritzea, eskatutako zerbitzuak ahalik eta hoberen eman ahal izateko.

b) Langileen enplegagarritasuna eta okupagarritasuna hobetzen laguntzea.

c) Enplegu-eskaintzak eta Estatuko enplegu-legeriak ezartzen dituen gainerako betebeharrak jakinaraztea.

3. Nolanahi ere, jasota geratuko da betebeharrak zein inguruabarretan bete diren eta Euskal Enplegu Sarearen zerbitzu-zorroa ematean eragina zein izan den (enplegagarritasuna edo programa osagarriak hobetzeko eskubideak baliatzean), erregelamendu bidez zehazten diren baldintzetan.

38. artikulua.- Lan-historia bakarra

1. Laneko historia bakarra, alderdi hauei buruz behar den informazio guztia bilduko duena: triajea, erabiltzailearen enplegagarritasunari buruzko diagnostiko pertsonala, enplegu-plan integratua eta pertsonalizatua, egindako jarduketak, enplegu-eskaintzak, sinatutako kontratuak, prestazioak edo subsidioak (halakorik jaso badu), eta Euskal Enplegu Sarea osatzen duten erakundeen esku-hartze guztien jarraitutasuna eta osagarritasuna lortzeko behar den gainerako informazioa.

2. Erregelamenduz ezarriko dira lan-historia bakarra egiteko, kontserbatzeko, arduratzeko eta erabiltzeko arauak, eta arau horiek bermatuko dute erabat historia bakarra integratuta egotea eta bateragarri izatea enpleguari buruzko Estatuko legerian aurreikusitako lan-espediente bakar pertsonalizatuarekin.

3. Lan-historia bakarra eramango da 41. artikuluan aipatzen den arreta- eta jarraipen-tresna komunaren bidez.

39. artikulua.- Profesionalek lan-historia bakarrerako sarbidea izatea

1. Euskal Enplegu Sareko profesionalek sekretu profesionala gordeko dute lan-historia bakarrera sartzen direnean.

2. Sarbidea izateko, ez da erabiltzaileen baimenik beharko, eta profesional bakoitzak esleituta dituen eginkizun zehatzen arabera beharrezkoa, egokia eta pertinentea den edukira mugatuko da, betiere beharrezkoa bada Euskal Enplegu Sarearen zerbitzu-zorroa edo enplegagarritasuna hobetzeko programa osagarrietako bat (IV. kapituluan aipatuak) egoki emateko. Halaber, konfidentzialtasun- eta sekretu-betebeharra errespetatuko da.

3. Euskal Enplegu Sarearen ikuskapen-eginkizunak betetzen dituzten langileek lan-historia bakarrera sartzeko aukera edukiko dute, ondorengo hauek egiaztatzeko eginkizunak betetzen dituztenean: Euskal Enplegu Sarearen zerbitzu-zorroaren prestazio-eduki teknikoa, jardunaren printzipio informatzaileak, enplegagarritasuna hobetzeko zerbitzu eta programa osagarrietara sartzeko erabiltzaileek bete beharreko baldintzak, eta lege honetan eta enpleguari buruzko estatuko legerian ezarritako eskubide eta betebeharrak.

III. KAPITULUA

ARRETA, INFORMAZIO ETA PROSPEKZIORAKO TRESNA KOMUNAK ETA EUSKAL ENPLEGU SAREAREN ZERBITZU-ZORROAREN KUDEAKETA

1. ATALA
ARRETA, INFORMAZIO ETA PROSPEKZIORAKO TRESNA KOMUNAK

40. artikulua.- Arreta, informazio eta prospekziorako tresna komunak onartzea, diseinatzea eta mantentzea

1. Enpleguaren arloan eskumena duen saileko titularrari dagokio Euskal Enplegu Sarea osatzen duten erakundeek zorroko zerbitzuak emateko erabili beharko dituzten arreta, informazio eta prospekziorako tresna komunak onartzea.

2. Tresna horiek Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak diseinatu eta mantenduko ditu, eta errespetatu egin beharko du Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 25. artikuluan xedatutakoa. Erregelamendu hori pertsona fisikoak babesteari buruzkoa da, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez, eta 95/46/EE Zuzentaraua indargabetzen du.

41. artikulua.- Arreta eta jarraipenerako tresna komuna

1. Erabiltzaile bakoitzari bere lan-bizitza osoan zehar Euskal Enplegu Sarearen zerbitzu-zorrotik emandako zerbitzuen jarraipena egitea ahalbidetuko duen tresna da arreta eta jarraipenerako tresna komuna.

Halaber, pertsona, entitate eta enpresa enplegatzaileei emandako zerbitzuen jarraipena egiteko aukera emango du.

2. Erabiltzaileen lan-historia bakarra eta garrantzizko informazio pertsonala, kontaktukoa eta profesionala bilduko ditu, bai eta pertsona, entitate eta enpresa enplegatzaileei buruzko informazio garrantzitsua ere, esku-hartze guztien trazabilitatea bermatuz eta, hala badagokio,

langabeziari aurre egiteko prestazio ekonomikoekiko eta Inklusiorako eta Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren prestazioekiko koordinazio egokia bermatuz.

3. Arreta eta jarraipenerako tresna komunari esker, estatistikak egin ahal izango dira egindako kudeaketari buruz eta lehentasunezko arreta ematen duten kolektiboei eragiten dienari buruz. Tresna horrek, nolanahi ere, aukera emango du emakumeen eta gizonen egoera desberdinaren berri izateko, eta egokitu egingo da Estatistikak Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/201 8 Lege Organikoaren 25. artikuluan eta Euskal Autonomia Erkidegoko apirilaren 23ko 4/1986 Legean xedatutakora.

4. Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak bermatuko du artikulu honetan aipatzen den tresnaren erabateko integrazioa eta bateragarritasuna Enplegu Sistema Nazional osorako abian jarri diren eta indarrean dauden informazio-sistemekin eta azpiegiturekin.

42. artikulua.- Enplegu-, prestakuntza- eta zerbitzu-eskaintzen informazio eta kudeaketarako tresna

1. Enplegu-, prestakuntza- eta zerbitzu-eskaintzak jakinarazteko eta kudeatzeko tresna Euskal Enplegu Sarean dauden entitateek eskainitako enplegu-eskaintza, laneko prestakuntza eta zerbitzu guztiak bilduko dituen tresna da.

2. Pertsona eta enpresa erabiltzaileen eta Euskal Enplegu Sareko erakundeen eskura egongo da, pertsonei eta enpresei erabakiak hartzen eta zuzeneko arreta ematen laguntzeko.

3. Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak bermatuko du artikulu honetan aipatzen den tresnaren erabateko integrazioa eta bateragarritasuna Enplegu Sistema Nazional osorako abian jarri diren eta indarrean dauden informazio-sistemekin eta azpiegiturekin.

43. artikulua.- Profilatzeko tresna

Euskal Enplegu Sarearen erabiltzaileak haien enplegagarritasunaren arabera bereizteko bide emango duen kudeaketa-tresna da profilatzeko tresna, eta lagungarri izango da banakako ekintzak programatzeko eta enplegu-arloko politika publikoen plangintza egiteko.

44. artikulua.- Enpleguaren eta Prestakuntzaren Euskal Behatokia

1. Enpleguaren eta Prestakuntzaren Euskal Behatokia honako hauek biltzen dituen tresna da:

a) Euskal Autonomia Erkidegoko enpleguari buruzko informazioa, analisia eta prospektiba. Horretarako, lan-merkatuaren beharrak eta behar horiei erantzuteko konpetentzia garrantzitsuak identifikatuko ditu, eguneratuta, eta enplegu-eskariaren eta -eskaintzaren epe ertaineko proiekzioak egingo ditu, lanbideen, sektore ekonomikoen, mailen eta jarduera-adarren arabera.

b) Prestakuntza-premiak aurkitzea, aztertzea eta prospekzioa egitea, bereziki Euskal Autonomia Erkidegoko lan-merkatuari buruzkoak.

2. Enpleguaren eta Prestakuntzaren Euskal Behatokiaren Informazioa baliagarria izango da erabakiak hartzeko, enplegu-politika publikoak diseinatzeko eta planifikatzeko, bai eta Euskal Enplegu Sarearen zerbitzu-zorroa programatzeko eta kudeatzeko ere.

3. Foru-aldundiek, udalerriek, udalaz gaindiko esparruko toki-entitateek eta Euskal Enplegu Sarean integra daitezkeen gainerako entitateek, kasuan kasu, enpleguari buruz dituzten informazio-, analisi- eta prospektiba-sistemek Enpleguaren eta Prestakuntzaren Euskal Behatokiarekiko erabateko integrazioa eta elkarreragingarritasuna bermatu beharko dute.

Horretarako, Elkarreragingarritasunaren eta Segurtasunaren Eskema Nazionalak errespetatu beharko dituzte.

4. Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak Euskal Autonomia Erkidegoko enpleguaren bilakaerari buruzko txosten bat egingo du urtero.

2. ATALA

EUSKAL ENPLEGU SAREAREN ZERBITZU-ZORROAREN KUDEAKETA

45. artikulua.- Printzipio gidariak

1. Euskal Enplegu Sarea osatzen duten entitateek 5. artikuluan aipatzen diren printzipioen eta ondoren aipatzen diren printzipioen arabera kudeatuko dituzte zerbitzu-zorroko prestazioak:

a) Doakotasuna eta unibertsaltasuna. Zerbitzuak doakoak izango dira pertsona eta enpresa erabiltzaile guztientzat, eta ezin izango da inolako kontraprestaziorik eskatu.

b) Arreta integrala eta profesionala, berma dadin behar bezala koordinatzen direla Euskal Enplegu Sarearen zerbitzu-zorroa, langabeziari aurre egiteko babes ekonomikoa eta Inklusiorako eta Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren prestazioak.

c) Arreta pertsonalizatua, malgua, goiztiarra, jarraitua eta erabiltzaileen premia jakinetara egokitua premia horiek irauten duten bitartean, gizarte-, osasun- eta hezkuntza-zerbitzuekin lankidetzan arituta emango dena, lan-merkatuan sartzeko prozesuetan eta prestakuntzaren eta enpleguaren arteko edo enpleguen arteko trantsizio-prozesuetan.

Era berean, zerbitzuak enpresen premietara egokituko dira.

d) Zerbitzuen irisgarritasun unibertsala, bereziki desgaitasuna duten pertsonentzat, betiere ziurtatuz emandako informazioa eskuragarria eta ulergarria dela.

e) Zerbitzuen gardentasuna, kalitatea eta ebaluazioa, erregelamendu bidez zehaztutako kalitate-estandarren arabera. Adierazle kualitatibo eta kuantitatibo homogeneoak txertatuko dira, sexuaren eta lehentasunezko arreta behar duten kolektiboen arabera bereizita, Euskal Enplegu Sarearen zerbitzu-zorroa ebaluatu eta garatu ahal izateko.

f) Garatutako jarduera guztien trazabilitatea, gauzatzen hasten direnetik eragina ebaluatu arte, arreta- eta jarraipen-tresna komunaren bidez.

g) Konpetentzia profesionalen araberako kudeaketa, eta zerbitzu hauen artean koordinazio egokia dagoela bermatuta: enplegurako orientazioa, bitartekaritza eta enplegua aurkitzea, eta laneko prestakuntza.

2. Hori eraginkorra izan dadin, Euskal Enplegu Sarea osatzen duten erakundeek lankidetza eta kooperazioa eman beharko diote elkarri.

46. artikulua.- Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren kudeaketa esklusiboa

1. Euskal Enplegu Sarearen zerbitzu-zorro osoa bermatzea alde batera utzi gabe, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari dagokio zerbitzu eta funtzio hauen kudeaketa esklusiboa:

a) Orientazio-zerbitzuari dagokionez, triajea eta erabiltzailearen enplegagarritasunari buruzko diagnostiko pertsonala egitea dagokio, bai eta enplegu-plan integratu eta pertsonalizatua diseinatu, jarraitu, berrikusi eta eguneratzea ere.

b) Laneko prestakuntza-zerbitzua, hargatik eragotzi gabe foru-aldundiek eta udalek, hurrengo artikuluetan xedatutakoaren arabera, beren gain hartzen dituzten eginkizunak eta hezkuntza-arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailari dagozkion eginkizunak, lanbide-heziketako euskal sistemaren esparruan eskuratutako eskumenak behar bezala planifikatzeko, programatzeko, egiaztatzeko edo ziurtatzeko.

c) Bitartekaritzarako eta enplegua aurkitzeko zerbitzuei dagokienez, enpleguari buruzko estatuko legerian enplegua aurkitzeko agentziei buruz xedatutakoa alde batera utzi gabe, zerbitzu eta eginkizun hauen kudeaketa esklusiboa dagokio:

1.- Lan-eskaintzen kudeaketa eta kasazioa.

2.- Indarrean dagoen legeriak baimendutako birkokatze-planak egitea.

d) Lan-merkatuari buruzko informazioa emateko zerbitzu aurreratua diseinatzea eta mantentzea.

2. Aurreko paragrafoan xedatutako alde batera utzi gabe, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak arreta berezia jarriko dio lan-merkatuan garrantzitsuak diren konpetentziak, jarrera eta balioak eskuratzera bideratutako prestakuntzari, pertsonen kualifikazioa hobetzen, lan duinei eusten edo horietara iristen eta lanbide-progresioa eta enplegagarritasuna hobetzen laguntzeko.

Halaber, gizarteratzeko eta laneratzeko zailtasunak dituzten pertsonen eta lehentasunezko arreta jasotzen duten kolektiboetako pertsonen laneratzeko aukerak hobetzeko prestakuntza bermatuko du.

47. artikulua.- Foru-aldundien kudeaketa

1. Lurralde historiko bakoitzeko foru-aldundiak, Euskal Enplegu Sarearen zerbitzu-maparen arabera, zerbitzu hauek kudeatu ahal izango ditu:

a) Laneko prestakuntzari dagokionez, eta Eusko Jaurlaritzak onartutako plangintzaren eta programazioaren esparruan, titulazio, egiaztapen edo ziurtagiri ofizialik ez dakarren prestakuntza programatu eta eman ahal izango du —betiere dagokion lurraldearen garapen ekonomiko eta sozialarekin lotuta badago, eta lurraldeko lan-merkatuan garrantzitsua bada—, eta bazterketa-arriskuan edo -egoeran dauden pertsonentzako prestakuntza ere bai.

Halakoetan, emandako prestakuntzaren kalitatea kontrolatu, jarraitu eta ebaluatu beharko du, eta erabiltzaileek jasotako prestakuntzari buruzko datuak jarraitu eta ebaluatu beharko du, eta erabiltzaileek jasotako prestakuntzari buruzko datuak erregistratu eta eguneratu beharko ditu arretarako eta jarraipenerako tresna komunean.

b) Orobat, autoenpleguaren eta ekintzailetzaren alorreko aholkularitza-zerbitzua eman ahal izango du. Zerbitzu hori ematerakoan, Euskadiko Ekintzaileei eta Enpresa Txikiari Laguntzeko ekainaren 28ko 16/2012 Legean ezartzen diren koordinazio-neurrietara egokitu beharko du.

2. Aurreko paragrafoan aipatutako zerbitzuak ematea borondatezkoa izango da.

48. artikulua.- Toki-entitateen kudeaketa

1. Aurreko artikuluan aipatzen diren zerbitzuez gain, udalerriek eta udalaz gaindiko esparruko beste toki-entitate batzuek, Euskal Enplegu Sarearen zerbitzu-maparen arabera, zerbitzu hauek kudeatu ahal izango dituzte:

a) Orientazio-zerbitzuari dagokionez, aktibaziorako laguntza, informazio-, laguntza-, motibazio- eta aholkularitza-zerbitzu eta -programa pertsonalizatuak eskaintzen dituzten

enplegu-zentroen kudeaketa, 28.2.d) eta e) artikuluan ezarritako baldintzetan, eta lan-merkatuari buruzko informazio aurreratuko zerbitzua eskura jartzea.

b) Enpresei aholkularitza emateko zerbitzuari dagokionez, honako hauek egin ahal izango dituzte: enplegu-eskaintzak lortu, beren lurraldeari lotutako enpresekin harreman zuzena izan, haien beharrak aztertu eta identifikatu, eta laguntzei eta kontratazio-modalitateei buruzko informazio eta aholkularitza eman.

2. Aurreko paragrafoan aipatutako zerbitzuak ematea borondatezkoa izango da.

IV. KAPITULUA

ENPLEGAGARRITASUNA ETA OKUPAGARRITASUNA HOBETZEKO PROGRAMA OSAGARRIAK

49. artikulua.- Enplegagarritasuna eta okupagarritasuna hobetzeko programa osagarriak

1. Enpleguari buruzko legerian enplegua sustatzeko eta enplegua aktiboki babesteko aurreikusitako programez gain, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak programa osagarriak jarriko ditu abian, enplegagarritasuna eta okupagarritasuna hobetzeko. Programa horien xedea izango da langabeak laneratzea, okupatuak lanbide-arloan sustatzea, ezagutzak eta konpetentziak etengabe eguneratzea, biztanleria aktiboaren lanbide-konpetentziak baloratzea eta enplegu-tasak handitzea.

2. Kapitulu honetan aipatzen diren enplegagarritasuna hobetzeko programa osagarriak, eta horiek garatzean onar daitekeen beste edozein, lehentasunezko arreta behar duten kolektiboei aplikatuko zaizkie batez ere.

Erregelamendu bidez zehaztuko dira enplegagarritasuna hobetzeko programa osagarriak eskuratzeko lehentasunezko kolektiboak, gainerako herritarrengana zabaltzea, programen indarraldia, programa horiek egikaritzeko ardura duen erakundea, programa horiek gauzatzeko epeak eta programa horiek gauzatzeko beharrezkoak diren beste alderdi guztiak.

3. Euskal Enplegu Sareko entitateen arteko lankidetza sustatuko da programa horiek egikaritzeko, eta entitate laguntzaileei ere zabalduko zaie lankidetza hori. Paragrafo honetan xedatutakoak ez du eragotziko 53. artikuluan aktibazio-programa integralei buruz ezarritakoa.

50. artikulua.- Konpetentziak baloratzeko programa

1. Konpetentziak baloratzeko programari esker, enplegagarritasunari buruzko oinarrizko azterketa bat eduki ahal izango dute pertsonek, eta administrazio publikoek enplegu-politika publikoak hobetzeko estrategiak diseinatu ahal izango dituzte. Azterketa hori aurrez aurre edo bitarteko elektronikoen bidez egin ahal izango da.

2. Konpetentzien autobalorazioa sustatuko da, betiere profesional baten laguntza bermatuz, interesdunak balorazioa behar bezala egin dezan.

Bertaratzea aurrez aurrekoa edo bitarteko elektronikoen bidezkoa izan daiteke, programa egiteko aukeratutako kanalaren arabera.

3. Konpetentzien balorazioa borondatezkoa izango da, eta egindakotzat joko da pertsonari enplegagarritasunari buruzko diagnostiko pertsonala edo enplegu-plan pertsonalizatu eta integratua egiten zaion kasuetan, horiek indarrean dauden artean.

4. Konpetentziak baloratzeko programaren konfidentzialtasuna bermatuko da, 17. artikuluan ezarritako baldintza berberetan.

51. artikulua.- Konpetentziak eguneratzeko programa

1. Konpetentziak eguneratzeko programak aukera emango die pertsonei, beren autonomia baliatuz, prestakuntza-eskaintza hautatzeko, prestakuntzaren kalitatea bermatuko duten formula malguak erabilita.

2. Horretarako, enpleguaren eta hezkuntzaren arloan eskumena duten Eusko Jaurlaritzako sailek zehaztuko dute zer baldintza eska dakizkiekeen konpetentziak eguneratzeko programan parte har dezaketen prestakuntza-erakundeei eta zein den pertsonen lanbide-kualifikazioa hobetzeko prestakuntza-eskaintza garrantzitsua.

52. artikulua.- Lan-merkatu arruntean babesa eta laguntza duten enplegu-programak

1. Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak enplegu-programak jarriko ditu abian. Horien helburua izango da desgaitasuna duten pertsonek lanerako eskubidea baliatu ahal izan dezaten saiatzea, eta babestu eta lagundutako enplegu-programak garatuko ditu, lehentasunez xede hauetara bideratuta: pertsona horiek lan-sistema arruntean laneratzea, babestutako lan-inguruneetatik enplegu arruntera igarotzea, enpleguari eustea, beren lan-zikloan enplegagarritasuna hobetzea eta lanbide-arloan garatzea, bai eta enplegu babestuan jasangarritasuna lortzea ere, desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta horien gizarteratzeari buruzko legeriarekin eta berori garatzeko araudiarekin bat etorriz. Programa horiek ahal den guztietan sustatuko dira.

Paragrafo honetan xedatutakoak ez ditu galaraziko desgaitasuna duten pertsonentzako ekintza positiboak, 6.2 artikuluan aurreikusitako baldintzetan, ez eta enplegagarritasunari buruzko diagnostiko pertsonalaren arabera Euskal Enplegu Sarearen katalogoko programak eta zerbitzuak erabat eraginkorrak izan daitezen egin beharreko egokitzapenak ere.

2. Era berean, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak enplegu-programa lagunduak garatuko ditu laneratzeko zailtasun bereziak dituzten beste kolektibo batzuentzat, enplegua sustatzeko neurri gisa, haien gizarteratzea eta laneratzea errazteko.

Erregelamendu bidez zehaztuko dira programaren hartzaileak, programaren iraupena, programan sartzeko baldintzak, babesteko eta laguntza emateko profesionalen baldintzak, bai eta sustapen-ekintzaren erakunde onuradunenak ere, eta hura gauzatzeko behar den beste edozein gai.

3. Nolanahi ere, programa horien barruan sartuko dira hartzailearentzako orientazio-, aholkularitza- eta laguntza-ekintzak, gizarte- eta komunitate-trebetasunak garatzera bideratutako jarduerak, lanpostuari berezko zaizkion zereginetan prestakuntza espezifikoa ematera bideratutako jarduerak, eta enpresei eta gainerako entitate enplegatzaileei pertsonaren laguntza-premien inguruko aholkularitza eta informazioa ematea, eta, hala badagokio, lanpostua egokitzea.

4. Lagundutako enplegu-programei etengabeko jarraipena eta ebaluazioa egingo zaie.

53. artikulua.- Aktibazio-programa integralak

1. Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak lana aktibatzeko programa integralak jarriko ditu abian, lehentasunezko arreta behar duten kolektiboen enplegagarritasuna eta lan duina lortzeko aukerak hobetzeko. Programa horien bidez, ekintza konbinatu eta pertsonalizatuak egingo dira

arlo hauetan: informazioa, orientazioa, lagun egitea, motibazioa, aholkularitza, prestakuntza eta, hala badagokio, lan-praktika, prospekzioa, bitartekaritza eta enplegu-sustapena.

Era berean, enplegu babestuko ekimenak sustatuko ditu.

2. Foru-aldundiek, udalerriek eta toki-erakundeek lana aktibatzeko programa integralak onartu ahal izango dituzte enplegu-zerbitzuak eskatzen dituzten pertsonentzat, langabeak nahiz okupatuak izan, baldin eta bazterketa-egoeran edo -arriskuan badaude. Nolanahi ere, sarbide-baldintzek bermatu egingo dute 9.etik 13.era bitarteko artikuluetan aurreikusita dauden enplegagarritasuna hobetzeko eskubideak gauzatzea.

Programen indarraldian, hartzaileentzako asistentzia pertsonalizatua, jarraitua eta egokia bermatuko da, eta erreferentziazko profesional bat esleituko zaie.

3. Lan-bitartekaritzako prozesua, hala badagokio, entitate laguntzaile espezializatuek garatu ahal izango dute, Estatuko enplegu-legerian aurreikusitako baldintzetan, hargatik eragotzi gabe Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak eta programa integrala sustatzen duen entitateak lankidetzan diharduten enplegu-agentziek gara dezaketen prozesua.

4. Aurreko paragrafoetan aipatutako aktibazio-programa integralak egokitu egingo dira Enplegu Politika Publikoen Euskal Kontseiluak 68.1.e) artikuluan xedatutakoaren arabera zehaztutako erakundearteko koordinazio-irizpideetara.

V. KAPITULUA
EUSKAL ENPLEGU SAREKO ENTITATE PRIBATU LAGUNTZAILEAK

54. artikulua.- Euskal Enplegu Sareko entitate pribatu laguntzaileak

1. Euskal Enplegu Sarearen zerbitzu-zorroa ematen esku hartzen duten entitate pribatuek lege honetan Euskal Enplegu Sareari buruz xedatutakoa bete beharko dute, bai eta enpleguari buruzko estatuko legerian entitate laguntzaileei buruz ezarritakoa ere.

2. Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak erakunde pribatuekiko lankidetza-esparrua ezarri ahal izango du, formula hauen bidez:

a) Lege honetan xedatutakoaren arabera: 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora.

b) Kontratu irekiak, hurrengo artikuluan xedatutakoaren arabera.

c) Gizarte-ekimeneko entitateekin hitzartutako ekintza-akordioak, 56. artikuluan aurreikusitako baldintzetan.

d) Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak laneko prestakuntza-zerbitzua kudeatzeari dagokionez, aurreko apartatuetan ezarritakoak ez dio kalterik egingo lanbide-heziketaren legerian eta lan-arloko enplegurako Lanbide Heziketaren Sistema arautzen duen Estatuko legerian xedatutakoari.

e) Ordenamenduan ezarritako beste edozein bitarteko erabiliz.

3. Bitartekaritza-zerbitzuei dagokienez, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak lankidetza-hitzarmenak sinatu ahal izango ditu enplegua aurkitzeko agentziekin, dirulaguntzak eman ahal izango ditu edo beste edozein lankidetza-hitzarmen ezarri ahal izango du, sektore publikoko kontratuei buruzko legerian xedatutakoa aplikatzeari kalterik egin gabe, baldin eta dagokion negozioa bere aplikazio-esparruan sartzen bada.

4. Euskal Enplegu Sareko gainerako entitateek beren araudi erregulatzaileak xedatzen duenaren arabera kudeatuko dituzte zorroko zerbitzuak. Dena den, aplikatzekoa izango zaie 1.c) paragrafoan xedatutakoa.

5. Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak, foru-aldundiek eta udalerriek lankidetza sustatuko dute Euskal Enplegu Zerbitzuaren zerbitzuen kudeaketa ordenatua eta osagarria lortzeko, eta kontratazioa teknikoki arrazionalizatzeko sistemak erabili ahal izango dituzte, betiere enplegu-zerbitzuen edukiarekin bat badatoz.

55. artikulua.- Kontratu irekiak 1. Kontratu irekitzat ulertuko dira hainbat entitatek zerbitzuaren eskaintzan parte hartzea ahalbidetzen duten akordioak, baina Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak ezin izango du entitate bat beste batzuen artetik hautatu, eta entitate horiek ez dira behartuta egongo eskaintzak aurkeztera.

2. Kontratu irekiek honako arau hauek bete beharko dituzte:

1.- Kontratu horien oinarri arautzaileek beti errespetatuko dituzte berdintasunaren, diskriminaziorik ezaren, gardentasunaren, publizitatearen, kalitatearen, jarraitutasunaren, irisgarritasunaren eta zerbitzuaren erabilgarritasunaren printzipioak, eta pertsona eta enpresa erabiltzaileen beharrei erantzungo diete.

2.- Aldez aurretik, kontratua egikaritzeko gaitasun-irizpideak aurreikusi ahal izango dituzte entitateentzat.

3.- Kontratu horiek nola egikarituko diren arautuko duten preskripzio teknikoak finkatuko dira.

4.- Sektore publikoko kontratuen legeriaren printzipioak aplikatuko dira zalantzak eta hutsuneak argitzeko. Kontratu irekia interpretatzea eta zalantzak eta hutsuneak ebaztea hura sustatzeko eskumena duen organoari egokituko zaio.

56. artikulua.- Itunpeko kudeaketako akordioak

1. Zerbitzuen kontratu publikoak kudeatzearen esparruan, Euskal Enplegu Sareko erakundeek aukera izango dute 24.1.a), b) eta c) artikuluetan aipatutako zerbitzuak eta enplegagarritasuna eta okupagarritasuna hobetzeko 52. eta 53. artikuluetan aurreikusitako programak agintzeko gizarte-ekimeneko entitate pribatuei, baldin eta entitate horien xede sozialean aurreikusita badaude enpleguaren arloko jarduerak; bereziki, zerbitzu eta programa horiek lehentasunezko arreta behar duten pertsonei zuzenduta daudenean.

Gizarte-ekimeneko entitateak dira formalki eratuta dauden eta nortasun juridiko propioa duten gizarte-ekimeneko fundazioak, elkarteak, kooperatibak eta bestelako entitateak, baldin eta Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialari buruzko maiatzaren 12ko 6/2016 Legearen 3. artikuluan aipatzen diren ezaugarriak badituzte, salbuetsita Euskal Autonomia Erkidegoan egoitzari izateari buruzkoa edo eskaintzak aurkezteko unean ezarrita egoteari buruzkoa.

2. Itunpeko kudeaketako akordioak, aplikatzekoak diren sektore publikoko kontratuen legeriatik eratorritako printzipioetara ez ezik, beste printzipio hauetara egokituko dira: subsidiariotasuna, solidaritatea, berdintasuna, publizitatea, gardentasuna, diskriminaziorik eza eta aurrekontu-eraginkortasuna.

3. Itunpeko ekintzako erakundeek 5. eta 45. artikuluetan ezarritako printzipioetan xedatutakoa bete beharko dute, eta 35.etik 39.era bitarteko artikuluetan aipatzen diren eskubideak betetzen direla bermatu beharko dute.

3. Erregelamendu bidez zehaztuko dira sarbide-eskakizunak, eta horietan aurreikusi ahal izango da entitateek administrazio-erregistro batean inskribatu behar izatea, eta aldez aurretik

honako hauek aztertzea: eskaintzak, zerbitzua emateko baldintzak, hautaketa-prozedura, itunaren iraupena, azkentzeko arrazoiak, itunpeko entitateari zerbitzua ordaintzeko modulu ekonomikoak (kostuak itzultzeko oinarriaren gainean), alderdien betebeharrak, eta itunpeko plaza eta zerbitzuetarako sarbidea (doakoak izango dira erabiltzaileentzat).

4. Itunpeko ekintza-araubidea bateraezina izango da itunaren xede diren jarduerak eta zerbitzuak finantzatzeko dirulaguntzak ematearekin.

VI. KAPITULUA
EUSKAL ENPLEGU SAREA IKUSKATZEA ETA ZERBITZUEN KALITATEA KONTROLATZEA

57. artikulua.- Ikuskapena

1. Enpleguaren arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailari dagokio Euskal Enplegu Sareko entitateek lege honetan eta lege hau garatzeko araudian ezarritako baldintzak eta betebeharrak betetzen dituztela ikuskatzea eta kontrolatzea.

Artikulu honetan xedatutakoa hala izanik ere, kontuan izan beharko dira Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzailetzaren eskumenak.

2. Ikuskapen-lana legezkotasun-, objektibotasun-, eraginkortasun-, kongruentzia- eta proportzionaltasun-printzipioak betez egingo da.

58. artikulua.- Ikuskapen-ahalak

1. Ikuskapen-eginkizunak betetzean, funtzionarioek agintari-izaera izango dute.

2. Ikuskapen-jarduera gauzatzerakoan, ahal hauek izango dituzte:

a) Lege honen eta lege hau garatzeko araudiaren xedapenak betetzen direla egiaztatzeko beharrezkotzat jotzen duten zeinahi egiaztapen eta ikerketa-, azterketa- edo froga-eginbide egitea.

b) Euskal Enplegu Sarearen zerbitzu-zorroan zerbitzuak ematen dituzten zentro guztietan libreki sartzea, aldez aurretik jakinarazi gabe eta noiznahi.

c) Pertsona fisiko edo juridikoei, publiko zein pribatuei, lege honetan eta lege hau garatzeko araudian xedatutakoa betetzen dela egiaztatzeko behar den informazio eta dokumentazio guztia eskatzea.

d) Enpleguaren arloan eskumena duen sailari proposatzea lege honetan eta lege hau garatzeko araudian xedatutakoa betetzeko errekerimenduak egin ditzala, eta, hala badagokio, neurriak har ditzala erabiltzaileei zerbitzuak behar bezala emango zaizkiela bermatzeko.

3. Ikuskapen-jardueran lortutako informazioa isilpean gordeko da, eta ezingo da erabili lege honetan ezarritako helburuetarako ez bada.

59. artikulua.- Ikuskapen-lanari laguntzea

1. Eusko Jaurlaritzan enplegu-arloko eskumena duen saileko funtzionarioek, ikuskapen-eginkizunak betetzean, beste agintaritza publiko baten edo pertsonal teknikoaren laguntza eskatu ahal izango dute, eta horiek laguntza eta lankidetza emango diete ikuskapen-jarduera garatzeko beharrezkoa denean.

2. Agintariek, administrazio publikoetako eta sektore publikoa osatzen duten gainerako erakundeetako organoen titularrek, ikuskapen-ahala gauzatzeko beharrezkoak diren informazioak, aurrekariak eta datuak hornituko dituzte, hala eskatzen bazaie.

Lankidetza bera eskatuko zaie Euskal Enplegu Sarearen zerbitzu-zorroko zerbitzuak ematen dituzten pertsona fisiko edo juridiko pribatuei.

3. Artikulu honetan ezarritako laguntza- eta elkarlan-betebeharrek legez honako hauei buruz ezarritako mugak baino ez dituzte izango: pertsonaren intimitateari, komunikazioen sekretuari edo herri-administrazioei estatistika-xedeetarako bakarrik emandako informazioei buruzkoak, eta datu pertsonalen babesari buruzkoak.

60. artikulua.- Ikuskapen-jarduketen plangintza

1. Ikuskapen-jarduketak ezarritako plangintza eta programazioaren araberakoak izango dira, hargatik eragotzi gabe aparteko salaketen edo proposamenen ondoriozko jarduketak.

2. Eusko Jaurlaritzan enplegu-arloko eskumena duen sailak ikuskapen-plana eta urteko programazioak onartuko ditu. Plan horietan, lortu beharreko helburuak, jardun-eremuak, garatu beharreko ekintzak eta horiek gauzatzeko aurreikusitako epea jasoko dira.

61. artikulua.- Eskainitako zerbitzuak ordezkatzea

1. Ikuskapen-lanak egitean ikusten bada Euskal Enplegu Sarearen zerbitzu-zorroa ez dela kudeatzen lege honetan ezarritako eskakizun eta betebeharren arabera, kalitate-estandarren arabera edo zerbitzuen prestazio-eduki teknikoak betez, orduan enpleguaren arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailak erabaki ahal izango du Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua ordezkatzea, zerbitzuak administrazio edo erakunde arduradunaren kontura ematean.

2. Zerbitzuen emakida ordezteko baldintza hauek bete behar dira:

a) Prestazioaren ardura duen administrazioak edo entitateak ez-betetze larri eta errepikatua egitea, pertsona, entitate eta enpresa erabiltzaileen kalterako.

b) Zerbitzua emateko ardura duen administrazioari edo entitateari aldez aurretik errekerimendua egitea, bete ez diren baldintzak eta betebeharrak, kalitate-estandarrak edo prestazio-eduki teknikoa betetzeko behar diren neurriak har ditzan, egin beharreko zuzenketak adieraziz. Horretarako emandako epea ez da hilabetetik beherakoa izango.

c) Ez-betetzea gertatzen jarraitzea, aurreko apartatuan aipatutako epea igaro ondoren.

d) Enplegu Politika Publikoen Euskal Kontseiluaren aldeko aldez aurreko txostena.

3. Zerbitzuak emateko ordezkapena - ez da zehatzekoa izango - behar den denboran luzatuko da, harik eta egiaztatzen den arte zerbitzua emateko ardura duen administrazioak edo erakundeak hartu dituela arreta-maila betetzen dela bermatzeko neurri egokiak, eta betetzen direla betetzen ez ziren baldintzak eta betebeharrak, kalitate-estandarrak edo prestazio-eduki teknikoa.

Zerbitzua emateko ardura duen administrazioak edo erakundeak proposatutako neurriek Enplegu Politika Publikoen Euskal Kontseiluaren aldeko txostena izan beharko dute.

4. Ez-betetzearen erantzulea Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua bada, enpleguaren arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailak erakunde horretako administrazio-kontseiluari helaraziko dio aurkitutako ez-betetzeei buruzko txosten zehatza, lege honetan eta lege hau garatzeko araudian xedatutakoa bermatzeko neurri zuzentzaileak berehala har daitezen.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko administrazio-kontseiluak proposatutako neurriek Enplegu Politika Publikoen Euskal Kontseiluaren aldeko txostena izan beharko dute.

5. Artikulu honetan xedatutakoak ez die kalterik egingo Euskal Enplegu Sarearen zorroko zerbitzuak kudeatzeko hitzarmenen eta kontratuen indarrez hartutako betebeharrak eta konpromisoak ez betetzeagatik aplikatzekoak diren ondorioei, baldin hitzarmen eta kontratu horiek izenpetu badira, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 188. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoaren arabera. Lege horren bidez, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten da Espainiako ordenamendu juridikora.

IV. TITULUA

ENPLEGU-POLITIKA PUBLIKOEN ESKUMENAK, GOBERNANTZA, PLANGINTZA, PARTAIDETZA ETA FINANTZAKETA

I. KAPITULUA

ESKUMENAK

62. artikulua.- Eusko Jaurlaritza

1. Eusko Jaurlaritzari dagokio eskumen hauek egikaritzea:

a) Araudia, enpleguaren arloko lege-aurreproiektuak egiteko eta erregelamenduak egiteko ahala gauzatzeko, lege hau garatuz eta Estatuak ematen duen lan-arloko legeria betez.

b) Euskal Autonomia Erkidegoko enplegu-politika publikoak diseinatzea eta planifikatzea, hargatik eragotzi gabe foru-aldundiek eta udalerriek gai horretan esleituta duten eskumena.

Horretarako, enplegu-politika publikoen gidalerro estrategikoak definitzea eta Enpleguaren Euskal Estrategia zein Enpleguaren Euskadiko hiru urteko Plana onartzea dagokio.

c) Laneko prestakuntza planifikatzea eta programatzea, Lanbide Heziketako Euskal Planaren esparruan eta Lanbide Heziketa Koordinatzeko Organo Gorenaren jarraibideen arabera.

Foru-aldundiek eta udalerriek programatutako prestakuntza jasoko du, halakorik egin badute.

d) Enplegua sustatzeko ekintzak eta enplegagarritasuna eta okupagarritasuna hobetzeko programa osagarriak garatzea, Enplegu Politika Publikoen Euskal Kontseiluaren proposamenak kontuan hartuta.

e) Euskal Enplegu Sarearen prospekzio, informazio eta kudeaketarako tresna komunak diseinatzea eta mantentzea.

f) Euskal Enplegu Sarearen zerbitzu-zorroa zehaztea eta kudeatzea.

g) Euskal Enplegu Sarea ikuskatu eta kontrolatzea

h) Enpleguaren arloko ikerketa eta berrikuntza.

i) Lanaren, enpleguaren eta laneko prestakuntzaren esparruan lan-arloko legeria betearaztearen arloan sartzen den eta beste erakunde batzuei esleitzen ez zaien beste edozein.

2. Eusko Jaurlaritzaren eskumenak enpleguaren arloan eskumena duen sailaren bitartez gauzatuko dira, c), d) eta e) apartatuetan ezarritakoak eta Euskal Enplegu Sarearen zerbitzu-zorroaren kudeaketa izan ezik, horiek egikaritzea Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari baitagokio; nolanahi ere, foru-aldundiek eta udalerriek beren gain hartutakoak ere egon daitezke.

Halaber, enpleguaren arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailak eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak partekatuko dute enpleguaren arloan ikertzeko eta berritzeko eskumena.

63. artikulua.- Foru-aldundiak

1. Lurralde historiko bakoitzeko foru-aldundiari dagokio eskumen hauek egikaritzea:

a) Lurraldeko enplegu-planak onartzea, hala behar badu. Plan horiek Enpleguaren Euskal Estrategian xedatutakoari egokitu beharko zaizkio.

b) Bazterketa-arriskuan edo -egoeran dauden pertsonentzako gizarte- eta lan-eremua garatzea, bai eta lurraldearen garapen ekonomiko eta sozialari bereziki lotutako enplegua sustatzeko ekintzak ere, eta kolektibo horiek aktibatzeko eta gizarteratzeko programa integralak onartzea, Enplegu Politika Publikoen Euskal Kontseiluaren proposamenekin bat etorriz.

Nolanahi ere, apartatu honetan xedatutakoak gorabehera, Eusko Jaurlaritzaren eskumenak bete beharko dira.

2. Lurralde historiko bakoitzeko foru-aldundiak Euskal Enplegu Sarearen zerbitzu-zorroko zerbitzuak kudeatu ahal izango ditu, 48. artikuluan ezartzen den bezala.

64. artikulua.- Udalerriak

1. Udalerriei dagokie, eskumen propio gisa, enplegurako eta toki-garapenerako planak onartzea —plan horiek Enpleguaren Euskal Estrategian xedatutakora egokitu beharko dira—, eta jarduera ekonomikoa eta enplegu-sorrera suspertzeko ekintzak programatzea.

Esparru horretan, udalerriaren garapen sozial eta ekonomikoari lotutako enplegua sustatzeko ekintzak garatu ahal izango dituzte, bai eta baztertuta dauden edo baztertuta geratzeko arriskuan dauden pertsonak gizarteratzera eta laneratzera bideratutakoak ere, Enplegu Politika Publikoen Euskal Kontseiluaren proposamenekin bat etorriz eta foru-aldundien eta Eusko Jaurlaritzaren eskumenak bazter utzi gabe. 2. 48. artikuluan aurreikusitako Euskal Enplegu Sarearen zerbitzu-zorroko zerbitzuak kudeatu ahal izango dituzte.

II. KAPITULUA

GOBERNANTZA

65. artikulua.- Gobernantza

1. Enplegu-politika publikoen gobernantza Eusko Jaurlaritzari (62. artikuluan ezarritakoaren arabera), Enplegu Politika Publikoen Euskal Kontseiluari eta Elkarrizketa Sozialerako Mahaiari dagokie.

2. Printzipio hauek gidatuko dute gobernantza: partaidetza, plangintza estrategikoa, arrazionalizazioa, koordinazioa, ebaluazioa eta gardentasuna.

66. artikulua.- Enplegu Politika Publikoen Euskal Kontseilua

1. Enpleguaren arloan Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioen koordinazio, partaidetza eta lankidetzarako organo gorena da Enplegu Politika Publikoen Euskal Kontseilua.

2. Bere eskumenak egikaritzeko autonomia organikoa eta funtzionala du.

Aurrekontu-ondorioetarako, enpleguaren arloko eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailari atxikita dago.

3. Enplegu Politika Publikoen Euskal Kontseilua lege honek eta bere funtzionamendu-erregelamenduak arautuko dute, eta, haiek aurreikusten ez dituzten gaietan, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legean kide anitzeko organoentzat xedatutakoak eta Euskal Sektore Publikoko maiatzaren 12ko 3/2022 Legeak xedatutakoak.

67. artikulua.- Enplegu Politika Publikoen Euskal Kontseiluaren osaera

1. Enplegu Politika Publikoen Euskal Kontseilua lehendakariak izendatutako hamabi kidek osatuko dute. Kide horiek Eusko Jaurlaritza, foru-aldundiak eta udalerriak ordezkatuko dituzte, banaketa honen arabera:

a) Eusko Jaurlaritza ordezkatzen duten sei kide; horien artean egongo dira, betiere, enplegu, hezkuntza, inklusio eta lehiakortasunaren arloetan eskumena duten sailetako titularrak eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusia.

Ordezkaritza osatu arteko gainerako kideak enpleguaren arloan eskumena duen saileko goi-karguak izango dira, eta saileko titularrak izendatuta proposatuko dira.

b) Hiru kide, foru-aldundi bakoitzaren ordezkari; foru-diputatuak izan beharko dute, beti.

c) Hiru kide, udalerriak ordezkatuz, ezarpen handiena duen euskal udalen elkarteak proposatuta.

Izendapen horrek tamaina guztietako udalerrien ordezkaritza bermatuko du; hortaz, udal-ordezkariek 10.000 biztanletik beherako udalerrietako hautetsiak, 10.000 eta 50.000 biztanle bitarteko udalerrietakoak eta 50.000 biztanletik gorako udalerrietakoak izan beharko dute.

2. Enpleguaren arloan eskumena duen saileko titularra izango da Enplegu Politika Publikoen Euskal Kontseiluko lehendakaria.

3. Kideak izendatzerakoan, gizonen eta emakumeen presentzia orekatua sustatuko da, karguaren ondorioz kide direnei kalterik egin gabe.

4. Enplegu Politika Publikoen Euskal Kontseiluaren funtzionamendu-erregelamenduak laguntza teknikorako batzorde tekniko bat eratzea aurreikusi ahal izango du. Batzorde hori, hala badagokio, Enplegu Politika Publikoen Euskal Kontseiluaren kide kopuru berarekin eta ordezkaritza berdinarekin osatuko da, eta gizonen eta emakumeen presentzia orekatua bermatu beharko da. Bertako kideek zuzendari-maila izango dute gutxienez, eta, udalerrien kasuan, ezarpen handieneko euskal udalen elkarteak proposatuta izendatuko dira, elkarteak ezartzen dituen irizpideen arabera.

68. artikulua.- Enplegu Politika Publikoen Euskal Kontseiluaren eginkizunak

1. Enplegu Politika Publikoen Euskal Kontseiluak eginkizun hauek izango ditu:

a) Enpleguaren arloko xedapen orokorrei buruzko txostenak egitea.

b) Euskal Autonomia Erkidegoko enplegu-politika publikoen ildo estrategikoak proposatzea.

c) Enpleguaren Euskal Estrategia eta Enpleguaren Euskadiko hiru urteko Plana egiten parte hartzea.

d) Txostenak egitea, kasuan kasu, foru-aldundiek egiten dituzten lurraldeko enplegu-planei buruz eta enplegurako eta toki-garapenerako planei buruz, 78. artikuluan aurreikusitako baldintzetan.

e) Erakundeen arteko koordinazio-irizpideak zehaztea, enplegu-politika publikoak garatzeko eta Euskal Enplegu Sarearen zerbitzu-zorroa kudeatzeko, eta enplegagarritasuna eta okupagarritasuna hobetzeko programa osagarriak, lege honetan ezarritako eskumen-banaketaren arabera.

f) Euskal Enplegu Sarearen mapa proposatzea, Eusko Jaurlaritzak onar dezan. Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak, foru-aldundiek, udalerriek eta haien sektore publikoetako entitateek eskatzen zaien informazioa eman beharko dute.

g) Enplegua sustatzeko ekintza koordinatuak proposatzea, lan duina sortzera eta mantentzera eta okupagarritasuna hobetzera bideratuak, lan-merkatuaren egoera eta etorkizuneko aurreikuspenak kontuan hartuta.

Horretarako, Enplegu Politika Publikoen Euskal Kontseiluak zerga-arloko neurriak hartzea proposatzen duenean, proposamena Zerga Koordinaziorako organora bidaliko du, Zerga Harmonizazio, Koordinazio eta Lankidetzako maiatzaren 30eko 3/1989 Legearen 17. artikuluan aurreikusitako ondorioetarako.

h) Enplegu-politika publikoekin lotutako gaiei buruzko proposamenak eta gomendioak egitea Eusko Jaurlaritzari, foru-aldundiei eta udalerriei.

i) Lan-merkatuaren egoerari buruzko informazioa aztertzea eta sektoreko eta sektorearteko azterlanak eta ikerketak egitea proposatzea.

j) Eusko Jaurlaritzak Enplegu eta Inklusio Politiken Ebaluazio, Ikerketa eta Berrikuntza Organoaren titularra izendatu aurretik, titularrik ez dagoelako edo kanpoan edo gaixorik dagoelako haren ordez jardungo duen edo duten pertsonaren edo pertsonen berri ematea; berdin titularra lanpostutik mugiarazten duten kasuetan ere, betiere Inklusiorako eta Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren Legean ezarritako kasuetan.

k) Txostena egitea 61. artikuluan aipatzen diren zerbitzuak ematean ordezkapenak egiten diren kasuetan.

2. Bere eginkizunak betetzean, enplegu-politika publikoak eta produkzio-sarearen, lanbide-heziketaren eta gizarteratze-politiken jarduera, berrikuntza eta lehiakortasuna hobetzeko politikak koordinatzen direla zainduko du.

Horretarako, txostena egingo du Eusko Jaurlaritzaren plan estrategikoei eta sailetako planei buruz eta enplegu-politika publikoetan eragina duten xedapen orokorrei buruz.

3. Enplegu-arloko plangintzari dagokionez, Enplegu Politika Publikoen Euskal Kontseiluak baloratuko du, kasuan kasu, foru-aldundiek egiten dituzten lurraldeko enplegu-planak eta enplegurako eta toki-garapenerako planak Eusko Jaurlaritzak onartutako jarraibide estrategikoetara egokitzen diren, eta ea bat datozen eta bateragarriak diren Enpleguaren Euskal Estrategiarekin eta ezarritako koordinazio-irizpideekin.

69. artikulua.- Erabakien araubidea

1. Koordinazio-eginkizunak betetzean, Enplegu Politika Publikoen Euskal Kontseiluaren erabakiak bete beharrekoak izango dira.

2. Plangintza-tresnak Enpleguaren Euskal Estrategiarekin eta ezarritako koordinazio-irizpideekin bat datozen eta bateragarriak diren argitzeko aholkularitza-eginkizunak betetzen dituenean, haren iritzia loteslea izango da.

3. Gainerako kasuetan, proposamenak, gomendioak eta aurreko artikuluaren 2. paragrafoan aipatzen den txostena barne, haien iritzia ez da loteslea izango, baina dagokion administrazioak arrazoitu egin beharko du zergatik baztertu duen egindako proposamena edo gomendioa.

4. Erabakiak gehiengo soilez hartuko dira, eta lehendakariak kalitateko botoa izango du.

70. artikulua.- Aholkularitza, laguntza teknikoa eta administratiboa

1. Enplegu Politika Publikoen Euskal Kontseiluak aholkularitza guztiak eskatu ahal izango ditu, enplegu-politika publikoak osatzen dituzten zeinahi arlotan adituak direnen aholkularitza barne, eta bere eginkizunak betetzeko beharrezkotzat jotzen dituzten datuak eskatu ahal izango dizkiote Euskal Autonomia Erkidegoko, foru-aldundietako eta udalerrietako edozein organori.

2. Eusko Jaurlaritzak, enpleguaren arloan eskumena duen sailaren bitartez, esleituta dituzten eginkizunak betetzeko behar duten laguntza tekniko eta administratiboa bermatuko die Enplegu Politika Publikoen Euskal Kontseiluari eta Enpleguko Batzorde Teknikoari.

71. artikulua.- Elkarrizketa Sozialerako Mahaia

1. Elkarrizketa Sozialerako Mahaia gizarte-eragileek enplegu-politika publikoen gobernantzan parte-hartze instituzional etengabea izateko organoa da.

2. Hirukoa da. Haren osaera eta funtzionamendua Euskal Autonomia Erkidegoan Elkarrizketa Sozialerako Mahaia sortzeko urtarrilaren 15eko 3/2019 Dekretuan edo hura ordezten duen arauan xedatutakoaren arabera arautuko da.

72. artikulua.- Elkarrizketa Sozialerako Mahaiaren eginkizunak

1. Lege honen ondorioetarako, eginkizun hauek dagozkio Elkarrizketa Sozialerako Mahaiari:

a) Negoziazioa eta kontzertazioa sustatzea eta bultzatzea enplegu-politika publikoetan, barne hartuz lan-harremanetan eta negoziazio kolektiboan eragina duten politika publikoak.

b) Euskal Autonomia Erkidegoko enplegu-politika publikoen ildo estrategikoen definizioa hitzartzea.

c) Enpleguaren Euskal Estrategia eta Enpleguaren Euskadiko hiru urteko Plana hitzartzea eta ebaluazioan parte hartzea.

d) Enplegu-politika publikoetan eragiten duten politika sektorialak definitzeko gomendioak egitea eta irizpideak, jarraibideak eta printzipioak proposatzea.

e) Gomendioak ematea eta irizpideak, gidalerroak eta printzipioak proposatzea enplegu-politika publikoetan eragina duten politika sektorialak definitzean.

f) Lan-merkatuaren egoerari buruzko informazioa aztertzea eta enplegu-politika publikoetan eragina duten azterlan eta ikerketa sektorialak eta sektoreartekoak egin daitezen proposatzea, 68.1.i) artikuluan xedatutakoari kalterik egin gabe.

2. Aurreko paragrafoko a) eta b) apartatuetan aipatzen diren eginkizunak garatuko dira Enplegu Politika Publikoen Euskal Kontseiluak 68.1.b) eta c) artikuluetan aurreikusitako eginkizunak betez egindako proposamenetan oinarrituta.

Erregelamendu bidez ezarriko da Gizarte Elkarrizketako Mahaiak Euskal Autonomia Erkidegoko enplegu-politika publikoen, Enpleguaren Euskal Estrategiaren eta Euskadiko Enpleguaren Hiru Urteko Planaren jarraibide estrategikoak lantzeko fase bakoitzean esku hartzeko prozedura, Eusko Jaurlaritzak behin betiko onartu arte.

3. Elkarrizketa Sozialerako Mahaian akordiorik ez lortzea ez da eragozpen izango arau-xedapenak izapidetzeko, ez eta Eusko Jaurlaritzak enplegu-politika publikoen gidalerro

estrategikoak, Enpleguaren Euskal Estrategia edo Enpleguaren Euskadiko hiru urteko Plana onartzeko ere.

4. Elkarrizketa Sozialerako Mahaiaren gomendioak, proposamenak eta erabakiak Eusko Jaurlaritzari eta Enplegu Politika Publikoen Euskal Kontseiluari helaraziko zaizkie, bai eta, enplegu-politika publikoekin duten loturagatik eta gizarte-eragileek horietan duten ordezkaritzagatik, erregelamenduz zehazten diren kide anitzeko partaidetza- edo gobernu-organoei ere.

III. KAPITULUA

PLANGINTZA

73. artikulua.- Plangintza

1. Enplegu-politika publikoak hauen arabera garatuko dira: batetik, Eusko Jaurlaritzak onartutako ildo estrategikoak, Enpleguaren Euskal Estrategia eta Enpleguaren Euskadiko hiru urteko Plana eta, bestetik, foru-aldundiek onartzen dituzten lurraldeko enplegu-planak; eta, toki-eremuan, enplegurako eta toki-garapenerako planen eta jarduera ekonomikoa eta enplegu-sorrera suspertzera bideratutako ekintzen programazioaren arabera egingo dira. Lan duina izateko eskubidea gauzatzeko helburua bete beharko dute, 3.3 artikuluan xedatutakoaren arabera.

2. Lurralde historiko bati lotutako lurraldeko enplegu-planak aukerakoak izango dira.

Hala badagokio, lurraldeko enplegu-planen edukiak 77.2 artikuluan xedatutakoa errespetatuko du. Plan horiek egiteko, kasuan kasuko lurralde historikoan dauden eragile sozial eta ekonomikoen parte-hartze eraginkorra bermatuko da. 3. Plan horiek diseinatzeko eta egikaritzeko, Emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko otsailaren 18ko 4/2005 Legean xedatutakoari jarraituko zaio.

74. artikulua.- Enpleguaren Euskal Estrategia

1. Enpleguaren Euskal Estrategia Euskadiko enplegu-politika publikoen definizio estrategikoa eta koordinazioa egiteko tresna da.

Formulazioan, Eusko Jaurlaritzak ezarritako enplegu-politika publikoen eta politika ekonomikoaren gidalerroak hartuko ditu kontuan, bai eta enpleguari buruzko Europako eta Estatuko gidalerro estrategikoak ere.

2. Eusko Jaurlaritzari dagokio Enpleguaren Euskal Estrategia onartzea, Enplegu Politika Publikoen Euskal Kontseiluaren eta Elkarrizketa Sozialerako Mahaiaren parte-hartzearekin, 68. eta 72. artikuluetan aurreikusitako baldintzetan, eta Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialari buruzko maiatzaren 12ko 6/2016 Legearen 7.3 artikuluan xedatutakoa errespetatuz.

3. Sei urtez egongo da indarrean, baina berrikuspenak eta aldaketak egin ahal izango dira.

75. artikulua.- Enpleguaren Euskal Estrategiaren edukia

1. Enpleguaren Euskal Estrategiak EAEko administrazioen orientabideak eta ekintza-esparrua finkatuko ditu, hauek hobetu daitezen: lan munduan sartzea, pertsonen gaikuntza, pertsonen inklusioa eta aukera-berdintasuna –bereziki lehentasunezko arreta behar duten kolektiboena–, espiritu ekintzailea, enpresen lehiakortasuna eta moldagarritasuna, enpleguaren kalitatea eta lan-merkatuaren funtzionamendu optimoa.

2. Bereziki, eduki hauek izango ditu:

a) Euskal Autonomia Erkidegoko enpleguaren egoerari eta kalitateari buruzko diagnostikoa egitea, giltzarri diren ebaluazio-adierazle sozial eta enpleguari lotutakoak abiapuntu hartuta.

b) Euskal Autonomia Erkidegoko enplegu-politika publikoen lehentasun eta helburu estrategiko zehatzak ezartzea, haien bilakaera baloratu ahal izateko, bai eta plangintza estrategikoa eta neurriak ezartzeko denboralizazioa ere.

c) Programa eta helburu ebaluagarriak definitzea une bakoitzean identifikatzen diren lehentasunezko arretako kolektiboei dagokienez, horien okupagarritasuna hobetzera bideratuta.

d) Programa eta helburu ebaluagarriak definitzea laneko segurtasun eta osasunarekin lotuta, lan-istripuen kopurua murrizteko eta lanbide-gaixotasunen jarraipen egokia egiteko; istripuen eta lanbide-gaixotasunen intzidentzia-tasetan oinarrituta, balorazioa eta jarraipena egin ahal izateko, eta, era berean, langile autonomoek izan ditzaketen lan-arriskuei eta sortzen ari diren lan-arriskuei erantzuteko.

e) Euskal Enplegu Sarearen bulegoek zerbitzuen kalitatea bermatzeko behar adina giza baliabide eta baliabide material dituzten aztertzea.

f) Prospekzio, informazio eta kudeaketarako tresna komunen funtzionamendua, emaitzak eta kalitatea ebaluatzea, eta, hala badagokio, tresna komun berriak definitzea.

g) Enpleguaren arloko ekintza estrategikoak eta ikerketa- eta berrikuntza-programak identifikatzea eta finantzatzea.

h) Adierazle kuantifikagarrien, sozialen eta enplegukoen taula bat ezartzea, aukera egon dadin emaitzen jarraipena egiteko, berrikusteko, egokitzeko eta, hala badagokio, aldatzeko, bai eta indarraldia amaitzean ebaluatzeko ere.

i) Enpleguaren Euskal Estrategiaren oinarri den finantza-esparrua definitzea.

76. artikulua.- Enpleguaren Euskadiko hiru urteko Plana

1. Enpleguaren Euskadiko hiru urteko Plana Euskal Autonomia Erkidegoan enplegu-politika publikoen plangintza operatiboa egiteko tresna da. Enpleguaren Euskal Estrategian jasotako orientazioak, jarraibideak eta helburuak zehazten ditu, eta Eusko Jaurlaritzaren ekintza-programa biltzen du, bai eta foru-aldundiek enplegu-arloan dagokion aldian gauzatuko dituzten ekintzen eta programa integralen programazioa ere, lan duinerako eskubidea gauzatzeko helburuarekin.

2. Eusko Jaurlaritzari dagokio plana onartzea, Enplegu Politika Publikoen Euskal Kontseiluaren parte-hartzearekin, 68. eta 72. artikuluetan ezarritako baldintzetan.

3. Enpleguaren Euskadiko hiru urteko Planak, gutxienez, eduki hauek izango ditu:

a) Jarduketaren helburu kuantitatiboak eta kualitatiboak, lehentasunak eta lehentasunezko arreta behar duten kolektiboak.

b) Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak, foru-aldundiek eta udalek, bakoitzak dagokion eskumen-esparruan eta behar bezala koordinatuta, garatu beharko dituzten lan duina aktibatu, sustatu eta bultzatzeko eta lan-segurtasun eta -osasuneko zerbitzu, programa, ekintza eta politikak identifikatzea, eta irizpideak eta jarduketa-esparruak ezartzea.

c) Zeregin bakoitza egikaritzeko epea.

d) Ebaluazio-adierazleak.

e) Plana egikaritzeko finantzaketa.

4. Egikaritzea amaitzen denean, etengabeko jarraipena eta ebaluazioa egingo zaizkio.

77. artikulua.- Enplegurako eta toki-garapenerako planak

1. Enplegurako eta toki-garapenerako planak tokiko eremuko enplegu-politika publikoak planifikatzeko tresnak dira, eta jarduera ekonomiko eta soziala suspertzera eta, hala badagokio, eraldatzera bideratuta daude, hazkundea eta lan duina sortzeko helburua izanik, dauden baliabideak eta lurralde-testuinguruaren aukerak kontuan hartuta.

2. Gutxienez, eduki hauek jasoko dituzte:

a) Udalerriaren edo udalerrien egoera sozioekonomikoaren eta enplegu-egoeraren diagnostikoa, premien azterketa eta enplegu-aukeren identifikazioa barne.

b) Udalerriaren edo udalerrien prestakuntza-beharrak aztertzea eta, hala badagokio, titulazio, egiaztapen edo ziurtagiri ofiziala lortzeko ez diren laneko prestakuntza-programak diseinatzea, enpresen beharrekin behar bezala koordinatuta eta 48. artikuluan xedatutakoaren arabera.

c) Enplegagarritasuna hobetzearekin, lurraldea dinamizatzearekin eta garapen sozioekonomikoaren lotutako helburuak.

d) Langabeei, lehentasunezko arreta behar duten kolektiboei eta bazterketa-egoeran edo -arriskuan daudenei zuzendutako proiektuak, haien okupagarritasuna hobetuko dutenak, identifikatzea, eta, horiekin batera, tokiko ekonomia indartzea eta hazkundearen, pobrezia murriztearen eta inklusioaren helburuak lortzen eta lan duina sortzen eta mantentzen laguntzen duten bestelako proiektuak ere bai.

e) Udalerriaren garapenerako onuragarriak diren eta enplegua hobe dezaketen eragile eta baliabideak dinamizatzeko, mobilizatzeko eta lankidetzan aritzeko ekintzak, eta dauden harreman-sareen arteko interakzioa.

f) Hala badagokio, Euskal Enplegu Sarearen zerbitzu-zorroko zerbitzuak ezartzea eta kudeatzea, printzipio hauetan justifikatuta: herritarrekiko hurbiltasuna, subsidiariotasuna, osagarritasuna eta bikoiztasunik eza.

g) Planak egikaritzeko finantzaketa.

h) Ebaluazio-adierazleak.

3. Planak egiteko, dagokion lurralde-eremuan dauden eragile sozial eta ekonomikoen parte-hartze eraginkorra bermatu beharko da, bai eta planean eragina duten eskumenak eta funtzioak dituzten erakunde eta entitate publikoena ere, entitate bakoitzak autoantolaketa-printzipioaren arabera ezartzen dituen formulen bidez.

4. Egikaritzea amaitzen denean, etengabeko jarraipena eta ebaluazioa egingo zaizkie enplegurako eta toki-garapenerako planei.

78. artikulua.- Enplegurako eta toki-garapenerako planak onartzera behartuta dauden udalerriak eta toki-entitateak

1. Enplegurako eta toki-garapenerako planak onartzera behartuta egongo dira udalerri eta toki-entitate hauek:

a) 10.000 biztanle baino gehiago dituzten udalerriak.

b) Guztira 10.000 biztanle baino gehiago dituzten udalerriak biltzen dituzten kuadrillak.

c) Enplegua eta toki-garapena sustatzeko zerbitzuak denen adostasunez ematea beren gain hartzen duten estatutuak dituzten mankomunitateak, baldin eta udalerri mankomunatuek 10.000 biztanle baino gehiago badituzte guztira.

d) Aurreko paragrafoan aipatutako baldintzak betetzen dituen elkarte-oinarridun beste edozein toki-entitatek.

e) Bi urte baino gehiagoz jarraian % 10etik gorako langabezia-tasa duten udalerriak eta toki-entitateak.

2. Aurreko paragrafoko a) eta e) apartatuetan aipatzen diren udalerriak kuadrilla, mankomunitate edo beste toki-entitateren batean sartzen direnean, zer toki-entitatetako parte diren aipatu beharko da enplegurako eta toki-garapenerako planetan.

3. Enpleguko eta toki-garapeneko planek behar bezala koordinatuta egon beharko dute Eusko Jaurlaritzak onartutako enplegu-jarraibide estrategikoekin eta Enpleguaren Euskal Estrategiarekin. Horretarako, honako hau eskatuko da:

a) Plana enplegu-jarraibide estrategikoetara eta Enpleguaren Euskal Estrategiara egokitzeari buruzko txostena, dagokion toki-entitateko organo eskudunak onartu aurretik emango dena.

Txosten hori nahitaezkoa izango da 10.000 eta 20.000 biztanle arteko udalerrientzat eta toki-entitateentzat.

b) Politika Publikoen Euskal Kontseiluaren txostena, 20.000 biztanletik gorako udalerrien edo toki-erakundeen enplegurako eta toki-garapenerako planei buruzkoa, 69.2 artikuluan ezarritakoaren arabera arautuko dena.

79. artikulua.- Jarduera ekonomikoa sustatzeko eta enplegua sortzeko ekintzak programatzea

Aurreko artikuluan xedatutakoaren arabera enplegurako eta toki-garapenerako planak egitera behartuta ez dauden udalerriek eta toki-entitateek ekintza-programa bat onartu beharko dute, udalerrian edo dagokion toki-entitatean jarduera ekonomikoa eta enplegu-sorrera sustatzera bideratuta.

Plana egitean, dagokion lurralde-esparruan dauden eragile sozial eta ekonomikoen parte-hartze eraginkorra bermatu beharko da, eta 6. artikuluan aipatzen diren lehentasunezko arreta behar duten kolektiboei arreta ematea justifikatu beharko da.

IV. KAPITULUA

PARTE-HARTZEA

80. artikulua.- Enpleguaren Euskal Foroa

1. Enpleguaren Euskal Foroa enplegu-politika publikoetan parte hartzeko organoa da, enpleguaren arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailari atxikia.

2. Organo horretan ordezkatuta egongo dira Eusko Jaurlaritza, foru-aldundiak eta udalerriak, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua, Euskal Autonomia Erkidegoan ordezkaritza handiena duten sektorearteko erakunde sindikalak eta patronalak, Euskadiko Kooperatiben Konfederazioa, langile autonomoak, Euskadiko lan-sozietateak, enpleguaren arloan esku hartzen duten Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialeko erakundeak, euskal unibertsitate-sistemako unibertsitateak, enplegua aurkitzeko agentziak, klusterrak, lanbide-heziketako zentro integratuak eta prestakuntza-entitateak.

3. Foroaren osaera, kideen izendapena eta antolaketa- eta funtzionamendu-araubidea erregelamendu bidez ezarriko dira, eta, betiere, gizonen eta emakumeen presentzia orekatua bermatu beharko da.

Halaber, lurraldeko enplegu-foroak eratu ahal izango dira, eta kasuan kasuko lurralde historikoa izango dute jarduketa-esparru.

4. Enpleguaren arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako saileko titularrak izendatzen duen sail horretako ordezkaria izango da Enpleguaren Euskal Foroko lehendakari.

5. Enpleguaren Euskal Foroa gutxienez urtean behin bilduko da.

81. artikulua.- Enpleguaren Euskal Foroaren eginkizunak

1. Enpleguaren Euskal Foroak eginkizun hauek ditu:

a) Txostenak egitea Enpleguaren Euskal Estrategiari, Enpleguaren Euskadiko hiru urteko Planari, enplegurako eta toki-garapenerako planei eta, hala badagokio, enpleguaren lurralde-planei buruz.

b) Enpleguaren arloko xedapen orokorrei buruzko txostenak egitea.

c) Lan-merkatuaren egoerari eta Europan eta Estatuan zehazten eta aplikatzen diren enplegu-politika publikoei buruzko informazioa aztertzea.

d) Enpleguaren arloko proposamenak eta gomendioak egitea Enplegu Politika Publikoen Euskal Kontseiluari, Eusko Jaurlaritzari, foru-aldundiei eta udalerriei.

e) Kanpoko adituen iritzia eskatzea, foroari agindu zaizkion eginkizunak betetzeko.

f) Erregelamenduz agintzen zaion beste edozein eginkizun.

2. Lurraldeko enplegu-foroak eratzen direnean, honako eginkizun hauek esleituko zaizkie, gutxienez:

a) Lurraldean jarduten duten enplegu-politika publikoetako eragileen artean informazio-trukea sustatzea.

b) Enpleguaren arloko lankidetzarako lurralde- edo toki-itunak bultzatzea.

c) Enpleguan eragina duten lurralde-garapeneko ekimenak dinamizatzea.

d) Enpresen beharrak aztertzea eta enplegu-aukerak identifikatzea.

V. KAPITULUA
FINANTZAKETA

82. artikulua.- Finantzaketa-iturriak

1. Enplegu-politika publikoen garapena eta Euskal Enplegu Sarearen zerbitzu-zorroaren kudeaketa baliabide hauen kargura finantzatuko dira:

a) Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorrak.

b) Lurralde historikoetako aurrekontu orokorrak.

c) Udal-aurrekontuak edo udalaz gaindiko eremuko toki-entitateen aurrekontuak.

d) Horretara zuzendutako beste edozein ekarpen ekonomiko, betiere ordenamendu juridikoaren babesa badu.

2. Eusko Jaurlaritzak, foru-aldundiek, udalek eta lege honetan aipatzen diren udalaz gaindiko eremuko toki-entitateek lege honetan aurreikusitako eskumenak egikaritzeko behar beste baliabide ekonomiko esleituko dituzte urtero beren aurrekontuetan.

83. artikulua.- Euskal Enplegu Sarearen zerbitzu-zorroa kudeatzeko finantza-lankidetza

1. Aurreko artikuluan xedatutakoari kalterik egin gabe, Eusko Jaurlaritzak finantza-lankidetzarako mekanismo egonkorrak ezarriko ditu Euskal Enplegu Sarearen zerbitzua-zorroa kudeatzen duten udalerriekin edo udalaz gaindiko eremuko erakundeekin, betiere Euskal Enplegu Sarearen maparekin bat etorrita egiten badute kudeaketa.

2. Zerbitzuak ematean kalitatea, eraginkortasuna eta efizientzia bermatzera zuzenduko da finantza-lankidetza; lurralde-oreka zaindu, eta aurrekontu-egonkortasunaren eta finantza-jasangarritasunaren printzipioei erantzungo die, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 111. artikuluan ezarritako moduan.

3. Erregelamendu bidez zehaztuko dira finantza daitezkeen kontzeptuak eta kostuak, hartzaileak, finantzaketa-irizpide orokorrak, finantza-partaidetzaren mugak, izapidetzea, zenbatekoak eguneratzeko prozedura, ordaintzeko modua eta gastua justifikatzeko modua.

4. Aurreko paragrafoan aipatutako lankidetza, ahal dela, urte anitzeko lankidetza-hitzarmenen bidez egituratuko da, eta hitzarmen horiek amaiera emango diote prozedurari. Lankidetzaren iraupena ezin izango da lau urtetik gorakoa izan, eta aukera izango da denboraldi bererako luzapen bat gehitzeko, behin bakarrik. Epe hori amaitzean, finantza-lankidetzarako beste mekanismo bat ezarri ahal izango da.

Ordezko gisa aplikatuko dira Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuan ezarritako laguntzen eta dirulaguntzen araubide juridikoa eta dirulaguntzen arloko Estatuko araudia.

V. TITULUA

EUSKAL ENPLEGU SAREAREN ZERBITZU-ZORROAREN ETA ENPLEGU-POLITIKA PUBLIKOEN IKERKETA, BERRIKUNTZA ETA EBALUAZIOA

84. artikulua.- Ikerketa eta berrikuntza

1. Enpleguaren arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailak eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak ikerketa, diseinu eta berrikuntza aplikatuko programak bultzatuko dituzte, bai eta programa horiek modu esperimentalean praktikan jartzea ere, orientazioaren, prospekzioaren, lan-bitartekaritzaren, ekintzailetzaren eta enplegurako garrantzitsuak diren beste ekintza-arlo batzuen esparruan.

Era berean, jardunbide egokien analisia eta ikerketa sustatuko dute, bai eta diagnostikoa, autodiagnostikoa eta informazioa lortzeko tresna berrien diseinua, eta laneko prestakuntza-, ekintzailetza- edo orientazio-ereduak eta horien aplikazio esperimentala ere, aholkularitza tekniko espezializatua baliatuta.

2. Aurreko paragrafoan aipatutako programa eta ekintzek sustatu egingo dute pertsona, entitate eta enpresa erabiltzaileen eta, hala badagokio, Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialeko entitateen parte-hartzea. Programa eta ekintza horiek urtero ebaluatuko dira, baloratzeko ea egokia den ikerketaren eta berrikuntzaren emaitzak enplegu-politika publikoen plangintzara eta Euskal Enplegu Sarearen zerbitzu-zorroaren definiziora eta kudeaketara eta programa osagarrietara transferitzea.

3. Programazio operatiboaren esparruan, Enpleguaren Euskadiko hiru urteko Planak dagokion aldirako aurreikusitako ikerketa eta berrikuntza aplikatuko ekintzak identifikatuko ditu, baita ekintza horiek ezartzeaz arduratuko diren eragileak eta egiturak ere.

Eusko Jaurlaritzan enplegu-arloko eskumena duen sailak eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak aurreikusitako ikerketa eta berrikuntza aplikatuko proiektuak barne hartuko ditu beti.

4. Enplegu-politika publikoen arloan eskumena duten beste erakunde batzuekin lankidetza-sareak ezartzea sustatuko da, ikerketaren emaitzen transferentzia errazteko, 2. paragrafoan aurreikusitako moduan.

85. artikulua.- Ebaluazioa

1. Enplegu-politika publikoen emaitzak, kalitatea eta kudeaketa-egituren eragina ebaluatuko dira.

Era berean, Euskal Enplegu Sarearen zerbitzu-zorroa eta programa osagarriak ebaluatuko dira, eta, horretarako, zerbitzuen eta programen trazabilitatea hasieratik bermatuko da, eta haien eragina, lortutako emaitzak, prestazioaren eraginkortasuna eta efizientzia eta kalitatea aztertzen saiatuko da.

Ebaluazioan, ondorioak eta gomendioak bilduko dira, enplegu-politika publikoak, politika horien plangintza eta Euskal Enplegu Sarearen zerbitzu-zorroaren eta programa osagarrien definizioa eta kudeaketa hobetze aldera.

2. Ebaluazioa bi urtean behin egingo da, eta enpleguaren arloan eskumena duten erakundeei, Enplegu Politika Publikoen Euskal Kontseiluari, Elkarrizketa Sozialerako Mahaiari, Enpleguaren Euskal Foroari eta Euskal Enplegu Sareko entitateei bidaliko zaie. Erakunde horiek ebaluazioen emaitzei kasu egin beharko diete beren eginkizunak betetzean, eta, hala badagokio, gomendioak baztertzeko arrazoiak eman beharko dituzte.

Era berean, Eusko Legebiltzarrari ere jakinaraziko zaio.

3. Ebaluazioa publikoa izango da, eta eskuragarri egongo da Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren, foru-aldundien, udalerrien, udalaz gaindiko eremuko toki-entitateen, Euskal Enplegu Sareko entitateen, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren eta ebaluazioa egiteko ardura duen organoaren egoitza elektronikoetan.

4. Enplegu eta Inklusio Politiken Ebaluazio, Ikerketa eta Berrikuntza Organoari dagokio ebaluazioa egitea.

VI. TITULUA

LANBIDE-EUSKAL ENPLEGU ZERBITZUA

86. artikulua.- Izaera, egoitza eta araubide juridikoa

1. Nortasun juridiko propioa duen zuzenbide pribatuko ente publikoa da Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua. Bere helburuak betetze aldera jarduteko gaitasun osoa du, eta enplegu-arloko eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailari atxikita dago.

2. Vitoria-Gasteizen du egoitza nagusia, baina beste egoitzaren bat ezar dezake Euskal Autonomia Erkidegoko edozein udalerritan, beharrezkoa baldin bada esleituta dituen zerbitzuen prestazio egokia ziurtatzeko.

3. Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua arautuko dute lege honetan eta Euskal Sektore Publikoaren maiatzaren 12ko 3/2022 Legean zuzenbide pribatuko ente publikoentzat xedatutakoak, eta Lanbideren beraren estatutuek. Estatutu horiek Eusko Jaurlaritzaren dekretu bidez onartuko dira, enpleguaren arloan eskumena duen sailak proposatuta.

4. Hirugarrenekiko harremanetan eta beren jarduera garatzean, zuzenbide pribatuak arautuko du.

Nolanahi ere, administrazio-zuzenbidearen mende egongo da administrazio-ahala egikaritzean, barne-funtzionamenduan eta organoen borondatea eratzean, bai eta ondare-araubideari dagokionez eta bere zerbitzuen funtzionamendua dela-eta hirugarrenen aurreko ondare-erantzukizunari dagokionez ere, eta lege honetan zein beste batzuetan ezarritako gainerako gaietan ere.

87. artikulua.- Helburuak eta jarduteko printzipioak

1. Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren helburuak dira lan duina izateko eskubidea erabat garatzen laguntzea, langileen enplegagarritasuna efizientziaz bermatzeko moduko lan-merkatua eratzearen alde egitea, enpresen eskakizunei egokitutako langile-premiak asetzea, eta gizarte- eta lurralde-kohesioa bultzatzea.

2.- Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak 5. eta 45. artikuluetan aurreikusitako printzipioetara egokituko du bere jarduketa, bere zerbitzuak erabiltzen dituzten pertsona eta enpresentzako arreta-sistemen modernizazioa sustatuko du, informazioaren eta komunikazioaren teknologia berriak sartzea sustatuko du (horiek irisgarriak izango dira desgaitasuna duten pertsonentzako), eta gizarte-babes egokia bermatuko du.

3. Aurreko paragrafoan xedatutakoaren ondorioetarako, ziurtagiri elektronikoak erabiliko ditu dokumentuak administrazio-prozedura erkidearen araudian ezarritako moduan identifikatu eta sinatzeko, bai eta, hala badagokio, autentifikatzeko beste prozedura batzuk edo sistema biometrikoak ere, zerbitzuen erabiltzaileak eta prestazioen onuradunak identifikatzeko. Ziurtagiri horiek desgaitasuna duten pertsonentzako irisgarritasuna bermatu beharko dute.

Azken sistema horiek erabiltzea bidezkoa izango da, baldin eta ezin badira identifikatu nortasun-agiri nazionalaren, identifikazio-fiskaleko zenbakiaren, atzerritarren identifikazio-zenbakiaren, atzerritarren identifikazio-txartelaren edo identifikazio-agiri baliokidearen bidez, eta justifikatu egin beharko da pertsonak modu unibokoan eta fede-emailean identifikatu behar direla. Izan ere, horrek bidea eman behar du identifikatzeko zailtasunei lotutako eskubideen mugak edo bazterketak kentzeko, eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren prestazio eta zerbitzuen kudeaketa hobetzeko.

Haien tratamenduan, segurtasun- eta berme-neurri egokiak aplikatuko dira, erantzukizun proaktiboaren printzipioaren eta datuak babesteko araudian xedatutakoaren arabera —datuen tratamendua beharrezkoa baino izan ez dadin erabiltzaileak modu unibokoan eta fede-emailean identifikatu ahal izateko—. Gainera, neurri horiek datuak babesteko araudian xedatutakoa bete beharko dute.

88. artikulua.- Eginkizunak

1. Hauek dira Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren eginkizunak Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumen-esparruan:

a) Enplegagarritasuna hobetzeko eskubideak bermatzea eta Euskal Enplegu Sarearen zerbitzu-zorroaren zerbitzuak bermatzea eta kudeatzea, lege honetan ezartzen den gisa.

b) Enplegagarritasuna eta okupagarritasuna hobetzeko programa osagarriez gain, enplegu-programa espezifikoak egitea eta garatzea laneratzeko eta gizarteratzeko zailtasun bereziak dituzten kolektiboentzat eta enplegu duina sortzeko.

c) Lan-merkatuaren beharrak, lanbide-profilen bilakaera, lanbide-eskakizunak eta lan-orientazioa aztertzeko eta informatzeko eginkizun guztiak betetzea, eta Euskal Enplegu Sarea osatzen duten erakundeek erabili beharko dituzten arreta, informazio eta prospekziorako tresna komunak diseinatzea eta mantentzea.

d) Europar Batasunaren Eures Sareari (Europako Enplegu Zerbitzuak) dagozkion eginkizunak gauzatzea.

e) Lan-bitartekaritza kudeatzea, enplegu-zerbitzuen eskatzaileen erregistroa egitea, eta lan-kontratuen komunikazio-erregistroa kudeatzea.

f) Enplegu-programak, laneko prestakuntzakoak, autoenplegua sustatzekoak eta enpresak sortzeko programak kudeatzea.

g) Egiaztatzea ea betetzen diren enplegu-eskatzaile gisa langabezia-prestazioen eskatzaileek edo onuradunek dituzten betebeharrak, eta, hala badagokio, ez-betetzeen berri ematea prestazioak kudeatzen dituen entitateari.

h) Zehatzeko ahala egikaritzea enpleguari eta langabeziari buruzko arloetan, legeria espezifikoan ezarritako moduan.

i) Betekizunak betetzen diren egiaztatzea eta behar diren kontrol- eta ikuskapen-jarduketak egitea Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan diharduten enplegua aurkitzeko agentziei dagokienez.

j) Ikerketa, diseinu eta berrikuntza aplikatuko proiektuak garatzea orientazioaren, prospekzioaren, lan-bitartekaritzaren, ekintzailetzaren eta laneko prestakuntzaren eremuetan, bai eta enplegu-politikaren beste eremu batzuetan ere, eta proiektu esperimentalak kudeatzea, batez ere Europakoak, enplegu-zerbitzuak ematean ikuspegi eta konponbide berriak garatzea ahalbidetzeko.

k) Inklusiorako eta Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren prestazio ekonomikoak izapidetu eta kudeatzea, prestazio horiei lotutako kontrol-, ikuskapen- eta zehapen-ahalak baliatzea, eta inklusiorako tresnak eta zerbitzuak kudeatzea.

l) Zentro- eta entitate-laguntzaileak homologatzeko eta aitortzeko irizpideak ezartzea, bai eta haien funtzionamendua gainbegiratu eta kontrolatzea ere.

m) Laneratze-enpresen erregistroa eta enplegu-zentro berezien euskal erregistroa kudeatzea.

n) Beste zernahi eginkizun garatzea, legeek edo Eusko Jaurlaritzak egozten dizkiotenak edo enplegu- eta inklusio-politiken arloan eskuordetzen edo agintzen zaizkionak.

2. Dagozkion eginkizunak betetzeko, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak behar diren administrazio- eta xedapen-egintzak eta ekonomia- eta finantza-eragiketak egin ahal izango ditu; gainera, hitzarmenak eta kontratuak egin ahal izango ditu, eta bere eskumeneko gaiekin zerikusia duten dirulaguntzak eman eta haien oinarri arautzaileak onartu.

89. artikulua.- Gobernu-organoak

1. Administrazio-kontseilua eta zuzendaritza nagusia dira Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren gobernu-organoak.

2. Administrazio-kontseilua entearen zuzendaritza- eta kontrol-organo gorena da, eta hari dagokio programa-kontratuaren proposamena egitea eta aurrekontu-proiektua onartzea.

Enplegu-arloan eskumen duen Eusko Jaurlaritzaren saileko titularra izango da lehendakaria, eta kalitateko botoa izango du. Lehendakariaz eta zuzendaritza nagusiaz gain, sei kide izango ditu gutxienez eta hamabost gehienez.

Osaerak bermatuko du Euskadin ordezkaritza handiena duten sindikatuek eta sektorearteko enpresaburu-elkarteek hiru aldeko parte-hartze paritarioa izango dutela. Administrazioaren ordezkaritzari dagokionez, enpleguaren arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailari dagokionak izango du gehiengoa.

3. Zuzendari nagusiak bere gain hartzen du erakundearen ohiko zuzendaritza. Eusko Jaurlaritzak izendatuko du, administrazio-kontseiluak proposatuta, eta goi-karguduna izango da.

90. artikulua.- Estatutuak

1. Eusko Jaurlaritzak Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren estatutuak onartuko ditu dekretu bidez. Estatutu horietan, gobernu-organoen eginkizunak, osaera eta izendapena, entearen zerbitzuen egitura organikoa eta funtzionala eta funtzionamendu-araubidea garatuko dira, eta enpleguaren eta inklusioaren arloan ikerketa, diseinu eta berrikuntza aplikaturako laguntza tekniko espezializatua bermatuko da.

2. Estatutuek administrazio-ahalak erabiltzea esleituta duten organoak identifikatuko dituzte.

91. artikulua.- Programa-kontratua

1. Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren arteko harremana arautuko du programa-kontratuak. Gutxienez, eduki hau izango du:

a) Entearen helburuak.

b) Helburuak lortzeko behar diren planak eta horien kostu estimatua.

c) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak jarritako finantzaketa.

d) Betekizunak eta kontrol-prozedura.

e) Lortutako emaitzak ebaluatzeko eta ezarritako helburuen betetze-mailari lotutako ondorioak zehazteko adierazleak.

2. Programa-kontratua Eusko Jaurlaritzak onartuko du, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren administrazio-kontseiluak proposatuta, eta 4 urterako balioko du.

92. artikulua.- Euskadiko Ogasun Nagusiaren gai propioei buruzko araubide juridikoa

1. Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren ekonomia-, ondare-, kontratazio-, aurrekontu- eta finantza-araubidea zuzenbide pribatuko ente publikoei aplikatu beharreko lege-xedapenetan ezarritakoa izango da, hurrengo paragrafoetan ezarritako baldintzetan.

2. Kontrol ekonomiko-finantzarioaren eta kudeaketa-kontrol iraunkorraren modalitatean gauzatuko da kontrol ekonomikoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Kontrolari eta Kontabilitateari buruzko Legearen testu bategina onartzen duen urriaren 19ko 2/2017 Legegintzako Dekretuan eta hura garatzeko araudian ezarritakoaren arabera, kalterik egin gabe Euskal Autonomia Erkidegoak bizitzeko gutxieneko diru-sarreraren kudeaketa ez-kontributiboa bere gain hartzea helburu duen Hitzarmenaren arabera dagokion kontrol ekonomikoari.

3. Bere eginkizunak betetzeko behar dituen ondasunak eta zerbitzuak kontratatzeko eta eskuratzeko araubidea lege honetan ezarritakoa izango da: 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren

26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora. Dena den, horrek ez du eragotziko artikuluetan ezarritakoa.

4. Entearen titulartasuneko ondasun eta eskubideei eta hari atxikita daudenei aplikatu beharreko araubidea azaroaren 6ko 2/2007 Legegintzako Dekretuaren bidez onartutako Euskadiko Ondareari buruzko Legearen testu bateginean ezarritakoa izango da.

5. Dirulaguntzen araubidea egokitu egingo da Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuan xedatutakora.

6. Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak urtero egingo eta onartuko du dagokion aurrekontuaren aurreproiektua, programa-kontratuaren araberakoa, eta Eusko Jaurlaritzari bidaliko dio, bereizita sar dadin Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan.

93. artikulua.- Baliabide ekonomikoak

Hauek dira Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren baliabide ekonomikoak:

a) Urtero Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorren kontura ezartzen diren diru-kopuruak.

b) Tasak, prezio publikoak eta ondasunen eta eskubideen ondoriozko era guztietako produktuak eta errentak, eta bere jarduerak egikaritzearen ondoriozko diru-sarrera arruntak eta ezohikoak, barne harturik prestazio ekonomikoen onuradunek betebeharrak ez betetzeagatik izapidetutako itzulketa-prozedurei dagozkien diru-sarrera publikoak, zuzenbide pribatuko entitate publikoaren aurrekontuaren kargura emandako dirulaguntzak eta zehapenetatik datozenak.

c) Legeak baimenduta jaso ditzakeen ohiko eta ezohiko diru-sarrerak.

d) Bere alde emandako dirulaguntzak, ekarpenak eta dohaintzak.

e) Esleitu ahal zaion beste edozein baliabide.

94. artikulua.- Langileak

1. Lanbide-Euskal Enplegu zerbitzuko langileak, esleitzen zaizkien eginkizunak kontuan izanik, horretarako kontratatutako lan-kontratuko langileak eta Euskal Administrazio Publikoetako kidego eta eskaletako funtzionarioak dira.

Ahal publikoak baliatzea edo interes orokorrak babestea dakarten lanpostuak funtzionarioek bete beharko dituzte, eta langile horiek Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorreko funtzio publikoa arautzen duten arauak bete beharko dituzte.

2. Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari dagokio lanpostuetara sartzeko araubidea, baldintzak eta hautaketa-probak erabakitzea, bai eta lanpostuak betetzeko eta sustapen-profesionaleko prozedurak deitzea, kudeatzea eta ebaztea ere, betiere publikotasun-, berdintasun-, merezimendu- eta gaitasun-printzipioekin bat.

3. Zuzendaritza-organoetako lanpostuak zuzendaritzako langileek beteko dituzte. Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendaritza-karguen egitura estatutuetan xedatutakoaren arabera ezarriko da.

Zuzendaritzako langileak administrazio-kontseiluak izendatu eta kargugabetuko ditu, zuzendaritza nagusiak proposatuta; gaitasun profesionala eta esperientzia hartuko dira kontuan, merezimendua, gaitasuna eta publizitatea bermatuko dituen prozeduraren bidez.

4. Zuzendaritzako langilea funtzionarioa denean, zerbitzu berezietako egoeran egongo da, Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 64.1.n) artikuluan xedatutakoaren arabera.

5. Zuzendaritza-postuen ordainsari finkoak eta aldizkakoak administrazio-kontseiluak ezarriko ditu, eta goi-kargudunen ordainsariei buruzko urriaren 28ko 14/1988 Legean ezarritakoa errespetatu beharko dute.

LEHENENGO XEDAPEN GEHIGARRIA.- Euskal Enplegu Sarearen mapa, logotipoa eta arreta, informazio eta prospekziorako tresna komunak

1. Lege hau argitaratu eta urtebeteko epean, Euskal Enplegu Sarearen mapa onartuko du Eusko Jaurlaritzak.

2. Epe berean, Eusko Jaurlaritzan enplegu-arloko eskumena duen saileko titularrak onartuko ditu Euskal Enplegu sarearen logotipoa eta arreta, informazio eta prospekziorako tresna komunak.

3. Euskal Enplegu Sarearen mapa, logotipoa eta arreta, informazio eta prospekziorako tresna komunak onartu izana Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren egoitza elektronikoan argitaratuko dira.

BIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA.- Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua administrazio-erakunde autonomoa Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua zuzenbide pribatuko ente publiko bihurtzea

1. Euskal Sektore Publikoaren maiatzaren 12ko 3/2022 Legearen 12. artikuluan xedatutakoaren arabera, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua administrazio-erakunde autonomoa Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua zuzenbide pribatuko ente publiko bihurtzen da, eta bere nortasun juridikoari eusten dio.

2. Eraldaketa horren indarrez, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua administrazio-erakunde autonomoaren harreman juridikoak, ondarea, aktiboa eta pasiboa, baliabide materialak eta giza baliabideak Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua zuzenbide pribatuko ente publikoarenak izango dira. Izan ere, ente hori haren ondorengoa izango da, modu unibertsalean, haren eskubide eta betebeharretan, erakunde eraldatuaren aktibo eta pasibo osoa, egintza-batasunean, modu globalean lagatzearen eta integratzearen bidez.

3. Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua administrazio-erakundearekin lan-kontratu bat hitzartuta duten eta lan-zuzenbidearen mende dauden langileak modu unibertsalean haren ondorengoa izango den Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua zuzenbide pribatuko ente publikoaren plantillan sartuko dira. Langile horiek atxikita dauden talde, kategoria eta zerbitzu berberetan sartuko dira, eraldaketaren unean zituzten eskubide eta betebehar berberekin.

4. Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua administrazio-erakunde autonomoari atxikitako funtzionarioek aukera izango dute, erregelamenduz ezarritako epean eta prozedurarekin, batetik, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua zuzenbide pribatuko ente publikoko lan-kontratuko langileen plantillan sartzeko, dagokien antzinatasuna aitortuta eta jatorrizko kidego edo eskaletan borondatezko eszedentzia-egoeran geratuta —uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 61.1.a) artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz—, edo, bestetik, lege horretan ezartzen diren mugikortasun-prozeduren arabera legozkiekeen lanpostuetan sartzeko.

Langile lan-kontratudunen plantillan sartzeko aukera baliatzen ez dutenek zerbitzu aktiboan jarraituko dute beren jatorrizko kidegoan, baina hori ez da eragozpen izango lege honen araubidea eta hura garatzeko araudia osorik aplikatzeko.

5. Indarrean dagoen legerian Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua administrazio-erakunde autonomoa aipatzen den guztietan Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua zuzenbide pribatuko ente publikoa aipatzen dela ulertu beharko da.

HIRUGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA.- Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua zuzenbide pribatuko ente publikoaren aurrekontuak

1. Bigarren xedapen gehigarrian aipatzen den eraldaketa ez badator bat Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorrei buruzko dagokion legea indarrean jartzearekin, Gobernu Kontseiluak Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua ente publikoaren ustiapen- eta kapital-aurrekontuak onartuko ditu, bai eta bere jarduerak hasten dituen ekitaldi ekonomikoari dagozkion aurreikusitako finantza-egoerak ere, eta 15 eguneko epean horren berri emango dio Eusko Legebiltzarreko Ekonomia, Ogasun eta Aurrekontu Batzordeari.

2. Ondorio horretarako, aurrekontuen eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailak aurrekontu horiek eratzeko behar diren aldaketak egingo ditu. Alabaina, aldaketa horiek ezingo dute handitu ente publikoaren jardueren hasieran indarrean zeuden aurrekontu orokorren partidetan izendatutako kopuru globala.

LEHENENGO XEDAPEN IRAGANKORRA.- Lan Administrazioaren Prestakuntza Espezialitateen Euskal Katalogoa

Lanbide Heziketaren Antolamendu eta Integrazioari buruzko martxoaren 31ko 3/2022 Lege Organikoak aipatzen duen Lanbide Konpetentzien Estandarren Katalogo Nazionala garatzen den arte, eta, hala badagokio, Lanbide Kualifikazio eta Espezializazioen Euskal Esparrua egokitzen den arte, Lan Administrazioaren Prestakuntza Espezialitateen Euskal Katalogoak, zeina aipatzen baita ekainaren 28ko 4/2018 Euskal Autonomia Erkidegoko eskaintza profesionalari buruzko Legearen 6.3.c) eta d) eta 22.3 artikuluetan, hau jaso beharko du: Kualifikazio Profesionalen Katalogo Nazionalari lotutako prestakuntza-eskaintza egiaztagarria.

BIGARREN XEDAPEN IRAGANKORRA.- Enplegurako eta Toki Garapenerako Lankidetza Funtsa

1. Enplegurako eta Toki Garapenerako Lankidetza Funtsa sortzen da —Baliabideak banatzeko eta foru-aldundiek Euskal Autonomia Erkidegoaren aurrekontuak finantzatzeko egin beharreko ekarpenak zehazteko 2022-2026 aldian aplikatuko den metodologiari buruzko urriaren 7ko 4/2021 Legea indarrean dagoen bitartean, edo hura aldatzen den bitartean—, lege honetatik eratortzen diren udalerrien eta toki-entitateen eskumen propioak aintzat hartzeko, eta Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legearen araberako finantzaketa zehazteko.

2. Enplegurako eta Toki Garapenerako Lankidetza Funtsaren helburua enplegurako eta toki-garapenerako planak egiten direla bermatzea da, finantza-nahikotasunaren printzipioarekin bat etorriz. Arau hauek gidatuko dute:

a) Eusko Jaurlaritzak dagokion aurrekontu-kreditua izendatuko dio urtero Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren Legean.

b) Toki-erakunde bakoitzak Enplegurako eta Toki Garapenerako Lankidetza Funtsetik jasotzen dituen ekarpenak transferentzia izango dira, eta ez da aplikatzekoa izango dirulaguntzen arloko araudia.

c) Toki-erakunde onuradun bakoitzari dagokion baliabide ekonomikoa esleitzeko, irizpide hauek aplikatuta lortzen diren zenbatekoak batuko dira:

1.- Langileen kostua: goi-mailako teknikari baten eta administrari baten lanpostuei dagozkienak hartuko dira halakotzat.

2.- Baliabide materialak: aurreko apartatuan aipatutako lanpostuei lotutakoak hartuko dira kontuan hartuko dira halakotzat.

3.- Gauzatze-kostuak: kontuan hartuko dira diagnostiko- eta ikerketa-faseei, analisi-faseari, tokiko garapen-estrategia prestatzeko faseari, proiektuak zehazteari eta ebaluazio-faseari lotutako gastuak.

4.- Biztanle kopuruaren araberako haztapena: 1. eta 2. apartatu ordinaletako zenbatekoak biztanle kopuruaren arabera haztatuko dira, urte bakoitzeko urtarrilaren 1eko udal-erroldaren zifrak kontuan hartuta, arau hauen arabera:

- 10.000 eta 20.000 biztanle arteko udalerriak eta toki-entitateak: (1.+2.+3.) x 1.

- 20.001 eta 50.000 biztanle arteko udalerriak eta toki-entitateak: (1.+2.+3.) x 1,4.

- 50.001 eta 100.000 biztanle arteko udalerriak eta toki-entitateak: (1.+2.+3.) x 1,8.

- 100.001 eta 200.000 biztanle arteko udalerriak eta toki-entitateak: (1.+2.+3.) x 2,3.

- 200.001 biztanletik gorako udalerriak eta toki-entitateak: (1.+2.+3.) x 3.

5.- Enplegurako eta toki-garapenerako planak kuadrillei, mankomunitateei edo elkarte-oinarridun beste toki-entitate batzuei buruzkoak direnean, aurreko zenbakietan ezarritako arauak aplikatuko dira. Biztanle kopuruaren araberako haztapena dagokion toki-entitateko biztanle guztiak kontuan hartuta egingo da.

Baldin eta, ordinal honetan xedatutakoa aplikatuta, toki-erakundearen finantzaketa udalerri bakoitzari 1. ordinaletik 4.era aurreikusitako arauak aplikatuta legokiokeena baino % 20 txikiagoa bada, % 20 handituko da toki-erakundearentzat ateratzen den azken zenbatekoa.

d) Aurreko apartatuan aipatzen diren irizpideak aldatzeko aukera izango du Eusko Jaurlaritzak, Enplegu Politika Publikoen Euskal Kontseiluak aldeko txostena eman ondoren.

e) Eusko Jaurlaritzak onartuko ditu c) letran aipatutako irizpide bakoitzari urtero esleitutako zenbatekoak, urte bakoitzeko irailaren 30a baino lehen, enpleguaren arloan eskumena duen sailak proposatuta eta Enplegu Politika Publikoen Euskal Kontseiluak aldeko txostena eman ondoren.

f) Toki-entitate bakoitzari enplegu-arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailaren titularraren aginduz egingo zaio esleipena, urte bakoitzeko lehen hilabetean. Ordainketa aldi bakar batean egingo da, martxoaren 1a baino lehen.

3. 10.000 biztanletik beherako udalerriei eta toki-entitateei baliabide ekonomikoak esleitzeko, honako arau hauek beteko dira:

- 2.000 biztanletik beherako udalerriak eta toki-entitateak: (langile-kostuak + baliabide materialak + gauzatze-kostuak) x 0,2.

- 2.000 eta 5.000 biztanle arteko udalerriak eta toki-entitateak: (langile-kostuak + baliabide materialak + gauzatze-kostuak) x 0,4.

- 5.001 eta 7.000 biztanle arteko udalerriak eta toki-entitateak: (langile-kostuak + baliabide materialak + gauzatze-kostuak) x 0,6.

- 7.001 eta 9.999 biztanle arteko udalerriak eta toki-entitateak: (langile-kostuak + baliabide materialak + gauzatze-kostuak) x 0,8.

Langile-, material- eta gauzatze-kostuak aurreko paragrafoko c) apartatuan aurreikusitakoen berdinak izango dira.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Indargabeturik gelditzen dira lege honetan xedatutakoaren aurka doazen maila bereko edo maila apalagoko xedapen guztiak, eta, zehazki, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari buruzko urriaren 13ko 3/2011 Legea.

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENA.- Inklusiorako eta Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren Legea aldatzea

1. Aldatu egiten da Inklusiorako eta Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren Legearen IX. tituluko II. kapitulua, eta izen hau ematen zaio: Enplegu eta Inklusio Politiken Ebaluazio, Ikerketa eta Berrikuntza organoa.

2. Aldatu egiten da Inklusiorako eta Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemari buruzko Legearen 143. artikulua, eta honela idatzita geratzen da:

«*143. artikulua.- Sorrera eta araubide juridikoa*

1. Enplegu eta Inklusio Politiken Ebaluazio, Ikerketa eta Berrikuntza Organoa sortzen da, administrazio-organo espezializatua, zeinaren eskumen eremua den Inklusiorako eta Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistema eta enplegu-politikak eta -zerbitzuak ebaluatzea, bai eta inklusioaren arloko berrikuntza eta ikerketa sustatzea eta bazterketaren prebentzioan eta desagerpenean esku hartzeko gaitasunak garatzeko eta etengabe hobetzeko tresnak sustatzea ere.

2. Enplegu eta Inklusio Politiken Ebaluazio, Ikerketa eta Berrikuntza Organoa kide barreko organoa izango da. Inklusio- eta enplegu-politikak aztertu eta ebaluatzeko gaietan gutxienez hamabost urteko esperientzia duten ospe handiko izenen artetik izendatuko da titularra.

Inklusioaren arloan eskumena duen sailari atxikitzen zaio, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren egitura hierarkikoan sartu gabe».

3. Aldatu egiten da Inklusiorako eta Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemari buruzko Legearen 145.a) artikulua, eta honela idatzita geratzen da:

«*145. artikulua.- Eginkizunak*

Enplegu eta Inklusio Politiken Ebaluazio, Ikerketa eta Berrikuntza Organoari eginkizun hauek dagozkio:

a) Ebaluazioaren arloan:

1.- Inklusiorako eta Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistema, enplegu-politika publikoak eta Euskal Enplegu Sarearen zerbitzu-zorroa ebaluatzea.

2.- Inklusiorako eta Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren, enplegu-politika publikoen eta Euskal Enplegu Sarearen zerbitzu-zorroaren kalitate-adierazleak diseinatzea, aldian behin eguneratzea eta argitaratzea.

3.- Inklusiorako eta Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemari, enplegu-politika publikoei eta Euskal Enplegu Sareari buruzko informazioa zabaltzea, ahalik eta gardentasun handiena bermatuz irismenari eta funtzionamenduari dagokienez, eta

4.- Gizarteratzeko programak hobetzeko eta enplegagarritasuna hobetzeko aplika daitezkeen protokoloak eta kalitate-estandarrak egin eta aplika daitezen bultzatzea».

4. Aldatu egiten da Inklusiorako eta Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemari buruzko Legearen 146.1.a) artikulua, eta honela idatzita geratzen da:

«146. artikulua.- Enplegu eta Inklusio Politiken Ebaluazio, Ikerketa eta Berrikuntza Organoaren titularraren estatutu pertsonala

1. Enplegu eta Inklusio Politiken Ebaluazio, Ikerketa eta Berrikuntza Organoko titularraren estatutu pertsonala honako hau izango da:

a) Eusko Jaurlaritzak izendatuko du, Gobernu Kontseiluak erabakitako dekretu baten bidez, inklusioaren eta enpleguaren arloan eskumena duen sailaren titularrak proposamen arrazoitua egin ondoren eta Inklusiorako Euskal Kontseiluak eta Enplegu Politika Publikoen Euskal Kontseiluak aldeko txostena eman ondoren.

Inklusioaren eta enpleguaren arloko eskumena sail batek baino gehiagok badute, proposamen arrazoitua batera egingo dute sail horietako titularrek.

Izendapen-dekretuak zehaztuko du Enplegu eta Inklusio Politiken Ebaluazio, Ikerketa eta Berrikuntza Organoaren titularra nork ordezkatuko duen edo duten lanpostua hutsik badago, titularra kanpoan bada edo gaixorik badago. Titularrarentzat eskatzen diren baldintza berak bete beharko ditu, eta Inklusiorako Euskal Kontseiluaren eta Enplegu Politika Publikoen Euskal Kontseiluaren aldeko txostena izan beharko du.

b) Aldaezina izango da, eta bere agintaldiak bost urte iraungo du, lanpostuaz jabetzen den egunetik kontatzen hasita. Agintaldia izendapena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu ondoren hasiko da.

Agintaldia iraupen bereko aldietan luzatu ahal izango da.

c) Goi-kargua izango da, zerbitzu berezietako egoeran geratuko da aurretik funtzio publikoren bat betetzen bazuen, eta kargu publikodunen jokabide-kodea eta haien interes-gatazkak arautzen dituen legeriaren mende egongo da.

5. Aldatu egiten da Inklusiorako eta Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemari buruzko Legearen 146.2. artikulua, eta honela idatzita geratzen da:

2. Enplegu eta Inklusio Politiken Ebaluazio, Ikerketa eta Berrikuntza Organoko titularra arrazoi hauengatik baino ezin izango da lanpostutik kendu:

a) Heriotza.

b) Kargualdia amaitzea.

c) Idatziz egindako ukoa.

d) Betebeharrak modu larrian bete gabe uztea.

e) Askatasunaz gabetzen duen zigor bat jasotzea, edota enplegu edo kargu publikoa betetzeko erabateko desgaikuntza edo desgaikuntza berezia ezartzen duena.

f) Eginkizunak betetzeko gerora etorritako ezgaitasuna.

Kargu-uztea edo mugiaraztea Gobernu Kontseiluak onartutako dekretu baten bidez formalizatuko da, eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da. d) eta e) letretan —desgaikuntza berezia denean— eta f) letretan aurreikusitako kasuengatik lanpostutik kentzeko erabakia Eusko Jaurlaritzak hartuko du, horretarako espedientea instruitu ondoren, interesdunari entzun ondoren, eta Inklusiorako Euskal Kontseiluak eta Enplegu Politika Publikoen Euskal Kontseiluak txostena egin ondoren.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA.- Erregelamendu bidezko garapena

Gobernu Kontseiluari ahalmena ematen zaio lege hau garatzeko eta betearazteko behar diren xedapen guztiak eman ditzan, lege hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta sei hilabeteko epean.

AZKEN XEDAPENETAKO HIRUGARRENA.- Deslegeztatzea

1. Eusko Jaurlaritzari gaikuntza ematen zaio 6.2 artikuluko bigarren paragrafoan aipatzen diren eta lehentasunezko arreta behar duten kolektiboen identifikazioa, 20.1.d), e) eta f) artikuluetan ezarritako Euskal Enplegu Sarearen zerbitzuak eta 36. artikulutik 39.era bitartekoetan aipatzen diren arreta, informazio eta prospekziorako tresna komunak aldatzeko.

2. Aurreko paragrafoan xedatutakoaren arabera Eusko Jaurlaritzak onartzen dituen Euskal Enplegu Sarearen zerbitzuei dagokienez, hurbiltasun- eta subsidiariotasun-printzipioei jarraituko zaie foru-aldundiek eta toki-entitateek, hala badagokie, kudea dezaketen prestazio-edukia identifikatzean.

AZKEN XEDAPENETAKO LAUGARRENA.- Indarrean jartzea

Lege hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hiru hilabetera jarriko da indarrean.